

NAFARROAKO PARLAMENTUKO ERREGELAMENDUA

AURKIBIDEA

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
I. TITULUA		
Nafarroako Parlamentuaren eraketa	(1-12)	81
II. TITULUA		
Foru parlamentariak		
I. KAPITULUA		
Foru parlamentarien eskubideak	(13-17)	85
II. KAPITULUA		
Foru parlamentarien abantailak.....	(18-20)	89
III. KAPITULUA		
Foru parlamentarien eginbeharrak	(21-25)	89
IV. KAPITULUA		
Foru parlamentari izaera eskuratu, eten eta galtzea	(26-28)	91
III. TITULUA		
Talde parlamentarioak	(29-35)	93
IV. TITULUA		
Nafarroako Parlamentuaren antolamendua		
I. KAPITULUA		
Mahaia		
1. atala		
Mahaia ren eskumenak eta jarduera	(36-38)	97
2. atala		
Mahaikideak	(39-42)	99

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
II. KAPITULUA		
Eledunen Batzarra.....	(43-44)	101
III. KAPITULUA		
Batzordeak		
1. atala		
Arau orokorrak	(45-57)	103
2. atala		
Batzorde arruntak	(58-60)	109
3. atala		
Batzorde bereziak	(61-63)	111
4. atala		
Europako Gaietarako Ponentzia	(64)	113
IV. KAPITULUA		
Osoko Bilkura	(65-66)	114
V. KAPITULUA		
Batzorde Iraunkorra	(67-69)	115
VI. KAPITULUA		
Giza baliabideak eta baliabide materialak.....	(70-71)	117

V. TITULUA

Funtzionamenduari buruzko arau orokorrak

I. KAPITULUA		
Bilkurak eta haietarako deialdiak.....	(72-79)	117
II. KAPITULUA		
Gai zerrenda.....	(80)	122
III. KAPITULUA		
Quoruma.....	(81)	123
IV. KAPITULUA		
Eztabaidak	(82-92)	123
V. KAPITULUA		
Bozketak.....	(93-105)	128

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
VI. KAPITULUA		
Bilkuren aktak.....	(106)	132
VII. KAPITULUA		
Epeak zenbatzea eta agiriak aurkeztea	(107-109)	133
VIII. KAPITULUA		
Presako prozedura	(109-110)	134
IX. KAPITULUA		
Nafarroako Parlamentuko argitalpenak eta bere lanen publizitatea	(112-115)	135
X. KAPITULUA		
Parlamentuko diziplina		
1. atala		
Zehapenak	(116-118)	136
2. atala		
Gaiari lotzeko eta ordena gordetzeko deiak.....	(119-121)	138
3. atala		
Parlamentu barruko ordena	(122-125)	139

VI. TITULUA

Legegintzako prozedura

I. KAPITULUA		
Legegintzarako ekimena.....	(126)	140
II. KAPITULUA		
Legegintzako prozedura arrunta		
1. atala		
Foru lege proiektuak		
I. Zuzenketen aurkezpena	(127-131)	141
II. Osoko Bilkurako osoko eztabaidak.....	(132)	144
III. Batzordeko eztabaida.....	(133-139)	145
IV. Osoko Bilkurako eztabaida	(140-146)	147
2. atala		
Foru lege proposamenak.....	(147-149)	151

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
3. atala		
Foru lege proiektu eta proposamenak erretiratzea.....	(150-151)	153
III. KAPITULUA		
Legegintzako prozeduraren berezitasunak		
1. atala		
Onetsiak izateko gehiengo osoa behar duten foru lege proiektu eta proposamenak	(152-153)	153
2. atala		
Aurrekontuei buruzko foru lege proiektua.....	(154-156)	155
3. atala		
Kontu orokorrei buruzko foru lege proiektua.....	(157)	156
4. atala		
Foru lege proiektu edo proposamena irakurketa bakarrean izapidetzea	(158)	156
5. atala		
Legegintzarako eskumena batzordeei eskuordetzea	(159-160)	157
IV. KAPITULUA		
Foru legearen indarra duten gobernuaren xedapenak	(161-162)	158
VII. TITULUA		
Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzea	(163)	161
VIII. TITULUA		
Foru Diputazioari baimenak ematea		
I. KAPITULUA		
Foru Diputazioari zor publikoa jaulki, abalak eta bermeak eratu eta maileguak hartzeko baimena ematea	(164)	161
II. KAPITULUA		
Nafarroako Gobernuari Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin hitzarmenak eta itunak egiteko baimena ematea		

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
1. atala		
Foru Diputazioari Estatuarekin hitzarmenak egiteko baimena ematea	(165-166)	162
2. atala		
Foru Diputazioari autonomia erkidegoekin lankidetzaz hitzarmenak eta itunak egiteko baimena ematea	(167-169)	163
3. atala		
Arau amankomunak.....	(170)	164
III. KAPITULUA		
Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 39.2 artikulua aipatzen duen ekimena erabili ahal izateko Foru Diputazioak behar duen baimena	(171)	164
IX. TITULUA		
Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoen izapideak	(172)	165
X. TITULUA		
Konfiantza ematea eta kentzea		
I. KAPITULUA		
Inbestidura	(173-175)	165
II. KAPITULUA		
Konfiantza-eskaera	(176-177)	168
III. KAPITULUA		
Zentsura-mozioa.....	(178-182)	168
XI. TITULUA		
Interpelazioak eta galderak		
I. KAPITULUA		
Interpelazioak.....	(183-187)	171
II. KAPITULUA		
Galderak	(188-194)	173

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
III. KAPITULUA		
Arau amankomunak	(195)	176
XII. TITULUA		
Moziak	(196-198)	176
XIII. TITULUA		
Foru Diputazioaren komunikazio, programa edo planen eta beste informazio batzuen azterketa eta eztabaida		
I. KAPITULUA		
Gobernuaren komunikazioak	(199-201)	178
II. KAPITULUA		
Foru Diputazioak igorritako programa eta planen azterketa	(202)	181
III. KAPITULUA		
Nafarroako Gobernuaren agerraldiak	(203)	182
XIV. TITULUA		
Parlamentuaren harremanak Kontuen Ganberarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoarekin eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseiluarekin		
I. KAPITULUA		
Kontuen Ganberari aholkua eskatzea eta horren lehendakariaren agerraldiak	(204-205)	184
II. KAPITULUA		
Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren txostenak	(206)	185
III. KAPITULUA		
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren txostenak	(207)	186
XV. TITULUA		
Senatarien hautaketa eta Kontuen Ganberako lehendakariaren nahiz Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren izendapenak		
I. KAPITULUA		
Nafarroako Foru Komunitateko senatariak hautatzea	(208)	186

	<u>Art.</u>	<u>Or.</u>
II. KAPITULUA		
Kontuen Ganberako lehendakaria izendatzea	(209-210)	188
III. KAPITULUA		
Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa izendatzea	(211)	188
XVI. TITULUA		
Diputatuen Kongresurako lege proposamenak, konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak, eskumen gatazkak eta babes-errekursoak		
I. KAPITULUA		
Diputatuen Kongresurako lege proposamenak	(212)	189
II. KAPITULUA		
Konstituzio-kontrakotasuneko errekursoak eta babes-errekursoak	(213-214)	191
XVII. TITULUA		
Nafarroako Parlamentuaren edo Gorte Nagusien agintaldiaren amaieran izapidetzen ari diren aferak	(215)	191
XEDAPEN GEHIGARRIAK	(1-6)	191
XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA		193

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina, Mahaia 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia eta 2011ko irailaren 15eko 10. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO ERREGELAMENDUA

I. TITULUA

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERAKETA

1. artikulua.

1. Foru parlamentari hautetsiek beren izaera frogatuko dute hauteskunde organo eskudunak egindako frogagiria Parlamentuko Idazkaritza Nagusian utziz. Egintza berean, erregelamendu honetako 24. artikuluan aipatzen diren jarduera-eta ondasun-adierazpenen agiriak beteko dituzte, bai eta datu pertsonalak, jaioteguna, ohiko helbidea eta jakinarazpen ofizialeterako ematen duten helbidea jasotzen dituen agiria ere.
2. Foru parlamentariak egintza horretan nortasun txartel bat jasoko dute, Parlamentuko idazkari nagusiak izenpetua.

2. artikulua.

Foru parlamentari hautetsiak Parlamentuko Osoko Bilkuren aretoan bilduko dira Legebiltzarraren eratze-bilkura egiteko, hauteskundeetarako deialdiak aipatzen dituen egun eta orduan edo, halakorik ezean, hauteskunde organo eskudunak foru parlamentariak aldarrikatu ondorengo hirugarren larunbateko hamaiketan.

3. artikulua.

Eratze-bilkurak, hasieran, bertaratutako parlamentari hautetsietatik adinez zaharrena izanen du lehendakari, eta idazkari gisa bi gazteenek lagunduko diote. Horiek denek Adineko Mahaia osatuko dute, zeinak jardunen baitu Parlamentuko Mahaia hautatzen den arte.

4. artikulua.

Lehendakariak bilkurari hasiera eman zaiola adieraziko du, eta xedatuko du legelari nagusiak edo hori ordezten duenak irakur ditzala deialdiari buruzko foru dekretua, foru parlamentari hautetsien zerrenda, hauteskunde-auzietako errekurtsio ebatzigabeak, bai eta horien ebazpenak uki ditzakeen foru parlamentarien izenak ere.

5. artikulua.

Adineko Mahaiko lehendakariak zin egin edo hitzemanen du Nafarroako foru araubidea beti errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta bere karguari dagozkion betebeharrak zintzo beteko dituela, eta zin-egite edo hitzemate hori bera eskatuko die idazkariei eta, gero, gainerako parlamentari hautetsiei. Horretarako, alfabetoaren hurrenkeran dei eginen zaie.

6. artikulua.

1. Horren ondotik, Parlamentuko Mahaia osatuko duten kideak hautatuko dira: lehendakaria, bi lehendakariorde eta bi idazkari.
2. Baldin eta mahaikideak hautatzen badira foru parlamentarien baten hautapen edo aldarrikapenaren kontra aurkaratzeren bat irmoki ebazteke dagoelarik, Mahaia behin-behinekoa izanen da.
Aurkaratzerik ez badago edo izan direnak ebatzi eta ezetsi badira, Mahaia behin betikoa izanen da.
3. Baldin eta aurkaratzearen ondorioz, ordea, parlamentari kargura iristen bada hasieran aldarrikatu direnetakoa ez den pertsona bat, pertsona horrek zilegi izanen du mahaikideak berriz hauta daitezela eskatzea, Nafarroako Parlamentuko kide hautetsia dela aitortzen dion ebazpena irmo bilakatu ondorengo hamar eguneko epean.

Eskabide hori behar den epean eta forman aurkeztuz gero, lehendakariak behar diren neurriak hartuko ditu Mahaia Osoko Bilkura batean berriz hautatzeko, eskabidea aurkeztu ondoko hamar egun balioduneko epean.

4. Aurreko apartatuan aipatzen den epea igarotakoan ez bada aurkeztu beste mahaikide-hautaketa bat egiteko eskabiderik, Mahaia behin betikoa bilakatuko da.

7. artikulua.

Bateraezinak dira Parlamentuko Mahaiko kide kargua eta Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioko lehendakari edo kontseilari kargua.

8. artikulua.

1. Lehenbizi, lehendakaria hautatuko da.
2. Lehendakaria hautatu baino lehen bilkura eten egingen da. Etenaldian, foru parlamentariak hautagaiak aurkeztu ahalko dituzte, Adineko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez.
3. Bilkurari berriz ekinda, Adineko Mahaiko lehendakariak hautagaiak aldarrikatuko ditu, eta adieraziko du zer foru parlamentarik aurkeztu dituzten.
4. Lehendakaria paper bidezko bozketa sekretuz hautatuko da. Foru parlamentari bakoitzak hautagai aldarrikatuetak bakar baten izena idatzi ahalko du boto-paperean. Boto zuriek ere balioko dute. Gainontzekoak baliogabeak izanen dira.
5. Foru parlamentariari Mahaira dei egingen zaie izena esanez, alfabetoaren hurrenkeran, eta boto-papera lehendakariari emanen diote. Lehendakariak hautestontzian sartuko du boto-papera. Azkenik, Adineko Mahaiko kideek bozkatuko dute eta, horien ondotik, lehendakariak, eta orduantxe amaituko da bozketa. Jarraian botoak zenbatuko dira. Horretarako, lehendakariak paperak hautestontzitik aterako ditu eta idazkari batek ozenki irakurriko ditu.
6. Botoak zenbatzen amaituta, lehendakariak emaitzaren berri emanen die foru parlamentariari.
7. Foru parlamentari hautetsien gehiengo osoaren botoak jasotzen dituen hautagaia izanen da lehendakari.

8. Lehenengo bozketan gehiengo hori lortzen ez bada, beste bat eginen da. Bigarren bozketan, lehenengoan boto gehien lortu duten biak soilik izan ahalko dira hautagai. Bozketa horretan, boto gehien zer hautagaik lortzen duen, hura izanen da lehendakari.
9. Bigarren bozketan berdinketarik gertatuz gero, hirugarrena eginen da berdindurik dauden hautagaien artean. Bozketa horretan, boto gehien zer hautagaik lortzen duen, hura izanen da lehendakari.
10. Hirugarren bozketan berdinketak bere horretan badirau, hautagairik zaharrenaren alde eginen da, eta hura aldarrikatuko da lehendakari.

9. artikulua.

1. Lehendakari hautetsia aldarrikaturik, bi lehendakariordeak batera hautatuko dira.
2. Hautaketa horri aplikatuko zaio aurreko artikuluko 2tik 6ra bitarteko apartatueta –biak barne– ezarritakoa.
3. Boto gehien eskuratzen duten bi hautagaiak izanen dira lehen eta bigarren lehendakariordeak, hurrenez hurren.
4. Berdinketarik gertatuz gero, hautagairik zaharrenaren alde eginen da.

10. artikulua.

1. Bi idazkariak lehendakariordeak hautatu diren bezala hautatuko dira, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraituz.
2. Berdinketarik gertatuz gero, hautagairik gazteenaren alde joko da.

11. artikulua.

Idazkariak hautatzen amaituta, Adineko Mahaiko lehendakariak batera aldarrikatuko ditu mahaikide hautetsi guztiak, nork bere eserlekua hartuko du eta, hori egitean, karguaren jabetza hartuko dute. Ondoren, lehendakariak Nafarroako Parlamentua eraturik dagoela aldarrikatuko du eta bukatutzat emanen du bilkura.

12. artikulua.

Parlamentuko lehendakariak Erregeari, Nazioko Gobernuko lehendakariari, Foru Diputazioko lehendakariari eta Diputatuen Kongresuko eta Senatuko lehendakariei jakinaraziko die Parlamentua eratu dela.

II. TITULUA FORU PARLAMENTARIAK

I. KAPITULUA

Foru parlamentarien eskubideak

13. artikulua.

1. Foru parlamentariak eskubidea dute Osoko Bilkuretara eta hautatuak izan diren batzordeen bilkuretara joateko, eta haietan eskubidea izanen dute hitz egiteko eta botoa emateko. Nafarroako Parlamentuko gainerako batzorde arrunten bilkuretara ere joan daitezke, baina ez dute haietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubiderik izanen.
2. Foru parlamentariak eskubidea dute gutxienez ere batzorde arrunt bateko kide izateko eta beren karguari dagozkion eskumen, abantaila eta eginkizunetan jarduteko, erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat.

14. artikulua.

1. Foru parlamentariak eskubidea dute lanean jarduteko behar duten laguntza zuzenean edo beren talde parlamentarioaren bidez jasotzeko. Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrek emanen diete, bereziki, argibideei eta dokumentazioari buruzko laguntza.
2. Beren eginkizunak hobeki betetzeko, foru parlamentariak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde publiko, sozietate publiko eta fundazio publikoei eskatu ahalko diete administrazio eta ente horiek eginiko jarduketan

ondorio diren datu, txosten edo administrazio-dokumentuak, baldin eta horiek ezagutzearekin urratzen ez badira datu pertsonalak babeste aldera legez ezarritako bermeak. Dokumentazioaren kantitatea dela-eta zaila bada dokumentazio horren kopia bidaltzea, administrazio-organo eskudunak foru parlamentariaren eskueran ipiniko du eskatu den dokumentazioa, egoki deritzen oharrak idatz ditzan.

3. Betiere, horretarako eskaera Parlamentuko lehendakariaren bitartez helaraziko da, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartuta egonen da eskaturiko dokumentazioa hogeitau eguneko epean eskueran ipintzera. Kontrako kasuan, aipaturiko administrazioak Parlamentuko lehendakariari jakinarazi beharko dizkio, hark eskatzaileari helaraz diezazkion, eskaera betetzea eragozten duten arrazoiak, zeinek zuzenbidean oinarrituta egon beharko baitute. Baldin eta publikoaren eskueran dauden iturri ofizialetan dauden datu, txosten edo dokumentuak eskatzen badira, Administrazioak zilegi izanen du haiek zer toki zehatzetan eskueran dauden adieraztera mugatzea, betiere eskatutakoak kopiatu ahal badira.
4. Foru parlamentariak eskatu ahalko du, halaber, Legebiltzarreko lehendakariaren bitartez eta taldearen eleduna alde aurretik jakinaren gainean egonda, Estatuko Administrazioko agintari, organismo eta erakundeetako informazioa. Nafarroako toki entitateetako informazioa ere eskatu ahalko du.
5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere aurrekontu-kudeaketako sistemarako sarbide informatikoa emanen die foru parlamentariei, zehaztuko diren baldintzetan eta sistemaren segurtasunerako beharrezkoak diren bermeekin betiere.
6. Foru parlamentariak eskubidea dute Nafarroako Gobernuak kideen eta Foru Komunitateko Administrazioko goi karguen jarduerak eta interesen erregistroan sartu eta hura kontsultatzeko, jarduerak aitortzen zatiari dagokionez betiere. Horretarako eskaera Parlamentuko lehendakariaren bitartez helaraziko zaio Foru

Komunitateko Administrazioiko organo eskudunari, eta gehienez ere bost eguneko epean onartu beharko da.

15. artikulua.

1. Foru parlamentariak diru kopuru bat jasoko dute, bai eta laguntzak eta gastuen ordainak ere, beren eginkizuna eraginkortasunez eta duintasunez bete ahal izateko.

Diru kopuru hori jasotzeko hiru aukera daude, eta foru parlamentari bakoitzak ordainsari-mota horietako baten alde egin beharko du, parlamentari-agiria eskuratu eta ondoko hogeitau eguneko epean. Eginiko aukera aldatu ahalko du hiruhileko bakoitzeko azken hamabost egun naturaletan, salbu eta Parlamenturako hauteskundeak egiten diren urtean. Nolanahi ere, ezin izanen da bi aldiz baino gehiago aldatu legegintzaldi batean zehar.

Salbuespen gisa, eta interesdunak arrazoiak azalduz eskaera egin ondoren, Mahaiak zilegi izanen du aldaketa onartzea gorago adierazitako mugei lotu gabe.

Honakoak dira aukerak:

- a) Aldizkako ordainsari finkoa, lanaldi osoko araubidearekin. Ordainsari-mota hori aukeratuz gero, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko goi karguentzat ezarritako bateraezintasun ekonomikoen araubidea aplikatuko zaie foru parlamentariari.
 - b) Aldizkako ordainsari finkoa, lanaldi osoko araubiderik gabe. Ordainsari-mota hori aukeratuz gero, funtzionario publikoentzat ezarritako ordainsari-bateraezintasunen araubidea aplikatuko zaie foru parlamentariari.
 - c) Bertaratzearen araberrako ordainsaria; alegia, deitzen zaien parlamentu-ekitaldietara bertaratzearen truke dieta bat jasotzea.
- Aurreko a) eta b) letretan aipatutako ordainsariak bateraezinak dira edozein erretiro-pentsio publiko jasotzearekin.

Foru parlamentariak ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute hurrengo Legebiltzarra eratu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ordainsari-mota bakoitzaren eta gastuei aurre egiteko bidezko diren laguntzen eta ordainen zenbatekoak zehaztu eta kasuan kasuko aurrekontuen barrenean sartuko ditu, eta aipaturiko organoetako kide direnenak bereiziko ditu. Halaber, ordainsari horien araubide juridikoa zehaztuko du. Ordainsariak jasotzeko baldintzen artean ezarri beharko da erregelamendu honetako 21. artikuluan aipaturiko bertaratze-betebeharra.
3. Foru parlamentariak jasotzen dituzten ordainsari guztiak tributu arloko araudi indardunari lotuta egonen dira.
4. Urtero, urtarrilean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira foru parlamentari guztiak aurreko urtean jasotako ordainsariak, edozein dela ere aukeratu duten ordainsari-mota.

16. artikulua.

Parlamentuko lehendakariak jaun edo andre txit garaiaren tratamendua izanen du, eta foru parlamentariak, berriz, jaun edo andre txit argiarena.

17. artikulua.

1. Aldizkako ordainsari finkoak jasotzen dituzten foru parlamentariak dagozkien Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordainduko dira Parlamentuaren aurrekontuaren kargu.
2. Nafarroako Parlamentuak zilegi izanen du Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileekin itunak izenpetzea, beharrezkoak direnak aurreko apartatuan ezarritakoa betetzeko eta Gizarte Segurantzaren lehendik sarturik ez zeuden foru parlamentariak egoki den araubidean afiliatzeko.
3. Lanaldi osoko araubidean sartzen diren eta, beren lanbidearengatik, Gizarte Segurantzaz bestelako aurreikuspen sozialeko sistema batekoak diren foru parlamentariak zilegi izanen dute sistema horretan segitzeko erabakia hartzea; kasu horretan,

Parlamentuak kasuan kasuko mutualitate-kotizazioak ordainduko dizkie.

II. KAPITULUA

Foru parlamentarien abantailak

18. artikulua.

Foru parlamentariak, baita agintaldia bukatu eta gero ere, ukiezinak izanen dira Parlamentuko egintzetan adierazitako iritziei eta beren karguan jardutean emandako botoei dagokienez.

19. artikulua.

Foru parlamentariak immunitatea izanen dute, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 14. artikuluan ezarritako moduan.

20. artikulua.

Parlamentuko lehendakariak berehala hartuko ditu Legebiltzarraren eta haren kideen eskubide eta abantailak zaintzeko egokitzat jotzen dituen neurri guztiak baldin eta foru parlamentari bat atxiki edo atxilotu izanaren berri badu edo eginkizun parlamentarioa betetzea eragozten dioten beste edozein epaile- edo gobernu-jarduketaren berri badu.

III. KAPITULUA

Foru parlamentarien eginbeharrak

21. artikulua.

Foru parlamentariak Osoko Bilkuretara eta kide diren batzordeen bilkuretara joateko eta beren karguari dagozkion eginbeharrak zintzoki betetzeko beharra dute, betiere erregelamendu honetan ezarritakoari lotuz.

22. artikulua.

Foru parlamentariak behartuta daude Parlamentuko ordena, gizalegea eta diziplina errespetatzera eta jarduketa nahiz ebazpen guztien gaineko sekretua gordetzera, baldin eta horien sekretutasuna espresuki ezarrita badago erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

23. artikulua.

Foru parlamentariak ezin izanen dute aipatu edo baliatu beren foru parlamentari izaera merkataritza, industria edo lanbide jardueretan aritzeko. Eta Nafarroako Gobernuak kideak lotzen dituzten printzipio etiko eta jokabidezko berei lotuta egonen dira.

24. artikulua.

1. Foru parlamentariak behartuak daude aitorpen-agiri hauek betetzera foru parlamentari izaera osoa eskuratzeko:
 - a) Jarduerei buruzko aitorpen-agiria.
 - b) Ondare-ondasunei buruzko aitorpen-agiria.
2. Jarduerei buruzko aitorpenak bilduko ditu aitortzaileak diharduen edozein jarduera —baldin eta, legeria indardunarekin bat, bateraezintasun zioa izan badaiteke— eta, orokorrean, dirusarrerak ekartzen dituzten edo ekar ditzaketen jarduerak.
3. Ondare-ondasunei buruzko aitorpenak bilduko du aitortzailearen edozein motatako ondasun higitari eta higitari, eta zehatz-mehatz adieraziko ditu edozein sozietatetan duen partaidetzaren araubidea eta norainokoa eta dauzkan gordailu nahiz ordezkatzeko-baloreak.
4. Foru parlamentari izaera osoki eskuratzeko, hasieran aurkeztu beharko dira aitorpen-agiri horiek, eta Legebiltzarreko Mahaiak onesten duen ereduaren arabera beteko dira, zein bere aldetik bete ere.
5. Jarduerei eta ondasunei buruzko aitorpenak Interes Erregistroan jasoko dira. Erregistro hori lehendakaria zuzenean buru duela eta legelari nagusiak zaindurik osatuko da Legebiltzarrean. Erregistroaren edukia publikoa izanen da, ondare-ondasunei buruzkoa salbu, Legebiltzarreko Mahaiaren esku soilik egonen baita.

6. Halaber, urte natural bakoitzean, lehen seihilekoan, foru parlamentariak jardueri eta ondasunei buruzko beste aitorten bat egin beharko dute. Aitortutako datuetan aldaketarik egon ez bada, aitorten horren ordeaz aurreko aitortenak berresten dituen aitorten soila aurkez daiteke.
7. Orobat, foru parlamentari izaera galdu eta bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte aitorten horiek foru parlamentariak.
8. Foru parlamentariak ikerketa batzordeen esku utzi beharko dituzte pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako eta ondarearen gaineko zergarako egin dituzten aitortzen kopia kautotuak, baldin eta ikerketa batzordeek aitorten horiek behar badituzte.

25. artikulua.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 15. artikuluan aipatzen den foru legeak bateraezintasunei buruz ezartzen dituen arauak bete behar dituzte foru parlamentariak. Mahaiak Osoko Bilkurara eramanen ditu foru parlamentari bakoitzaren bateragarritasun edo bateraezintasun egoerari buruzko kasuan kasuko proposamenak, foru parlamentariari entzun ondoren. Bateraezintasuna aldarrikatu eta interesdunari jakinarazi ondotik, foru parlamentariak sei egun baliouduneko epea izanen du gehienez ere, Legebiltzarreko eserlekuaren eta horrekin bateraezina den karguaren artean aukeratzeko. Zein aukeratu duen Mahaiari jakinarazten ez badio, ulertuko da foru parlamentariak uko egin diola Nafarroako Parlamentuko eserlekuari.

IV. KAPITULUA

Foru parlamentari izaera eskuratu, eten eta galtzea

26. artikulua.

1. Foru parlamentari izaera foru parlamentaria hautetsia dela aldarrikatzen den unean berean eskuratzen da.
2. Foru parlamentari hautetsiek betebeharrak hauek guztiak betetzen dituztenean lortuko dituzte beren eskubide eta abantaila osoak:

- a) Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusian aurkeztea hauteskunde organo eskudunak emandako frogagiria.
 - b) 24. artikuluan aipatzen diren jardueri eta ondasunei buruzko aitopen-agiriak betetzea.
 - c) 5. artikuluan aipaturiko hitzemandate edo zin-egitea gauzatzea.
3. Legebiltzarraren eratze-bilkuran hitzemandaten edo zin egiten ez duten foru parlamentari hautetsiek Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean egin beharko dute geroago, hark ezartzen duen egun eta orduan.

27. artikulua.

Foru parlamentariaren eskubide eta eginbehar parlamentarioak etenik geldituko dira ondoko kasuetan:

1. Lehendakariak, Mahaiak edo Osoko Bilkurak, erregelamendu honetan ezarritako ordena eta diziiplina parlamentarioko arauekin bat, etetea erabakitzen dutenean.
2. Kondena-epai irmo batek etetea dakarrenean edo hura betetzeak eginkizun parlamentarioetan jardutea ezinezkoa egiten duenean.
3. Irmo delarik auzipetze-autoa edo prozedura legeen arabera horren baliokidea den egintza, behin-behineko presoaldian dagoenean, eta horrek dirauen bitartean.

28. artikulua.

Foru parlamentariak bere izaera galduko du ondoko kasuetan:

1. Epailearen erabaki irmo baten bidez hautaketa edo aldarrikapena baliogabetuz gero.
2. Epailearen erabaki irmo baten bidez kargu publikorako desgaitze osoko edo bereziko zigorrera kondenatuz gero.
3. Hiltzen bada edo epailearen erabaki irmo baten bidez haren ezintasuna deklaritzen bada.

4. Agintaldia bukatuz gero, epea bete delako; hori ez da eragozpen izanen legebiltzar berria osatu arte Batzorde Iraunkorreko kide titular zein ordezkoen eginkizunak luzatzeko.
5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren aurrean uko eginez gero.

III. TITULUA

TALDE PARLAMENTARIOAK

29. artikulua.

1. Talde parlamentario bat eratzeko, beharrezkoa da gutxienez hiru foru parlamentari biltzea.
2. Foru parlamentariak ezin izanen dira inola ere talde parlamentario bat baino gehiagotako kide izan.
3. Alderdi politiko, hautesle-elkarte edo hauteskunde-koalizio batek ezin izanen du eratu talde parlamentario bat baino gehiago.

Hautagai-zerrenda berean hautaturiko foru parlamentariak ezin dute ezein kasutan talde parlamentario bereizirik eratu edo eratzten lagundu. Era berean, ezin izanen dute talde parlamentario bereizirik eratu hauteskundeetan parte hartu ez duten alderdi politikoetakoak diren foru parlamentariak.

4. Talde parlamentarioek eskubidea eta betebeharra dute Legebiltzarrak egiten dituen bilkuretan beren kideren baten bidez ordezkatuta egoteko, erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat.

30. artikulua.

Talde parlamentario bat eratzeari erabaki duten foru parlamentariak taldearen eraketaren akta igorriko diote Mahaiari, Legebiltzarraren eratze-bilkuraren egunetik zenbatzen hasita gehienez ere bost egun balioduneko epean. Taldekide guztiek izenpetu beharko dute akta hori, eta bertan jasoko dira haien izen-deiturak, taldearen izena, eledunaren izen-deiturak eta eledunaren ordezkariaren izena.

31. artikulua.

1. Honakoak hartuko dira atxiki gabeko parlamentaritzat:
 - a) Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera, hauteskundeetara aurkeztu ziren hauteskunde-zerrendako alderdi politiko, hautesle-elkarte edo hauteskunde-koalizioari dagokion talde parlamentarioan sartzen ez diren foru parlamentariak.
 - b) Kide diren talde parlamentariotik joaten diren edo hartatik kanporatuak diren foru parlamentariak. Bi inguruabar horiek Parlamentuko Mahaiari jakinarazi beharko zaizkie, ezagut ditzan eta behar diren eraginak izan ditzaten.
2. Atxiki gabeko parlamentariak legegintzaldi osoan eutsiko diote izaera horri, salbu eta hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagai-zerrendako alderdi politikoari dagokion talde parlamentarioa berriz sartzen badira, betiere haren eledunak berariaz horretarako baimena eman ondoren.
3. Parlamentari ez atxikiaren izaerak berarekin ekarriko du parlamentu-organoetan jatorrizko talde parlamentarioak proposatuta betetzen diren karguak eta postuak galtzea.
4. Atxiki gabeko parlamentariak izanen dituzte foru parlamentariak banaka erregelamendu bidez aitortutako eskubide berak. Mahaiari egokituko zaio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskubide horietaz baliatzearekin zerikusia duten gai guztiak ebaztea.
5. Atxiki gabeko parlamentari bakoitzak eskubidea izanen du batzorde bateko kidea izateko. Batzorde hori zein den Parlamentuko Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.
6. Legebiltzarreko Mahaiak egokitzen dituen bitarteko materialak emanen dizkie atxiki gabeko parlamentariak, beren eginkizunak bete ditzaten, eta soilik 15. artikuluan aurreikusitako sari ekonomikoak egokituko zaizkie.

32. artikulua.

1. Foru parlamentari izaera Nafarroako Parlamentuaren eratzebilkuraren ondoren lortzen duten foru parlamentariak hauteskundeetara aurkeztu ziren hauteskunde-zerrendaren taldeari atxiki beharko zaizkio izaera lortu eta bost eguneko epean, Legebiltzarreko Mahaiari egindako idazki baten bidez. Idazki horretan jasota geratu beharko da taldearen eledunaren oniritzia. Hauteskunde-zerrenda horretako kideek ezin izan badute talde berekirik sortu, talde mistoan sartuko dira.
2. Dagokien taldean sartzen ez diren parlamentariak atxiki gabeko parlamentaritzat hartuko dira.

33. artikulua.

1. Baldin eta, mistoa ez beste talde parlamentario bat eratu eta gero, talde hori bi kide baino gutxiagokoa izatera murrizturik geratzen bada, taldea automatikoki deseginen da, eta haren kideak automatikoki pasatuko dira talde mistoko kide izatera.
2. Baldin eta talde parlamentario bat eratu eta gero kide bat denboraldi batez galtzeagatik talde hori bi parlamentari baino gutxiagokoa izatera murrizturik geratzen bada, talde parlamentario moduan iraunen du foru parlamentari berriak bere karguaren jabetza hartu eta bost egun pasatu arte.

Bost eguneko epea iraganda foru parlamentaria ez bada sartzen talde parlamentario gisa iraun duen taldean, talde hori desegin egingen da eta haren kideak automatikoki pasatuko dira talde mistokoak izatera.

34. artikulua.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren parlamentariez gainera, talde mistoko kide izanen dira 29.1 artikulua talde parlamentario propioa eratu ahal izateko ezartzen duen gutxieneko parlamentari kopurura iristen ez diren alderdi politiko, hautesle-elkarte edo hauteskunde-koalizioetako foru parlamentariak.
2. Eztabaidetan, talde mistoko kideen mintzaldien multzo osoak talde parlamentario baten mintzaldiaren iraupen bera izanen du.

3. Osoko Bilkuretan eta batzordeetan, talde mistoko kideentzako hitz egiteko denbora zati berdinetan banatuko da mintzatzea eskatu dutenen artean, eta horiek zilegi izanen dute hitz egiteko denbora elkarri lagatzea.
4. Talde mistoko parlamentariari batzordeetan dagozkien eserleku guztiak haien artean berdinki banatuko dira. Horretarako, taldeak proposamen bat aurkeztu ahalko dio Mahaiari, taldeko kide guztiek sinaturik, adostasunaren erakusgarri.
Proposamenik ezean, Legebiltzarreko Mahaiak erabakiko du eserlekuen banaketa, taldeko kideei entzun ondoren.
5. Batzordeen bilkuretan, talde mistoko parlamentariak elkar ordeztu dezakete, batzordeko Mahaiari igorritako idazki baten bidez, titularrak eta ordezkoak izenpeturik, adostasunaren frogagarri.
6. Ulertuko da edozein ekimen parlamentario talde mistoko kide guztiak ados jarrita egin dela, haren eledunak espresuki hala adierazten duenean.
7. Aurreko apartatuan ezarritakoa ez da eragozpen izanen talde mistoko kideek, nork bere sinadura soilarekin eta bere izenean, edozein ekimen parlamentario abiatzeko.

35. artikulua.

1. Parlamentuak, talde parlamentarioek beren eginkizunak bete ahal ditzaten, toki eta baliabide aski jarriko ditu haien esku. Hartara, dirulaguntza finko bat emanen die Parlamentuaren aurrekontuaren kargura, berdina guztientzat, eta beste bat, aldakorra, talde bakoitzak duen parlamentari kopuruaren arabera.
2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, talde mistoan legegintzaldian zehar, talde parlamentarioak eratuta egon ondoren, sartzen diren foru parlamentarietako dirulaguntzen zenbatekoak aurreko apartatuan aipatzen den parte aldakorra bakar-bakarrik estaliko du.

3. Legebiltzarreko Mahaiak ezarriko ditu, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, diru kopuru horren zenbatekoa, mota eta hori jasotzeko betebeharrak. Erregelamendu honetako 29.4 artikuluan ezartzen den bilkuretara joan beharra izanen da betebeharrorietako bat.
4. Talde parlamentarioek autonomia izanen dute beren antolamendua eta barne jarduketara ezartzeko.

IV. TITULUA

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA

Mahaia

1. atala

Mahaiaren eskumenak eta jarduera

36. artikulua.

Mahaia Legebiltzarraren zuzendaritza-organoa da, Parlamentuko lehendakariaren agintaritzaren eta zuzendaritzaren menpe dihardu eta Parlamentuaren ordezkariak kolegiatua dauka, parte hartzen duen ekitaldietan.

37. artikulua.

1. Mahaiari eginkizun hauek dagozkie:

Lehenengoa. Legebiltzarreko lanaren antolamenduak eta barne araubide eta gobernuak behar dituzten erabaki eta neurriak hartzea.

Bigarrena. Legebiltzarrak hartutako erabakiak betetzen direla zaintzea.

Hirugarrena. Legebiltzarreko aurrekontuaren aurreproiektua onestea.

Laugarrena. Legebiltzarreko aurrekontuaren betetzearen zuzendaritza eta kontrola.

Bosgarrena. Legebiltzarraren gastuak antolatzea; hori ez da eragozpen izanen eskuordetzeak egiteko.

Seigarrena. Izaera parlamentarioko idazki eta agiriak erregelamendu honen arabera eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren kalifikatzea eta horiek onartzekoak diren ala ez deklaratzeko.

Zazpigarrena. Erabakitzea, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, izaera parlamentarioko idazki eta agiri guztiak erregelamendu honetan ezarritako arauari jarraituz izapidetzea, eta ezartzea, kasua bada, zer batzorde den eskudun afera bakoitzaz arduratzeko.

Zortzigarrena. Eledunen Batzarrari entzun ondoren, bilkuraldi bakoitzerako batzordeen eta Osoko Bilkuraren jardueren egutegia ezartzea.

Bederatzigarrena. Eledunen Batzarraren boto loteslearekin bat, arau bereziak ematea, erregelamendu honetan jaso gabekoak, beren izaeragatik halako arauak behar dituzten aferak eztabaidatzeko.

Hamargarrena. Erregelamendu honek ematen dion beste edozein eginkizun eta, era berean, organo berezi bati esleiturik ez daudenak.

2. Talde parlamentario bat edo foru parlamentariren bat ados ez badago Mahaiak aurreko apartatuan adierazitako seigarren eta zazpigarren eginkizunetan jardutean hartutako erabakiarekin, errekurtsioa aurkeztu ahalko dio Eledunen Batzarrari, erabakia jakinarazi edo argitaratu ondorengo bost eguneko epean. Hark behin betikoz erabakiko du, ebazpen arrazoituaren bidez.
3. Mahaiak 1. apartatuko lehenengo. eta bosgarren eginkizunak erregelamendu bidez esleitu ahalko dizkie Nafarroako Parlamentuko Administrazioiko beste organo batzuei.

38. artikulua.

1. Lehendakariak deituko ditu Mahaiaren bilkurak, berak hala erabakita edo gutxienez ere bi mahaikidek hala eskatuta. Eskabide horrek, betiere, gai zerrenda eduki beharko du. Eskabideak betebeharrak hori betetzen badu, lehendakariak bilkurara dei egingen du, proposatutako gai zerrendarekin bat. Gehienez ere hamar egun balioduneko epean egingen da.
2. Mahaiari Parlamentuko legelari nagusiak edo horren ordezkari legelariak emanen dizkio aholkuak. Legelari hark egingen du bilkuren akta eta zainduko du, lehendakariaren zuzendaritzapean, erabakiak betetzen direla.

2. atala Mahaikideak

39. artikulua.

1. Osoko Bilkurak hautatuko ditu mahaikideak, Parlamentuaren eratze-bilkuran, erregelamendu honetako I. tituluan ezarritakoarekin bat.
2. Osoko Bilkurak hautatuta beteko dira Mahaian legegintzaldian zehar hutsik gelditzen diren postuak, lehendakariari haiek jakinarazi eta hamabost eguneko epean eta erregelamendu honetako I. tituluan ezarritako moduan, zeina bete beharreko postu hutsen errealitatera egokituko baita.
3. Legebiltzarreko lehendakariak eta gainerako mahaikideek izaera hori galduko dute:
 - a) Foru parlamentari izaera galduz gero.
 - b) Karguari uko eginez gero.
 - c) Kargu-utzarazpenagatik edo kargutik kentzeagatik, Legebiltzarraren Osoko Bilkurak legebiltzarkideen hiru bosteneko gehiengoaren bidez hala erabakita.
 - d) Bere talde parlamentarioko kide izateari utziz gero.

4. Aurreko apartatuko c) letran ezarritakoaren ondorioetarako, ondoko prozedurari jarraituko zaio:
 - a) Gutxienez ere Parlamentuko kideen hiru bostenek edo kopuru hori biltzen duten talde parlamentarioek proposatu beharko dute kargu-uztea.
 - b) Proposamen hori aurkeztu eta zazpi eguneko epean, Parlamentuko lehendakariak, Legebiltzarreko Mahaiarekin bat eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, kargu-uzteari buruz erabakitzeko Osoko Bilkurara dei egingen du. Bilkura hamar eguneko epean egin beharko da gehienez ere.
 - c) Kargu-uzteko proposamena onesten ez bada, proposamena sinatu dutenek ezin izanen dute beste bat aurkeztu bilkuraldi berean.
 - d) Kargu-uzteko proposamena onesten bada, bete gabeko kargua edo karguak hautatuko da edo dira bilkura berean, erregelamendu honetako I. tituluan ezarritakoarekin bat.

40. artikulua.

1. Parlamentuko lehendakariak Legebiltzarren ordezkaritza dauka, lanak koordinatzen ditu, ongi doazela segurtatzen, eztabaiden zuzendaritza dauka eta horietan ordena mantentzen du.
2. Lehendakariari dagokio Erregelamendua bete eta betearaztea eta zalantza kasuetan hura interpretatzea. Hutsune juridikorik egoteagatik ebazpen osagarririk eman behar baldin badu, Eledunen Batzarraren erabaki loteslea beharko du aldez aurretik.

Mahaikide batek proposatuta, Legebiltzarreko Mahaiak parlamentu-eztabaidetan sortutako zalantzazko gaiei buruzko aginduzko irizpideak finkatu ahalko ditu ondoren.

3. Halaber, legeek eta erregelamendu honek ematen dizkieten eginkizun guztiak betetzen ditu lehendakariak.

41. artikulua.

Lehendakariordeek, hurrenez hurren, lehendakaria ordezten dute eta haren eginkizunak betetzen dituzte, baldin eta haren postua bete gabe badago, bete ezin badu edo ez badago, Idazkaritza Nagusiari behar bezala jakinarazita. Lehendakariak edo Mahaiak esleitzen dieten beste edozein eginkizun ere betetzen dute.

42. artikulua.

Idazkariak, lehendakariak oniritzirik, Osoko Bilkuretako, Mahaiko nahiz Eledunen Batzarreko aktak eta eman beharreko ziurtagiriak ikuskatu eta ontzat ematen dituzte; laguntza ematen diote lehendakariari bilkuretan eztabaidetako ordena eta bozketen zuzentasuna segurtatzeko; Legebiltzarraren lanak normaltasunez egin daitezen laguntzen dute, lehendakariak xedatutakoaren arabera; eta lehendakariak edo Mahaiak esleitzen dieten beste edozein eginkizun betetzen dute.

II. KAPITULUA**Eledunen Batzarra****43. artikulua.**

1. Talde parlamentarioen eledunek Eledunen Batzarra osatzen dute, beti Legebiltzarreko lehendakaria buru duela bilduko dena. Lehendakariak dei egingen du Eledunen Batzarraren bilkuretara, berak erabakita, gutxienez ere bi talde parlamentariok edo Legebiltzarreko kideen bostenak eskatuta. Eskabide horrek, betiere, gai zerrenda eduki beharko du. Eskabideak betebehar hori betetzen badu, lehendakariak bilkurara dei egingen du, proposatutako gai zerrendarekin bat. Gehienez ere hamar egun baliioduneko epean egingen da.
2. Talde mistoaren eleduna talde horretako kideek hautatuko dute. Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki batean askatasunez eta aho batez ezarriko dute eledunaren hautaketa-modua eta haren agintaldiaren iraupena. Talde mistoko parlamentari kopurua

aldatzen den bakoitzean berretsi edo aldatu beharko da proposamena.

Ahobatezko proposamenik ezean, Mahaiak behar diren arauak emanen ditu auzia konpontzeko, Eledunen Batzarrak talde mistoaren eleduna gabe erabaki loteslea hartu ondoren.

3. Nafarroako Gobernuari Eledunen Batzarraren bilkuren deialdien berri emanen zaio, hark, egoki baderitzo, ordezkari bat, laguntzaile batekin joan ahalko dena, igor dezan.
4. Eledunen Batzarrera orobat joanen dira Mahaiko kideak — eztabaidetan hitz egiteko eskubidea izanen dute— eta legelari nagusia edo hura ordezten duen legelaria —Mahaiari dagokionez erregelamendu honek esleitzen dizkion eginkizunak beteko ditu—
- .
5. Eledun bakoitzak, bere taldea zenbat foru parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu Batzarrean.

Talde mistoaren eledunak, taldeko zenbat kidek eman dioten ordezkaritza, horrenbeste boto izanen ditu. Idatziz frogatu beharko du ordezkaritza.

44. artikulua.

Eledunen Batzarrari eginkizun hauek dagozkio:

Lehenengoa. Aldez aurretik entzuna izatea:

- a) Parlamentuko Osoko Bilkuretako eta batzordeen bilkuretako gai zerrenda erabakitzeko.
- b) Bilkura-aretoko eserlekuak talde parlamentarioei esleitzeko.
- c) Erregelamendu honetako aginduren batek hala ezartzen duenean eta, bereziki, 37. artikuluan ezarritako kasuetan.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko aurrekontuaren proiektua onestea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko kontu orokorrak onestea.

Laugarrena. Mahaiak hartutako erabakien berri izatea, astero.

Bosgarrena. Mahaiak hiru hilabetetik behin Parlamentuko kontuen egoerari buruz argibideak eman diezazkion.

Seigarrena. Adierazpen politikoak egitea.

Zazpigarrena. Agintarien, funtzionarioen eta pertsonen agerraldia eskatzea, 56. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zortzigarrena. Erregelamenduko 37.2 eta 130.2 artikuluetan aurreikusitako errekursoak ebatzea.

Bederatzigarrena. Erregelamendu honetako beste agindu batzuetan esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

III. KAPITULUA

Batzordeak

1. atala

Arau orokorrak

45. artikulua.

1. Batzordeak, non eta kontrakoa ezartzen ez den, talde parlamentarioek hautatzen dituzten kideek osatuko dituzte, Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarraren erabaki loteslearen ondoren, talde bakoitzari buruz ezartzen duen kopuruan eta zenbakizko garrantziaren proportzioan.
2. Talde parlamentarioek batzorde bati atxikirik duten kide bat edo gehiago ordeztu dezakete, haren edo haien ordeztu talde bereko beste bat edo batzuk jarriz, aldez aurretik Legebiltzarreko Mahaiari idatziz jakinarazita.

Ordezpena gai, eztabaida edo bilkura bakarrerako baldin bada, batzordeko mahaiari jakinarazi beharko zaio.

3. Batzorde-aretoetan, parlamentariak atxikita dauden talde parlamentarioaren arabera hartuko dute eserlekua. Talde bakoitzarentzako gordetako tokia Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, talde bakoitzak

adierazitako nahiaren arabera eta hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren hurrenkeran.

46. artikulua.

1. Legebiltzarreko lehendakariak talde parlamentario bakoitzari eskatuko dio batzorde bakoitzerako bere ordezkariak hauta ditzala.
2. Batzordeen kide izanen diren foru parlamentariak hautatuta daudelarik, Legebiltzarreko lehendakariak batzordeen eratze-bilkuretara dei egingen du.

47. artikulua.

Eratze-bilkuran, Legebiltzarreko lehendakaria buru eta Mahaiko idazkari bat idazkari lanetan duela, batzordeek beren kideen artetik mahai bat hautatuko dute, osatua egonen dena lehendakari batez, lehendakariorde batez eta idazkari batez.

48. artikulua.

1. Batzordeko Mahaiko kideak aldi berean hautatuko dira, paper bidezko bozketa sekretuz. Batzordekide bakoitzak izen bakarra idatzi ahalko du paperean.

Nafarroako Gobernuako kide ez diren batzordeko kideak soilik izan ahalko dira hautagai.

2. Botoak zenbatuta, boto gehien lortzen duena aldarrikatuko da lehendakari; boto kopuruan hari darraiona, lehendakariorde, eta horiei boto kopuruetan darraiena, idazkari.
3. Berdinketa gertatuz gero bai lehendakari izateko bai lehendakariorde izateko, zaharrenaren alde joko da. Berdinketa idazkari izateko gertatzen bada, berriz, gazteena hautatuko da.
4. Bozketa egin eta Mahaiko karguren bat bete gabe gelditzen bada, bi zaharrenak aldarrikatuko dira, hurrenez hurren, lehendakari eta lehendakariorde, baldin eta horiek badira bete gabeko karguak, eta idazkari, aldiz, gazteena.

49. artikulua.

Erregelamendu honetako 39. artikuluko 3. eta 4. apartatueta xedatutakoa batzordeetako mahaietako kideei aplikatuko zaie, berezitasun hauekin:

- a) Kargua uztea edo kargutik kentzea batzordeak erabakiko du, hura osatzen duten kideen gehiengo osoaren bidez.
- b) Kargua uztea talde parlamentario batek edo batzordeko kideen bostenak proposatu beharko du.
- c) Kargua utzi edo kargutik kentzeko proposamena aurkeztu eta hamabost eguneko epean, batzordeko lehendakariak, haren bilkurara dei egingen du, erregelamendu honetako 53. artikuluan ezarritakoarekin bat.

50. artikulua.

1. Kasuan kasuko batzordearen esparruan, bai mahaiak, bai mahaiko kideek, analogiaz, erregelamendu honetan Legebiltzarreko Mahaiari eta haren kideei ematen zaizkien eginkizunak beteko dituzte.
2. Parlamentuko lehendakaria edozein batzordetako buru izan daiteke, baina kide den batzordeetan bakarrik eman ahalko du botoa.

51. artikulua.

1. Batzordeetako mahaietan, lehendakariaren postua bete gabe badago, bete ezin badu edo lehendakaria ez badago, lehendakariordeak ordeztuko du lehendakaria. Lehendakariordea ere kasu horietako batean badago, lehendakaria ordeztuko du haren talde parlamentarioaren ordezkari batek, zeinak kasuan kasuko batzordeko kide izan beharko baitu.
2. Batzordeko lehendakariordearen edo idazkariaren ordeztuko da, kasu horietan, talde parlamentario beraren ordezkari bat, kasuko batzordeko kide dena.
3. Aurreko apartatuan aipatzen diren ez-egoteak ezin badira esan bezala ordeztu, arau hauetan ezarritakoari jarraituko zaio:

- a) Batzordeko lehendakariordea ez badago, batzordeko kiderik zaharrenak ordeztuko du.
- b) Batzordeko idazkaria ez badago, batzordeko kiderik gazteenak ordeztuko du.

52. artikulua.

Batzordeek hartuko dute Legebiltzarreko Mahaiak Eledunen Batzarrari entzun ondoren esleitzen dizkien gaien ardura, eta, kasua bada, izapidetzen dituzten gai guztien irizpen bana prestatuko dute, hartzen diren erabakiak jasota. Erabaki horiek, Parlamentuko Mahaiaren bidez eta lehendakariaren eta idazkariaren izenpeekin, Legebiltzarraren Osoko Bilkurara eramanen dira.

53. artikulua.

1. Parlamentuko lehendakariak dei egingen du batzordeen bilkuretara, Legebiltzarreko Mahaiarekin bat eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, berak hala erabakita edo gutxienez ere bi talde parlamentariok edo batzorde horretako kideen bostenak eskatuta.
2. Aurreko apartatuan aipatzen den eskabideak kasuko gai zerrenda eduki beharko du betiere. Gai zerrenda horretan, erregelamendu honek ezarritakoarekin bat kasuan kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko moduan dauden gaiak bakarrik agertu ahalko dira.
3. Baldin eta, legebiltzarreko Mahaiaren iritziz, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskabidea aurreko apartatuan ezarritakoarekin bat badator, lehendakariak bilkurara dei egingen du, proposatutako gai zerrendarekin bat.

54. artikulua.

1. Erregelamendu honetako beste arau batzuetan ezarritakoa gorabehera, batzorde arrunten bilkuretara joan daitezke:
 - a) Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin, batzordeko kide diren foru parlamentariak edo haien ordezkioak, ordezkapena erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat frogatuta.

b) Hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe:

- Nafarroako Gobernuako kideak.
- Batzordeko kide ez diren foru parlamentariak, batzordeak izapidetu beharreko zuzenketarik edo beste edozein ekimen parlamentario aurkeztu badute. Aipatu parlamentariak hitz egiteko eskubidea izanen dute erregelamendu honek kasuan kasuko eztabaidarako ezarritakoaren arabera.

c) Hitz egiteko eta botoa emateko eskubiderik gabe:

- Gainerako foru parlamentariak.
- Hedabideen ordezkari behar bezala kreditatuak, salbu eta erregelamendu honetako 78. artikuluan ezarritakoarekin bat sekretu deklaratzeko diren bilkuren kasuan.

2. Ondokoak joaten ahalko dira batzorde berezien bilkuretara:

a) Hizpidea eta botoa izanik, Batzordeko kide diren foru parlamentariak edo haien ordezkariak, erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat bere izaera frogatu dutenak.

b) Hizpiderik eta botorik gabe:

- Gainerako foru parlamentariak
- Hedabideen ordezkari behar bezala kreditatuak, salbu eta bilkura sekretua denean, erregelamendu honetako 77. eta 78. artikuluen arabera.

Batzorde berezien aurreko agerraldiak Batzorde arruntetarako eta lan bileretarako araututakoari jarraituz egingen dira.

3. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, batzordeen lan bilkurak egin daitezela erabaki dezake. Bilkura horiek informatzeko edo eztabaidatzeko izanen dira, eta ez da haien aktarik egingen. Proposamen-egileak eskaturik Mahaiak hala erabakiz gero, hedabideak bilkura horietara joan ahalko dira.

55. artikulua.

1. Batzordeek gehienez ere bi hilabeteko epean bukatu beharko dute edozein aferaren izapidetzea, salbu eta erregelamendu honek beste epe bat ezartzen duenean edo Legebiltzarreko Mahaiak, izan litezkeen gorabehera bereziak kontuan hartuta, epe hori luzatzea edo laburtzea erabakitzen duenean.
2. Batzordeek ponentzia bat osatzea erabaki dezakete, talde parlamentario guztien ordezkariak izanen dituena, eztabaidagaiari buruzko txosten bat prestatzeko. Txostenean ponentziako kideen gehiengoaren jarrera jasoko da. Horretarako, talde parlamentarioen ordezkariak norbere talde parlamentarioaren kide kopurua bezainbat boto edukiko dituzte. Talde mistoaren eledunak, taldeko zenbat kidek eman dioten ordezkaritza, horrenbeste boto edukiko ditu. Idatziz frogatu beharko du ordezkaritza.

Ponentzia bat eratzen denean, zehaztuko da batzordeko kideei zer epetan emanen zaien ezagutzera haren txostena, eta zein egunetan helduko dion batzordeak berriro gaiaren eztabaidari.

Ponentzia eratuta, haren kideek haren barne funtzionamendurako arauak ezarriko dituzte, eta egiten dituen lanen berri emanen diote Legebiltzarreko Mahaiari.

56. artikulua.

1. Batzordeek, Parlamentuko lehendakariaren bidez, ondokoa egin ahalko dute:
 - a) Beren eginkizunak betetzeko behar dituzten informazioa eta dokumentazioa eskatu Nafarroako Gobernuari eta administrazio publikoei.
 - b) Foru Diputazioko kideak nahiz eztabaidagaiaren arabera eskudun diren agintari eta funtzionario publikoak batzordera ager daitezela eskatu, galdetzen zaizkien aferei buruz informa dezaten.
 - c) Beste edozein pertsona ager dadila eskatu, helburu berarekin.

2. Baldin eta aurreko apartatuan aipatzen diren agintari eta funtzionarioek ez badiote kasurik egiten batzordeak aurkeztutako informazio- edo agerraldi-eskabideari, edo ez badute behar bezala justifikatzen eskabide horri kasurik egiteko ezintasuna, Legebiltzarreko lehendakariak horren berri emanen dio kasuan kasuko nagusi hierarkikoari, hark bidezko erantzukizunak eskatu ahal izan ditzan.

57. artikulua.

Legelariak aholkularitza-lana eginen dute batzordeetako mahai eta ponentzientzat, haiek beren eginkizunak betetzeko beharrezkoa dutena, eta kasuko aktak, txostenak eta irizpenak idatziko dituzte, hartutako erabakiak jasorik.

2. atala **Batzorde arruntak**

58. artikulua.

1. Batzorde arruntak dira Foru Araubidekoa, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren Mahaia legegintzaldi bakoitzaren hasieran zehazten dituenak; betiere, foru erkidegoko Administrazioaren departamentuen araberakoak izanen dira.
2. Erregelamendukoa ere batzorde arrunta izanen da. Erregelamenduko Batzordea osatuko dute Legebiltzarreko lehendakariak —batzordeko lehendakaria izanen da—, Mahaiko gainerako kideek —batzordeko mahaia osatuko dute— eta erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat talde parlamentarioek hautatzen dituzten parlamentariak. Botoa talde parlamentarioek hautatutako foru parlamentariak bakarrik izanen dute. Ondorio hauetarako, Legebiltzarreko gainerako batzorde arrunten arauak aplikatuko zaizkio batzorde honi.
3. Batzorde arruntak Parlamentuaren eratze-bilkura egin eta hogeita hamar eguneko epean eratu beharko dira.

59. artikulua.

1. Eskarietako Batzordea ere batzorde arrunta izanen da. Eskarietako Batzordea da herritarrek eskea egiteko eskubidea egikaritzuz Nafarroako Parlamentuari zuzentzen dizkioten eskariak izapidetzeko organo eskuduna. Batzordearen osaera eta funtzionamendua lotuko zaizkio 45. artikulua eta horrekin bat datozenek ezarritakoari.
2. Eskarietako Batzordeak banaka aztertuko ditu Parlamentuak jasotzen dituen eskari guztiak, haien onargarritasunari buruz erabakitzeke, eskea egiteko eskubidea arautzen duen lege organikoak ezarritakoari jarraituz.
3. Eskaria azertu ondoren, hura ez onartzea erabakitzen bada, Eskarietako Batzordeak xedatuko du Parlamentuko lehendakariaren bitartez honako bidalketa dakiela:
 - a) Talde parlamentarioei, Parlamentuan ekimenen bat bultzatu ahal izan dezaten, egoki baderitzote.
 - b) Nafarroako Gobernuari edo gaiaren arabera eskudun diren departamentuei, eta harekin batera, bidezkoa bada, eskaeraren edukiari buruzko azalpen-eskea.
 - c) Gaiaren arabera eskudun gisa hartzen duen administrazio publikoetako beste edozein organori, agintariri edo erakunderi.
 - d) Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari, bere foru lege arautzaileak ezarritako ondorioetarako.
4. Eskarietako Batzordeak, eskari bat azertu eta onartezintzat deklaratu ondoren, beste izapidetik gabe artxiba dadila erabakiko du, betiere aurreko apartatuan adierazitako bidalketa ez bada bidezkoa.
5. Eskari bat izapidetako onartu ondoren, Eskarietako Batzordeak erabaki ahalko du eskatzaileek agerraldia egitea, komenigarritzat jotzen badu.

6. Eskarietako Batzordeak egoki diren erabakiak hartuko ditu izapidera onarturiko eskariei dagokienez, eta horiei buruzko gomendioak egin ahalko dizkie botere publikoei eta erakundeei.
7. Kasu guztietan, Parlamentuko Mahaiak eskaria jaso izanaren adierazpena emanen du, eta adierazpen hori Eskarietako Batzordeari igorriko dio, zeinak, aurkezten denetik hiru hilabeteko epean, harturiko erabakien berri emanen baitie eskatzaileei.

60. artikulua.

1. Parlamentuko Osoko Bilkurak, Mahaiak proposatuta eta Eledunen Batzarrarekin bat, erabakia hartzen den legegintzaldian batzorde arrunt izanen diren beste batzorde batzuk sortzea erabaki dezake.
2. Batzordea sortzeko erabakiak ezarriko du eskumenak zer irizpideren arabera banatuko diren batzorde horren eta ukituak gerta daitezkeen artean.
3. Lehenengo apartatuan ezarritako prozeduraren bidez erabaki daiteke artikulua honetako batzordeak desegin daitezela.

3. atala

Batzorde bereziak

61. artikulua.

Lan zehatz baterako sortzen direnak dira batzorde bereziak. Agindutako lana bukatzean iraungitzen dira eta, betiere, legegintzaldia amaitzean.

62. artikulua.

1. Foru Diputazioak, Mahaiak, bi talde parlamentariok edo Legebiltzarreko kideen bostenak proposatuta, interes publikoko edozein gairi buruzko ikerketa batzorde bat sortzea erabaki dezake Parlamentuko Osoko Bilkurak.
2. Ikerketa batzorde bat sortzeko proposamena Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez egin beharko da. Idazkian zehatz-mehatz

azalduko dira ikertu beharreko gertaerak, eta batzordearen beharra justifikatuko da.

3. Ikerketa batzorde bat sortzea erabakita, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarraren erabaki loteslearen ondoren, haren osaera, antolamendua eta funtzionamendua eraentzen dituzten arauak emanen ditu.
4. Ikerketa batzordeek lan plan bat prestatuko dute, eta zilegi izanen dute beren baitako ponentziak izendatzea eta, Parlamentuko lehendakariaren bidez, eskatzea edozein pertsonak agerraldia egin dezan, hari entzute aldera. Deitzen den pertsonari gutxienez ere hiru egun lehenago jakinaraziko zaio zeri buruz eman behar dituen argibideak.
5. Ikerketa batzordeek, beren helburuak betetze aldera, Nafarroako Gobernuako kideen eta Foru Komunitateko Administrazioako goi karguen jarduera eta interesen erregistroko informazio babestu guztia eskuratu ahalko dute.
6. Batzorde horien konklusioak, auzitegientzat lotesle izanen ez direnak eta epaile-ebazpenei eraginen ez dietenak, irizpen batean bildu beharko dira, eta irizpen hori Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatuko da.
7. Osoko Bilkurak onetsitako konklusioak Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Foru Diputazioari jakinaraziko zaizkio. Parlamentuko Mahaiak Ministerio Fiskalari ere igorri ahalko dizkio ondorioak, hark, bidezko denean, abiarazi beharreko ekintzak abiaraz ditzan.
8. Talde parlamentario proposatzaileak eskatzen baldin badu, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean boto partikularrak ere argitaratuko dira.

63. artikulua.

Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki dezake aurreko artikuluan arautuak ez beste batzorde berezi batzuk sortzea eta badauden beste batzuekin nahasi edo elkartzea.

Batzordea sortzeko erabakian, Mahaiak, Eledunen Batzarraren erabaki loteslearen ondoren, batzorde horien osaera, antolamendua eta funtzionamendua eraentzen dituzten arauak emanen ditu.

4. atala

Europako Gaietarako Ponentzia

64. artikulua.

1. Europako Gaietarako Ponentzia organo eskuduna izanen da Gorte Nagusiek igortzen dituzten Europar Batasuneko legegintzako egintza proiektuek subsidiariotasun-printzipioa urratzen ote duten irizteko. Ponentzia horrek, zenbat talde parlamentario egon, hainbeste kide izanen ditu. Talde parlamentarioek beren ordezkaria hautatuko dute batzordeetako kideak hautatzen dituzten aldi berean.
2. Subsidiariotasun-printzipioa Europar Batasuneko legegintzako egintzetako proiektuetan betetzen den kontrolatzeko prozedurak honako arauak izanen ditu:

Lehena.

1. Europar Batasuneko legegintza-proposamen bat jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak aipatu ponentziako kideei igorriko die, posta elektronikoz. Bide bera erabilita, Nafarroako Gobernuari ere igorriko zaio, proposamenari buruzko txosten bat eman dezan bi asteko epean, eta, zehazki, legegintzako ekimena subsidiariotasun-printzipioaren arabera izateari buruz duen iritzia eman dezan. Txosten hori, jaso ondoren, ponentziako kideei igorriko zaie.
2. Halaber, Parlamentuko zerbitzu juridikoei igorriko zaie, txosten bat egin dezaten legegintzako egintza proiektuak Nafarroak arlo horretan dituen legegintzako eskumenetan duen eraginari buruz, subsidiariotasun-printzipioa betetzeari dagokionez. Txosten hori bi asteko epean egingen da, eta legelari nagusiak ponentziako kideei igorriko die.

3. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du aurreko apartatuetan aipaturiko epeak luzatzea, beharrezkotzat jotzen duenean.

Bigarrena. Kasuan kasuko txostenak jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak ponentziaren bilkura deituko du, gutxienez ere 48 ordu lehenagotik, eta deialdian adieraziko da ponentziaren lanak amaitzeko epemuga.

Hirugarrena. Ezarritako epearen barruan, ponentziak eskatu ahaliko du arau-proiektuari dagokion alorrean adituak diren funtzionarioen eta pertsonen agerraldia. Ponentziak zehaztuko du bere lanen egutegia, halako moduz non kasua bada eginen duen irizpena amaituta egonen baita deialdian ezarritako egunerako.

Laugarrena. Ponentziak uste badu aztertu duen proiektuak subsidiarotasun-printzipioa urratzen duela, arrazoitutako irizpen bat egin eta Parlamentuko lehendakariari igorriko dio, horrek Gorte Nagusiei igor diezaien. Aldiz, uste badu arau-proiektua aipatu printzipioaren arabera dela, iritzi horren berri emanen dio lehendakariari, horrek Gorte Nagusiei jakinaraz diezaien, baldin eta ponentziak hala eskatzen badu espresuki.

Bosgarrena. Irizpen arrazoitua Gorteei igortzeko epea lau astekoa izanen da gehienez, legegintza-egintzako proiektua Nafarroako Parlamentuan jasotzen denetik hasita.

3. Ponentziaren lanak bilkuraldi arruntetatik kanpo egin behar direnean, legebiltzarreko lehendakariaren esku geratuko da lan horiek egiteko beharrezkoak diren egunak gaitzeko ahalmena.

IV. KAPITULUA

Osoko Bilkura

65. artikulua.

1. Legebiltzarreko lehendakariak eginen ditu Parlamentuko Osoko Bilkuretarako deialdiak, Mahaiarekin adosturik eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, bere ekimenez edo, bestela, gutxienez

bi talde parlamentariok edo foru parlamentarien bostenak eskatuta.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den eskabideak betiere barne hartu beharko du kasuko gai zerrenda. Gai zerrenda horretan jaso ahalko dira, bakarrik, erregelamendu honek ezarritakoaren arabera Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko moduan dauden gaiak.
3. Baldin eta Mahaiaren iritziz, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskabidea aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera bada, lehendakariak bilkurara dei egingen du, proposatutako gai zerrendarekin bat.

66. artikulua.

1. Foru parlamentariak bilkura-aretoan eserlekua hartuko dute zer talde parlamentariori dauden atxikirik eta horren arabera, eta betiere eserleku berean eseriko dira.

Talde bakoitzarentzako gordetako eserlekuak Mahaiak zehaztuko ditu, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, talde bakoitzak adierazitako nahiaren arabera eta hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren hurrenkeran.

2. Bilkura-aretoan toki berezi bat gordeko da Foru Diputazioko kideak bertan esertzeko.
3. Aipatutako pertsonen gain, bilkura-aretoan sartu ahalko dira beren eginkizunak betetzen ari diren Parlamentuko funtzionarioak eta lehendakariak espresuki baimentzen dituen pertsonak soilik.

V. KAPITULUA

Batzorde Iraunkorra

67. artikulua.

1. Batzorde Iraunkorrak Parlamentuko lehendakaria izanen du buru, eta Legebiltzarreko Mahaiak eta Eledunen Batzarreko kideek osatuko dute. Bere erabakiak hartuko ditu Eledunen Batzarreko

kideek adierazitako boto haztatuaren bitartezko sistemaren bidez. Gobernu kideak ere joan daitezke haren bilkuretara.

Talde parlamentario bakoitzak, gainera, hiru foru parlamentari ordezkotako hautatutako gehienek ere, Legebiltzarra desegiten denetik aurrera iraunkorrak izanen direnak.

2. Batzorde Iraunkorreko Mahaia Nafarroako Parlamentuko Mahaia izanen da.
3. Lehendakariak dei egingen du Batzorde Iraunkorraren bilkuretara, berak hala erabakita edo gutxienez ere bi talde parlamentariok edo Legebiltzarreko kideen bostenaren ordezkariak hala eskatuta. Eskabide horrek, betiere, gai zerrenda eduki beharko du. Gai zerrendan, erregelamendu honetan ezarritakoarekin bat Batzorde Iraunkorraren eskumenekoak diren gaiak soilik agertu ahalko dira. Eskabideak betebeharrak hori betetzen badu, lehendakariak bilkurara dei egingen du, proposatutako gai zerrendarekin bat.

68. artikulua.

Batzorde Iraunkorrak eginkizun hauek izanen ditu:

Lehenengoa. Parlamentuaren agintaldia bukatzen den kasuetan zilegi izanen du, aparteko eta presako arrazoiak egonez gero, Legebiltzarren eginkizun guztiak betetzea.

Bigarrena. Bi bilkuraldiren artean, bilkura berezietara dei egiteko ekimena erabil dezake, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 17. artikuluan eta erregelamendu honetako 72.2 artikuluan aipatzen denari jarraituz.

69. artikulua.

Parlamenturako hauteskundeak egin ondoren Legebiltzarra eratu eta gero, Batzorde Iraunkorrak Legebiltzarren Osoko Bilkurari jakinaraziko dizkio aztertu dituen aferak eta hartutako erabakiak.

VI. KAPITULUA

Giza baliabideak eta baliabide materialak

70. artikulua.

Parlamentuak bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak edukiko ditu; bereziki, zerbitzu teknikoak, dokumentaziokoak eta aholkularitzakoak.

71. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak onetsiko ditu Nafarroako Parlamentuaren barne araubide eta gobernuari buruzko arauak, ezertan eragotzi gabe Lehendakariak bere kabinetea eratu eta haren kideak hautatzeko duen ahalmena.
2. Parlamentuko legelari nagusiak, Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusiaren titulartasuna izanen baitu, Parlamentuko langile guztien eta haren menpeko zerbitzuen buruzagitza dauka, lehendakariaren zuzendaritzapean.
3. Legelari nagusiaren izendapena eta kargutik kentzea Parlamentuko Mahaiak egingen du diskrezionalki, Lehendakariak proposatuta, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artetik.

V. TITULUA

FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

I. KAPITULUA

Bilkurak eta haietarako deialdiak

72. artikulua.

1. Parlamentua urtean bi bilkuraldi arruntetan bilduko da: lehenengoa irailetik abendura bitartekoa da, eta bigarrena, urtarriletik ekainera bitartekoa.

2. Bilkura bereziak ere egin ahalko dira. Lehendakariak deitu beharko ditu bilkura bereziak, gai zerrenda betiere zehaztuz, horretarako eskaera egiten dutenean Batzorde Iraunkorrek, parlamentarien bostenak, bi talde parlamentariok edo eta Foru Diputazioak.
3. Aurreko apartatuan ezartzen denaren arabera baldin bada eskaera, lehendakariak bilkura berezira deialdia egingen du, proposaturiko gai zerrendarekin bat.

73. artikulua.

1. Batzorde arrunt edo berezien bilkuretarako deialdiak 53. artikulua ezarritakoari jarraituz egingen dira, eta Batzorde Iraunkorrenak, berriz, 65.3 artikulua ezarritakoari jarraituz. Osoko Bilkurarako deiak 65. artikulua ezartzen duenaren arabera egingen dira, edo, kasu bada, aurreko artikuluko bigarren apartatuak ezartzen duenaren arabera.
2. Parlamentuko Mahaiaren bilkuretarako deiak 38. artikulua ezarritakoari jarraituz egingen dira, eta Eledunen Batzarrarenak, berriz, 43. artikulua ezarritakoari jarraituz. Batzordeetako mahaien bilkuretarako 130. artikulua ezartzen duenaren arabera egingen dira.
3. Kasuko batzordearen bilerara joateko deia halaber egingen zaie batzorde horretako kide ez diren parlamentariei, defenda ditzaten aurkeztu dituzten zuzenketak, mozioak, galderak, interpelazioak edo izaera parlamentarioko beste edozein idazki.
4. Deialdian jasoko dira bilkura egingen den eguna, ordua, tokia eta erregelamendu honetako 80. artikulua ezarritakoaren arabera finkatuko den gai zerrenda. Deialdiari erantsi beharko zaizkio bilkuran eztabaidatuko diren txosten, irizpen edo testuak, salbu eta aurretik Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu direnak, zeren eta, kasu horretan, deialdiak adieraziko baitu zein den horien argitaratze-eguna.
5. Deialdiak bilkura egingen den eguna baino hiru egun balioudun lehenago bidaliko zaizkie foru parlamentariei. Epe hori hogeita lau ordukoa izateraino laburtu ahalko da, Legebiltzarreko

lehendakariak hala erabakitzen badu, bilkurara deitutakoei telefonoz edo telegrafoz jakinarazi ondoren. Lehendakariak ahalmen hori erabiltzen duenean, erabakiaren zergatia azaldu beharko du bilkuraren hasieran.

6. Parlamentuko lehendakariak are hogeita lau ordu baino aurrerapen txikiagoz deitu ahalko ditu Parlamentuko Mahaia nahiz batzordeetakoak, Eledunen Batzarra eta, hala behar denean, Batzorde Iraunkorra. Bilkura hasi beharko da bertan jorratuko diren aferetako bakoitzari buruz erabakirik hartzearen bidez kotasunaz eztabaidatuz, eta horri buruzko deliberoa bi hereneko gehiengoz hartu beharko da.

74. artikulua.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera deialdirik gabe egiten diren foru parlamentarien bilerak ez dira Parlamentuarentzat lotesle izanen.
2. Deialdia egin duen bilkura bat hasi baino lehen deialdi hori bertan behera uztea, ohiz kanpoko arrazoiengatik betiere, Parlamentuko lehendakariari dagokio, Mahaiarekin adosturik eta Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartu ondoren, eta ekimena hartu duenari edo dutenei entzun eta gero. Deialdia bertan behera uzteko erabakiaren jakinarazpena arrazoitu egin beharko da, eta prozedurarik presakoena erabiliz helaraziko zaie bai foru parlamentari ukituei bai talde parlamentarioen eledunei.

75. artikulua.

1. Bilkuratzat jotzen da Nafarroako Parlamentuko organoetako edozeinek deialdi bateko gai zerrenda eztabaidatzeko lan parlamentarioan gai-zerrenda hori bukatu arte ematen duen denbora. Bilera deitzen zaio egun bateko goiz edo arratsaldean egiten den bilkura-zatiari.
2. Batzordeek ezin izanen dute Osoko Bilkuraren aldi berean bilerarik egin.

3. Organo bakoitzeko lehendakariak irekiko ditu bilkurak, deialdian ezarritakoaren arabera; lehendakaria ez badago, lehendakariordeak irekiko ditu, deialdiak adierazten duen orduan.
4. Lehendakariak "hasi da bilkura" esanez irekiko du bilkura. Bilkura eten egin bada, "jarrai dezala bilkurak" esanez jarraituko du. Bilkura eteteko, "eten da bilkura" esanen du, eta hari amaiera emateko, "bukatu da bilkura" esanen du. Aipatutako esaldi horiek esan aurretik edo esan ondoren, hurrenez hurren, eginiko ezein egintzak ez du baliorik edukiko.
5. Bilera bat eten behar denean deialdiak jasotzen duen gai zerrendaren eztabaida bukatu gabe, lehendakariak, bilkura eten duela esan baino lehen, zehaztu beharko du zer egun eta ordutan emanen zaion jarraipena. Edonola ere, bilkura jarraitzeko ez da beharrezkoa izanen idatzizko beste deialdi formal bat egitea.

76. artikulua.

Nafarroako Gobernuak kideek zilegi izanen dute Osoko Bilkuretara zein Parlamentuko batzordeen bilkuretara joatea, erregelamendu honetan ezartzen denaren arabera.

77. artikulua.

1. Osoko Bilkurak jendaurrekoak izanen dira, salbu eta:

Lehenengoa. Mahaiaren aburuz eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren bilkura batean jorratzekoak diren aferak Legebiltzarraren edo haren kideen ohoragarritasunari edo foru parlamentari baten izaera eteteari buruzkoak direnean.

Bigarrena. Osoko Bilkurak bere kideen gehiengo osoz hala erabakitzen duenean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Foru Diputazioak, bi talde parlamentariok edo Legebiltzarraren kideen bostenak hala eskaturik. Bilkura sekretua egiteko eskaera egin eta gero, horri buruzko eztabaida egingen da, zeina orobat sekretua izanen baita, automatikoki eta kasu guztietan. Eztabaida bukatu ondoren, erabaki bat hartuko da, eta bilkurari jarraipena emanen zaio erabakitako izaerarekin.

2. Batzordeen bilkurak ez dira jendaurrekoak izanen. Halarik ere, hedabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala frogatuta, batzorde arruntetara joaten ahalko dira, bilkura horiek sekretuak direnean izan ezik.

Batzorde berezietara ere joaten ahalko dira, erregelamendu honetako 54. artikulua xedaturikoari jarraituz.

Hedabideak joan daitezkeen bilkurak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira.

3. Batzordeen bilkurak sekretuak izanen dira batzordekideen gehiengo osoak hala erabakitzen duenean, hori eskatu ondoren kasuko Mahaiak, Nafarroako Gobernuak, gutxienez bi talde parlamentariok edo batzordekideen bostenak. Bilkura sekretua egiteko eskaera egin eta gero, 1.2 apartatuan ezarritakoari jarraituko zaio.

Bilkura sekretu bat bukatu ondoren, Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du hedabideei hartu diren erabakien erreferentzia bat ematea.

78. artikulua.

1. Ikerketa batzordeetan agerraldietarako diren bilkurak irekiak izanen dira komunikabideentzat. Ikerketa batzordeak berak erabaki dezake bilkura horiek sekretuak izan daitezela, agertu behar duten pertsonak hala eskatu dutelako edo batzordekideek beraiek hala proposatu dutelako, baldin eta beharrezkoa bada batzordearen helburuak betetzea bermatzeko edo pertsonen ohorerako eskubidea nahiz beste ondasun juridiko batzuk babesteko.
2. Ikerketa batzordeen gainontzeko lan eta bilkurak sekretuak izanen dira.
3. Parlamentuko Mahaiak, bere ekimenez nahiz ikerketa batzordeak proposatuta, erabaki dezake sekretua izanen dela ikerketa batzorde horrek eginiko proposamen, irizpen, txosten edo konklusioak eztabaidatuko diren Osoko Bilkura.

79. artikulua.

1. Jendea bilkura-aretora joan ahal izateko, gonbidatu-txartel zenbakitua aurkeztea ezinbesteko baldintza izanen da, baita lehendakariak une bakoitzean ezartzen dituen baldintzak behar bezala betetzea ere.
2. Gonbidatu-txartelak talde parlamentarioen eledunei emanen zaizkie, talde bakoitzak duen kide-kopuruaren eta jendearentzat gorderik dagoen tokiaren arabera, Legebiltzarreko lehendakariak xedatzen duenari jarraituz.
3. Hedabideetako profesionalen kopurua bilkura-aretoan erabilgarri den tokiaren arabera izanen da.
4. Edonola ere, Parlamentuko organoen bilkuretara joanen dira legelari nagusiak horretarako hautatzen dituen Legebiltzarraren zerbitzuko langile eta funtzionarioak.

II. KAPITULUA

Gai zerrenda

80. artikulua.

1. Legebiltzarreko lehendakariak finkatuko du Osoko Bilkuren eta batzorde arrunt nahiz berezien bilkuren gai zerrenda, Mahaiarekin bat etorritz eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren. Parlamentuko Mahaiaren, Eledunen Batzarraren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretako gai zerrenda Legebiltzarreko lehendakariak finkatuko du, bestelako izapiderik gabe.

Hori guztia ez da eragozpen izanen, hala ere, Parlamentuko lehendakariaren ekimenik gabe deitzen diren bilkurei buruz erregelamendu honek ezarritakoari jarraituz egiteko gai zerrenda.

2. Parlamentuko edozein organoren gai zerrenda alda daiteke organo horretako kideen gehiengo osoaren erabakiaren bidez, lehendakariak berak, bi talde parlamentariok edo organo horretako kideen bostenak hala eskaturik. Proposamena denean gai zerrendan beste gai bat sartzea, izapidera onartu ahal izateko

aurrebaldintza izanen da organo hartan eztabaidatu ahal izateko Erregelamenduak ezartzen dituen izapide guztiak betetzea. Gai zerrendan beste gai bat sartzea eskatzen duten proposamenak idatziz arrazoitu beharko dira, eta proposatzen den enuntziatu zehatza, bilkuraren hasieran irakurriko baita, eman beharko da.

3. Foru Diputazioak eskatu ahalko du gai bat bilkura zehatz batean lehentasunez sartua izan dadila, baldin eta gai horrek beteak badauzka sartua izateko moduan egoteko beharrezkoak diren erregelamendu-izapideak.

III. KAPITULUA

Quoruma

81. artikulua.

Legebiltzarreko organoek beren bilkurak irekiko dituzte bertan diren parlamentarien zenbatekoa edozein izanik ere.

IV. KAPITULUA

Eztabaidak

82. artikulua.

1. Lehendakariak bilkura hasita dagoela adieraziko du eta, jarraian, eztabaidatuko den gai zerrendako puntu zehatza irakurriko du.
2. Irakurketa horren hurrena, gai zerrendan jasotako gai bakoitzaren eztabaida irekiko du.
3. Edozein dela ere gai zerrendatik eztabaidagai dagoen puntua, eztabaidak ondorengo artikuluek ezartzen dutenaren arabera izanen dira.

83. artikulua.

1. Lehendakariak dauka eztabaiden zuzendaritza, eta haietako jarduna antolatzen du, Mahaiko gainerako kideen laguntzarekin.

2. Lehendakaritzak errespetua, ordena eta adeitasun parlamentarioa gordetzen direla zainduko du uneoro.

84. artikulua.

1. Foru parlamentariak ezin izanen dute hitz egin baldin eta, aldez aurretik, lehendakariari hitza eskatu eta hark eman ez badie. Eztabaida-txandetan mintzatu ahal izateko, hizlariak txanden hasiera baino lehen eskatu beharko du hitza. Txanda iristen zaionean lehendakariak deitu eta hizlaria aretoan ez badago, bere txandari uko egin diola ulertuko da.
2. Talde parlamentario batek edo foru parlamentari batek aurkeztutako zuzenketak, boto partikularrak, foru lege proposamenak nahiz bestelako proposamen eta ekimenak bertan behera geldituko dira baldin eta lehendakariak talde parlamentario edo foru parlamentari horri defentsarako hitza ematen badio eta taldea edo parlamentaria une horretan bilkuran ez badago.
3. Foru parlamentariak mintzatokitik hitz egin beharko dute, baina lehendakariak horrela ez egiteko baimen zehatza eman ahalko die. Dena den, batzordeetako mintzaldiak eta ahozko galderei dagozkienak eserlekutik eginen dira.
4. Inor mintzatzen ari den bitartean, lehendakariak ez beste inork moztu ahalko du hizlaria, eta hark kasu hauetan baizik ez: denbora bukatu zaiola ohartarazteko, gaiari lotzeko edo ordena gordetzeko eskatzeko, hitza kentzeko edo Legebiltzarrari, Legebiltzarreko kide bati zein publikoari ordena gordetzeko eskatzeko.
5. Ezarritako denbora amaitu bada, lehendakariak hitza kenduko dio hizlariari, bukatzeko bi aldiz eskatu ondoren.
6. Hitza txanda berean eskatu duten foru parlamentariak txandaren hurrenkera eta denbora elkarri trukatu ahalko dizkiote, lehendakariak hitza eman eta gero. Mintzatzeko eskubidea duen edozein foru parlamentari talde bereko beste batek ordeztu ahal izanen du eztabaida jakin batean, aldez aurretik talde parlamentarioaren eledunak lehendakariari horren berri emanez gero.

7. Foru Diputazioko kideak haren izenean mintzatu ahalko dira hala eskatzen duten guztietan, Legebiltzarreko lehendakariak eztabaidak antolatzeko duen ahalmena gorabehera. Mintzaldi horrek ihardespen-txanda ekar dezake aurretik mintzatu den beste bati erantzuten badio, eta are eztabaida berriz ireki ere baldin eta lehendakariaren ustez eztabaidatzen ari den gaian berrikuntzarik badakar.

85. artikulua.

1. Lehendakariak uste baldin badu eztabaida batean foru parlamentari bati edo haren jokabideari buruzko aipamena egin dela, aipatuari hitza eman ahalko dio, gehienez hiru minutuko txandan, hark, eztabaidatzen ari den gaiaren harira sartu gabe, adierazitakoari erantzun diezaion. Foru parlamentariak muga hori gainditzen badu, lehendakariak berehala kenduko dio hitza.
2. Aipamenak bilkura berean erantzun beharko dira. Aipatua bertan ez badago, talde parlamentario bereko beste kide batek erantzun ahalko du haren izenean.
3. Aipamenak talde parlamentario baten izen onari edo duintasunari eragiten badie, lehendakariak hitza eman ahalko dio taldearen ordezkari bati, artikuluko honetako 1. eta 2. apartatuetan ezartzen diren denbora eta baldintzetan.

86. artikulua.

Erregelamendu honetako 84.1 artikuluan ezarritakoa ez da eragozpen izanen edozein foru parlamentarik ondokoa eskatu ahal izateko:

1. Erregelamendua betetzea, eztabaida zertan ere den. Horretarako, zer artikuluren aplikazioa eskatzen ari den aipatu beharko du. Horren inguruan ezin izanen da eztabaidarik egin, eta egindako alegazioa ikusirik lehendakariak hartzen duen erabakiari men egin beharko zaio.
2. Eztabaidatzen ari den gaia argitzeko haren ustez baliagarriak diren arau nahiz dokumentuak irakurtzea, eztabaida bitartean edo bozketa egin baino lehen. Lehendakariak ukatu ahalko du gaiaz

kanpokotzat edo alferrekotzat jotzen dituen irakurketak egiteko eskubidea, bai eta eztabaidatzen ari den gaiari buruzko erabakia hartzea luzatu nahi dutenena ere.

87. artikulua.

Lehendakariak, berak hala nahita edo talde parlamentario batek eskatuta, bilkura aldi baterako eten ahalko du, atsedenaldia emateko, kontsultak egiteko edo erabakiak errazteko. Bilkura eteten badu, zenbat denborarako eten den zehaztuko du.

88. artikulua.

Lehendakariak bakarrik eman ahalko du bilkura bat bukatutzat, behin gai zerrenda amaitu ondoren, 124. artikuluan ezarritakoaren salbuespenarekin.

89. artikulua.

Erregelamendu honetako 87. artikulua aurreikusten ez dituen kasuetan, lehendakariak bilkura eten ahalko du, Mahaiarekin kontsulta egin ondoren, baldin eta inguruabarren arabera bilkura etetea komeni bada.

90. artikulua.

1. Erregelamendu honetan berariaz arautu ez diren eztabaidak hasiko dira proposamen, zuzenketa, boto partikular edo kasuan kasuko ekimenaren defentsarekin, dena delako ekimena aurkeztu duen talde parlamentarioak edo foru parlamentariak —beraren izenean— egindako defentsarekin hasi ere.
2. Ondoren, aldeko txanda irekiko da, eta, gero, aurkako txanda. Txanda horietako bakoitzean mintzatu ahalko dira, zein bere ordezkariaren bidez, talde parlamentario guztiak, salbu eta aurreko apartatuan aipatzen den defentsa-txandan halakotzat mintzatu dena edo direnak. Talde parlamentarioen mintzaldien hurrenkera talde bakoitzak dituen parlamentarien kopuruari begira ezarriko da, gehien dituenetik hasi eta gutxien dituenarekin bukatzeko. Talde mistoaren ordezkariak azkenak izanen dira mintzatzen.

3. Aurreko apartatueta aipatzen diren txanden iraupena, non eta kontrakoa ezartzen ez den, ez da hamar minutu baino gehiagokoa izanen, osoko eztabaidetan izan ezik, non iraupena ez baita hamabost minutu baino gehiagokoa izanen.
4. Edozein eztabaidatan, proposamena, zuzenketa, boto partikularra edo bestelako ekimena aurkeztu duen talde parlamentarioak edo foru parlamentariak ihardespren-txanda edukiko du —bost minutukoa gehienez ere—, aldeko eta kontrako txanden ondoren.
5. Zenbait talde parlamentariok edo talde ezberdinetakoak diren foru parlamentariak izenpeturiko proposamenak eztabaidatzen direnean, izenpetu dutenetako batentzat izanen da defentsarako txanda, eta gainerakoak aldeko txandan mintzatu ahalko dira. Kasu horietan, ihardespren-txanda proposamenaren defendatzailearentzat izanen da.

Aurrekoa gorabehera, proposamen-egileek lehendakariari adierazi ahalko diote defentsa eta ihardespren txandak erabili nahi dituztela haien denborak elkarren artean banatuz.

6. Aurreko apartatueta ezarritakoa ez da eragozpen izanen lehendakariak eztabaida antolatzeko eta, eztabaidaren garrantziari erreparatuta, mintzaldien kopurua eta iraupena luzatu edo laburtzeko.

91. artikulua.

1. Talde mistoaren mintzaldiak foru parlamentari bakar baten bidez gauzatu ahalko dira, gainerako talde parlamentarioek duten denbora bera erabiliz, baldin eta haren taldekide bertaratu guztiek hori erabakitzen badute eta erabakia Legebiltzarreko lehendakariari helarazten badiote, eledunaren edo hori ordezten duen foru parlamentariaren bidez.
2. Horrelako erabakirik ez badago, mintzatu nahi duten kideen izenak eskatuko dizkio lehendakariak talde mistoaren eledunari, eta, zerrenda ikusirik, bakoitzari esleituko dion denbora izanen da talde parlamentario bati dagokiona mintzatze-eskaera egin dutenen artean zatitzetik suertatzen dena.

92. artikulua.

Legebiltzarreko zein Batzordeko lehendakariak, lehendakariordeek edo idazkariak eztabaidan parte hartu nahi badute, Mahaian daukaten tokia utzi beharko dute.

V. KAPITULUA

Bozketak

93. artikulua.

1. Erabakiak hartu ahal izateko, Legebiltzarrak eta bere organoek erregelamenduak ezarritakoaren arabera bilduta egon beharko dute, eta kideen gehiengoak bertan egon beharko du.
2. Aurreko apartatuan aipatzen den quorumik ote dagoen egiaztatzea edozein bozketa hasi aurretik bakarrik eskatu ahalko da. Behin bozketa hasiz gero, hartutako erabakia baliagarria izanen da, bertan dagoen parlamentari kopurua zein ere den. Bozketa hasi baino lehen arestian aipatutako quorumik ez dagoela egiaztatzen bada, bozketa bi ordu geroratuko da gehienez ere. Epe hori iraganik bozketa arauak eskatutakoaren arabera egiterik ez badago, gaia kasuan kasuko organoaren hurrengo bilkuran bozkatuko da.

94. artikulua.

1. Erabakiak, baliodunak izateko, gehiengo soilaz onetsi beharko dira, salbu eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak, legeek eta erregelamendu honek berak ezartzen dituzten gehiengo bereziak eskatzen dituztenak.
2. Foru parlamentarien botoa pertsonala eta eskuordeezina da, honako kasuetan izan ezik:
 - a) Amatasuna dela-eta Osoko Bilkuraren saioetara joaterik ez duen parlamentariak bere botoa beste parlamentari baten esku utzi ahalko du, erditzearen ondorengo sei asteetan.

b) Behar bezala frogatutako ospitaleratze baten edo gaixotasun larri baten ondorioz Osoko Bilkuraren saioetara joaterik ez duten parlamentariak beren botoa beste parlamentari baten esku utzi ahalko dute.

Botoa eskuordetzeko eskaria Parlamentuko Mahaiari zuzendutako idazki batez egingen da. Idazki horretan, botoa eskuordetzen duen pertsonaren izena eta boto-eskuordetza jasotzen duen pertsonaren izena agertuko dira, bai eta eskuordetza hori zein osoko bilkuratan erabili beharko den edo, kasua bada, eskuordetzak zenbat iraunen duen. Mahaiak, eskaerari buruz ebazterakoan, boto eskuordetua emateko prozedura ezarriko du.

3. Gehiengo soilak lortzeko beharrezkoa da aldeko botoak aurkakoak baino gehiago izatea, abstentzioak, boto zuriak edo baliogabeak kontuan hartu gabe.
4. Gehiengo osoa lortzeko beharrezkoa da bozketa egiten duen organoko kideen erdiak baino gehiagok boto bera ematea.

95. artikulua.

Bozketak ezin izanen dira ezergatik ere eten. Bozketak egiten diren bitartean, lehendakariak ez dio inori hitz egiteko baimena emanen, eta ezein foru parlamentarik ezin izanen du aretoa utzi edo aretoan sartu.

96. artikulua.

Erregelamendu honek ezartzen dituen kasuetan eta lehendakariak, garrantzia edo izaera bakana dela-eta hala erabakitzen duenetan, bozketa ordu jakin batean egingen da. Lehendakariak alde aurretik iragarri behar duen ordu hori iristean eztabaida bukatu gabe badago, lehendakariak bozketa egiteko beste ordu bat ezarriko du.

97. artikulua.

Bozketa honelakoa izan ahalko da:

Bat. Lehendakariak egindako proposamenaren baiespenez.

Bi. Arrunta.

Hiru. Publikoa, banan-banan deituta.

Lau. Sekretua.

98. artikulua.

Lehendakariak egiten dituen proposamenek, behin iragarri eta gero, inongo eragozpenik edo oposiziorik eragiten ez badute, baiespenez onetsita daudela ulertuko da. Bestela, bozketa arrunta eginen da.

99. artikulua.

Bozketa arrunta, lehendakariak zer erabakitzen duen, ondoren esaten den hauetako modu batez egin ahalko da:

Bat. Eskua altxatuta, aurrena onesten dutenek, hurrena onesten ez dutenek eta, azkenik, abstenitzen direnek. Lehendakariak zenbaketa egin dezaten aginduko die idazkariei baldin eta emaitzari buruz zalantzarik badu; edo, are emaitza aldarrikatu ondoren, talde parlamentarioren batek erreklamazioa egiten badu. Hurrengo eztabaida hasiz gero ez da inongo erreklamaziorik onartuko.

Bi. Foru parlamentari bakoitzak zer boto eman duen eta bozketaren guztizko emaitzak zein diren frogatzen duen prozedura elektronikoko baten bidez.

100. artikulua.

1. Bozketa izanen da parlamentariak banan-banan deituta egintako bozketa publikoa; edo, erregelamendu honek hala eskatzen duenean edo bi talde parlamentariok nahiz parlamentarien edo kasuan kasuko organoko kideen bosten batek hala eskatzen duenean, bozketa sekretua izanen da. Bestela egiteko eskaerarik baldin badago, bozketa sekretua izan dadila eskatzen duena nagusituko da. Legegintzako prozeduretan bozketa ezin izanen da inoiz ere sekretua izan.
2. Zentsura-mozioaren eta konfiantza-eskaeraren bozketak beti izanen dira publikoak, parlamentariak banan-banan deituta.

101. artikulua.

Parlamentariei banan-banan deituta egindako bozketa publikoan idazkari batek foru parlamentarien izenak esanen ditu, eta haiek "bai", "ez" edo "abstentzioa" erantzunen dute. Deia lehen deituren alfabetoko hurrenkeraren arabera eginen da. Foru parlamentari diren Nafarroako Gobernuko edo Diputazioko kideak eta Mahaia azkenak izanen dira botoa ematen.

102. artikulua.

1. Bozketa sekretua boto-paperen bidez egin beharko da, eta erregelamenduak ezartzen duenean, pertsonak hautatu behar direnean edo 100.1 artikulua ezartzen duenari jarraituz eskatu denean izanen da aplikatzekoa.
2. Aurreko apartatuak aipatzen duen bozketa egiteko, foru parlamentariak izenez deituak izanen dira mahaira, alfabetoko hurrenkeran, eta lehendakariari boto-paperak emanen dizkiote, hark hautestontzian sar ditzan.

103. artikulua.

Bozketa bukatu eta gero, idazkariek botoak zenbatuko dituzte, eta horietako batek emaitza iragarriko du. Ondoren, lehendakariak hartu den erabakia aldarrikatuko du.

104. artikulua.

1. Bozketaren batean berdinketa badago, bigarren bozketa eginen da, eta oraindik ere berdinketa badago, bozketa eten eginen da, lehendakariak arrazoizkotzat jotzen duen epe batez. Epea bukatuta, bozketa errepikatuko da, eta, oraindik ere berdinketa badago, bozkatzen ari den irizpena, artikulua, zuzenketa, boto partikularra edo dena delako ekimena bazter utziko da.
2. Batzordeetako bozketetan, berdinketarik ez dagoela ulertuko da baldin eta, talde parlamentario bereko batzordekide guztiek zentzu berean bozkaturik, boto-berdintasuna desegin ahal bada talde bakoitzak Osoko Bilkuran dituen botoen kopurua haztatuz. Talde mistoko parlamentari diren batzordekideen boto kopuruari

dagokionez, taldeko zenbat kidek eman duten beren ordezkaritza —idatziz frogatu beharko da—, horrenbeste boto zenbatuko dira.

3. Alabaina, batzordeak eskumen osoaz jarduten duen legegintzako prozeduretan, 1. apartatuan aurreikusitako bozketak egin eta gero berdinketa badago, Osoko Bilkurak erabakiko du berdinketa nola ebatzi.
4. Aurreko apartatuetan xedaturikoa salbu, lehendakariak bozketa bat errepikatzea agindu ahalko du, Mahaiko gainerako kideei entzun ondoren, soil-soilik bozketa-mekanismoan akats bat izan denean edo bozketaren emaitza ez denean bertaraturiko parlamentarien egiazko borondatearen arabera, boto-emaileetakoren baten ageriko hutsegitearen ondorioz, eta berak berehalakoan eskatuta.

105. artikulua.

1. Aurretiazko eztabaidarik gabeko gai bati buruzko bozketa egin ondoren, lehendakariak bost minutuko txanda eman ahalko dio talde parlamentario bakoitzari, zeinek bere botoa esplika dezan. Halaber, txanda hori eman ahalko dio aurretiazko eztabaidan iragarritako botoa aldatzen duen talde parlamentarioari ere.
2. Taldeen mintzaldien hurrenkera talde bakoitzak daukan kide kopuruaren arabera ezarriko da, betiere talde mistotik hasi eta txikienetik handienerako hurrenkeran.
3. Bozketa sekretua denean ez dago botoa azaltzerik.
4. Ez da onartuko nork bere botoa azaltzea.

VI. KAPITULUA

Bilkuren aktak

106. artikulua.

1. Ondokoen bilkuretan, akta jasoko da: Osoko Bilkura, batzordeak, Eledunen Batzarra, Legebiltzarreko Mahaia, batzordeetako mahaia eta ponentziak. Aktan labur emanen da eztabaidatutako

gaien, mintzatu diren pertsonen, gertatutako gorabeheren eta hartutako erabakien berri.

2. Idazkari batek izenpetuko ditu bilkura aktak, lehendakariak ontzat eman ondoren, eta gero Parlamentuko Zerbitzu Orokorretan geldituko dira, foru parlamentarien eskura. Bilkura bukatu eta ondorengo hamar egunetan akten edukiari buruzko erreklamaziorik ez badago, onetsita daudela ulertuko da; bestela, kasuan kasuko organoaren hurrengo bilkuran hartuko da erabakia.

VII. KAPITULUA

Epeak zenbatzea eta agiriak aurkeztea

107. artikulua.

1. Non eta kontrakoa ezartzen ez den, erregelamendu honetan egunka adierazten diren epeak egun baliodunetan zenbatuko dira, eta hilabeteka adierazten direnak, berriz, datatik datara. Mugaegunaren hilabetearen ez baldin badago zenbaketaren hasierako egunari dagokion egunik, ulertuko da epea amaitzen dela hilabeteko azken egunean.

Zenbaketari dagokionez, egun baliogabeak dira larunbat eta igandea, Nafarroa eta Iruñeko lan-egutegian jai-egun gisa agertzen direnak eta Legebiltzarreko Mahaiak baliogabe izendaturiko egunak.

2. Zenbaketa honetatik salbuetsiko dira uztaila eta abuztua, salbu eta gaia bilkura berezi baten gai zerrendan sartuta ez badago edo Erregelamendu honetako 14.3 artikuluan aurreikusitako epea baldin bada. Legebiltzarreko Mahaiak ezarriko du zer egun bihurtu baliodun, betiere aipatu bilkura berezia egin ahal izateko izapideak betetzeko, ez beste ezertarako.

108. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak erregelamendu honetan ezartzen diren epeak laburtzea edo luzatzea erabaki dezake, salbu eta Nafarroako

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan ezarririk daudenak.

2. Oro har, luzapenak ez dira epea bera baino luzeagoak izanen, eta laburtzapenak ez dira epearen beraren erdia baino handiagoak izanen.

109. artikulua.

1. Agiriak egun baliodunetan eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak ezartzen duen ordutegian aurkeztu ahalko dira Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean.
2. Erregistroko ordutegia hogeita lau ordukoa ez bada, agiriak aurkezteko erregelamendu honek ezartzen dituen epeak hurrengo egun balioduneko eguerdiko hamabiak arte luzatuko dira.
3. Parlamentuko organo bati igortzen zaion agiri oro Legebiltzarreko Erregistro Orokorrean ofizialki erregistratu beharko da.
4. Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkeztu diren agiriak Mahaiak kalifikatu behar baditu, aurkeztu ondotik deitzen den lehen bilkurako gai zerrendan sartuko dira.

VIII. KAPITULUA

Presako prozedura

110. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak gai bat presako prozeduraz izapidetzea erabaki ahalko du, baldin eta Nafarroako Gobernuak, bi talde parlamentariok edo foru parlamentarien bostenak hala eskatzen badute.
2. Izapidetzen ari den gai bat presako prozeduraz izapidetzea erabakiz gero, presako prozedura ondorengo izapideei aplikatuko zaie.

111. artikulua.

Erregelamendu honetako 108. artikulua ezarritakoa gorabehera, presako prozeduran epeek prozedura arruntean irauten dutenaren erdia iraunen dute.

IX. KAPITULUA**Nafarroako Parlamentuko argitalpenak eta bere lanen publizitatea****112. artikulua.**

Ondorengo hauek izanen dira Nafarroako Parlamentuko argitalpen ofizialak:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala.
2. Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria.

113. artikulua.

1. Parlamentuko Bilkura Egunkarian jasoko dira Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren, Batzorde Iraunkorraren eta Mahaiak erabakitzen dituen batzordeen jendaurreko bilkuretako mintzaldi eta erabaki guztiak nahiz gertatu diren gorabeherak, bilkura horiek egin eta hilabeteko epean. Egunkari horretan jasoko dira, halaber, ikerketa batzordeetan egiten diren agerraldi publikoak.
2. Bilkura sekretuetan gorabeheren, mintzaldien nahiz erabakien hitzez hitzeko akta jasoko da, eta haren ale bakarra lehendakariak gordeko du. Foru parlamentariak kontsultatu ahalko dute, Mahaiak erabaki hori hartuz gero.

Hartzen diren erabakiak Bilkura Egunkarian eta Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, salbu eta Mahaiak isilpean gorde beharrekoak direla erabakitzen badu. Hori guztia ez da eragozpen izanen erregelamendu honetako 62. artikulua 7. eta 8. apartatuek ezarritakoa betetzeko.

114. artikulua.

1. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira erregelamendu honetako arauetakoren batek agintzen dituen agiriak eta testuak, Parlamentuko izapidetze egokirako eta behar bezala ezagutzeko argitaratu beharrekoak diren agiriak eta testuak eta lehendakariak zein Mahaiak agintzen dituztenak.
2. Lehendakariak edo Mahaiak, presa dela-eta agindu ahalko du lehen apartatuan aipatzen diren testuak eta agiriak beste bitartekoren baten bidez erreproduzi daitezela eta eztabaidatu behar dituen organoetako kideei bana dakizkiela, ondoren Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko badira ere.

115. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak hartuko ditu hedabideei Parlamentuko organoen jarduerari, proposamenei eta ebazpenei buruzko informazioa emateko.
2. Mahaiak berak arautuko du hedabideen ordezkari grafiko eta literarioei kredentzialak ematea, Parlamentuan haientzat egokitzen diren tokietara eta joan ahal diren bilkuretara sar daitezzen.
3. Inork ere ezin izanen du Parlamentuko organoen bilkuren grabazio irudizko edo soinuazkorik egin, Legebiltzarreko lehendakariak horretarako baimena eman ez badio.

X. KAPITULUA

Parlamentuko diziplina

1. atala Zehapenak

116. artikulua.

Lehendakariak bilkura-aretotik bota ahalko ditu foru parlamentariak, eta bilkuretara sarrera galarazi, 121. eta 123. artikuluek ezartzen dituzten kasuetan eta moduan.

117. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak, interesdunari entzun eta gero, eta erabaki arrazoituaren bidez, erregelamendu honek ematen dizkien eskubide guztiak edo batzuk kendu ahalko dizkie foru parlamentariei, ondoren zehazten diren kasuetan:
 - a) Bere borondatez Osoko Bilkuretara edo batzordeetako bilkuretara era nabarmenean edo behin eta berriro joateari uzten diotenean.
 - b) Erregelamendu honetako 22. artikulua ezartzen duen sekretua gorde beharra hausten dutenean.
 - c) Foru parlamentaria, hiru aldiz ordena gordetzera deitu eta gero, bilkura-aretotik kanporatua izan eta aretoa utzi nahi ez duenean.
 - d) Foru parlamentariak armarik eramaten badu edo Parlamentu barrenean iskanbila larriak sorrarazten baditu.
 - e) Foru parlamentariak erregelamendu honetako 23. artikulua ezartzen duenaren aurka egiten duenean.
 - f) Foru parlamentariak jarduerari edo ondasunei buruzko aitorpenak betetzen ez dituenean edo ikerketa batzordeen esku uzten ez dituenean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitorpenaren kopia kautotua edo ondasunaren gaineko zerga aitorpenarena, erregelamendu honetako 24. artikulua 6. eta 8. apartatuek ezarritakoari jarraituz.
2. Hiru hilabetetik gorako zehapena ezarri ahal izateko, Mahaiak proposamena egin beharko dio Osoko Bilkurari.
3. Mahaiaren erabakiak zehaztuko ditu zehapenen iraupena eta norainokoa, erregelamendu honetako 35. artikulua ezartzen dituen dirulaguntzak ere har ditzaketenak.

118. artikulua.

1. Osoko Bilkurak, Mahaiak hala proposaturik eta bilkura sekretuan eztabaidatu ondotik, erregelamendu honek ematen dizkion eskubide guztiak edo batzuk kendu ahalko dizkio foru parlamentari bati, ondoren zehazten diren kasuetan:

- a) Aurreko artikuluan aurreikusitako zehapena ezarri eta bete ondoren, foru parlamentariak bere jarrerari eusten dionean.
 - b) Legebiltzarreko Mahaiak proposaturiko zehapena hiru hilabete baino gehiagokoa denean.
2. Mahaiaren proposamenak, interesdunari entzun eta gero egin eta arrazoitua izanen baita, eskubide-gabetzeak zenbat denbora iraunen duen zehaztuko du, eta epe horretan foru parlamentariak bere eskubide guztiak edo batzuk galduko ditu.
- Eskubide-gabetzeak erregelamendu honetako 35. artikulua ezartzen dituen dirulaguntzak zehazteko orduan ere izanen du eragina.
3. Eskubide-gabetzearen arrazoia, Mahaiaren iritzia arabera, delitua ere izan ahal bada, lehendakariak kasuan kasuko erakunde judizial eskudunari pasatuko dio erruduntasun-testigantza.

2. atala

Gaiari lotzeko eta ordena gordetzeko deiak

119. artikulua.

1. Lehendakariak gaiari lotzeko deia eginen die hizlariari, haiek beren mintzaldietan eztabaidagaiarekin zerikusirik gabekoak diren aferez edo aurrez eztabaidatu edo onetsi diren aferez jarduten diren bakoitzean.
2. Lehendakariak hitza kenduko dio hizlariari mintzaldi berean gaiari lotzeko hiru dei egin ondoren.

120. artikulua.

1. Foru parlamentariari eta hizlariari ordena gordetzeko deia eginen zaie ondorengo kasuetan:
 - a) Legebiltzarren nahiz bere kideen, Estatuko nahiz Nafarroako erakundeen edo beste edozein pertsonaren nahiz erakunderen izen onaren aurkako hitzak esaten edo kontzeptuak adierazten badituzte.

- b) Eztabaidak behar bezala gauzatzeko ezarritakoaren aurka aritzen badira bere mintzaldietan.
 - c) Bilkuren ordena hausten badute, besteren hitza etenez edo beste modu batez.
 - d) Hizlari bati behin hitza kendu ondoren, hizketan segitu nahi badu.
 - e) Erregelamendu honetan aurreikusten diren gainerako kasuetan.
2. Aurreko apartatuko a) letrako kasua gertatzen bada, lehendakariak aginduko du esandako irainak ez daitezela Bilkura Egunkarian jaso, eta hizlariari eskatuko dio hitzak erretiratzeko. Hizlariak uko egiten badio eskaera horri, ordena gordetzeko deiak egin ahalko dira, hurrengo artikuluan zehazten diren ondorioekin.

121. artikulua.

1. Bilkura berean ordena gordetzeko hiru dei jasotzen dituen hizlariari hitza kenduko zaio, eta lehendakariak, eztabaidarik gabe, bilkura egiten ari den aretotik kanpora bidaltzarekin zehatu ahalko du, eta debekatu eginen dio bilkura horretan egotea.
2. Kanporatuak aretoa uzteari uko egiten badio, lehendakariak eten eginen du bilkura, gero, hura bertan ez dela, berriro hasiera emateko, eta kanporaketa eraginkor egiteko behar diren neurri guztiak hartuko ditu. Kasu horietan, lehendakariak, 117. artikuluan ezartzen dena gorabehera, deitua izan den hurrengo bilkurara joateko debekua ezarri ahalko dio.

3. atala

Parlamentu barruko ordena

122. artikulua.

Parlamentuko lehendakariak Legebiltzarreko gela guztietan ordena gorde dadin begiratuko du, eta, ordena urratzen bada, egoera lehengoratzeko egoki irizten dituen neurri guztiak hartuko ditu.

123. artikulua.

Parlamentu barrenean, bilkuran edo bilkuratik kanpo, inork bere jokabidearekin egitez edo hitzez ordena larriki urratzen badu, berehala kanporatua izanen da.

124. artikulua.

Lehendakariak bilkurak eten edo bukatutzat eman ahalko ditu, baldin eta bilkurak behar bezala egitea galarazten duten istiluak sortzen badira.

125. artikulua.

1. Jendaurreko bilkuretan, jendea uneoro isilik egotera beharturik dago, inongo onespen edo gaitzespen adierazpenik azaldu gabe.
2. Lehendakariak aretotik kanporatuz zehatuko ditu ordena, aldez edo moldez, urratzen duten jendearen arteko pertsonak. Zalaparta sortzen bada edo ordena-urratzaileak identifikatu ezin baditu, lehendakariak jende guztia aretotik kanpora ateratzeko agindu dezake.
3. Mahaiak hurrengo bilkuretara joatea debekatu ahalko die kanporatuak izan diren pertsoneri, eta talde parlamentario bati dagozkion gonbidatu-txartelen esleipena eten ahalko du, talde parlamentario horrek gonbidatutako pertsonak bilkura-aretotik kanporatuak izanez gero.

VI. TITULUA

LEGEGINTZAKO PROZEDURA

I. KAPITULUA

Legegintzarako ekimena

126. artikulua.

1. Nafarroako Parlamentuan gauzatu beharreko legegintzako ekimena hauei dagokie:

- a) Foru Diputazioari.
 - b) Foru parlamentariei, erregelamendu honek ezartzen duen moduan.
 - c) Udalei, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.c) artikulua garapenez Nafarroako udalen legegintzako ekimena arautzen duen Foru Legeak ezartzen duenarekin bat.
 - d) Herritarrei, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua garapenez Herritarren legegintzako ekimena arautzen duen Foru Legeak ezartzen duenarekin bat.
2. Nafarroako kontu orokorrei eta aurrekontuei dagokienez, baita kreditu bereziei zein kreditu osagarriei nola Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 26. artikulua a) letrak aipatzen ditueni dagokienez ere, legegintzako ekimena Nafarroako Gobernuari dagokio bakar-bakarrik.
3. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua aipatzen diren foru legeen xede izan behar duten gaitan, legegintzako ekimena Nafarroako Gobernuari eta foru parlamentariei dagokie bakar-bakarrik.

II. KAPITULUA

Legegintzako prozedura arrunta

1. atala

Foru lege proiektuak

- I. Zuzenketen aurkezpena.

127. artikulua.

- 1. Nafarroako Gobernuak igortzen dituen foru lege proiektuek zioen azalpena eta legez nahitaezkoak diren txostenak edukiko dituzte,

baita haiei buruz iritzia eman ahal izateko beharrezkoak diren aurrekariak ere.

2. Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, foru lege proiektua izapidera onartzen den edo ez erabakiko du, kasuan kasuko batzordeari emanen dio proiektuari buruz irizpena emateko eskumena eta Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

128. artikulua.

1. Behin Parlamentuko Aldizkari Ofizialean foru lege proiektu bat argitaratu eta gero, gutxienez hamabost egun baliouduneko epea irekiko da, eta epe horrek iraun bitartean talde parlamentarioek eta foru parlamentariak, nork bere izenean, zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari, kasuan kasuko batzordeko mahaiari igorritako idazki baten bitartez.
2. Talde parlamentarioek aurkeztutako zuzenketak kasuan kasuko eledunak izenpetuko ditu, eta foru parlamentariak nork bere izenean aurkezten dituztenak parlamentaria kide den taldearen eledunak izenpetuko ditu, haien berri izatearen ondorio hutsetarako. Eledunaren sinadura eza ez da eragozpen izanen zuzenketa izapidetzeko, kasuan kasuko taldeak zuzenketari buruz daukan jarrera nolakoa den adieraziko ez duen arren.
3. Talde mistoko foru parlamentariak nork bere izenean aurkeztu ahalko dituzte zuzenketak, bere sinadura soilarekin.
4. Zuzenketak osotasunari aurkeztu ahal zaizkio, edo artikuluei.
5. Osoko zuzenketak dira foru lege proiektuaren egokitasunari, printzipioei edo oinarriei buruzkoak eta proiektua Gobernuari itzul dakion eskatzen dutenak, edo proiektuaren testuaren aurrean ordezko testu oso bat proposatzen dutenak.
6. Artikuluei aurkezten zaizkien zuzenketak kentzekoak, aldatzekoak edo gehitzekoak izan daitezke. Azken bi kasuetan, zuzenketak proposatzen den testua jaso beharko du.

7. Xede horrekin, eta, oro har, prozedura normatiboaren ondorio guztietarako, xedapen gehigarri, iragankor nahiz indargabetzaileak eta azken xedapenak artikulutzat joko dira, eta beste horrenbeste legearen titulua, legearen sistematizazioaren zati bakoitzaren idazpuruak, antolamendu sistematikoa bera eta zioen azalpena.
8. Artikuluei aurkeztutako zuzenketetatik ez dira onartuko aipagai duten testuarekin behar bezalako zerikusirik ez dutenak, ez eta, osotasunean aintzat hartuta, osoko zuzenketa batean jasotako ordeko testu guztiarekin identifikatzen direnak ere.

129. artikulua.

1. Foru lege proiektu bati eginiko zuzenketek abian den ekitaldiko kredituak gehitzea edo aurrekontu-dirusarrerak gutxitzea dakartenean, haiek izapidetzeko beharrezkoa izanen da Foru Diputazioaren adostasuna.
2. Horretarako, kasuan kasuko batzordeko mahaiak edo, bestela, txostena idatzi behar duen ponentziak, Foru Diputazioari igorriko dizkio, Parlamentuko lehendakariaren bidez, gehitzea edo gutxitzea dakarten zuzenketa horiek.
3. Foru Diputazioak erantzun arrazoitua eman beharko du zortzi eguneko epean. Epe hori bukatuta, ulertuko da Foru Diputazioaren isiltasunak adostasuna adierazten duela. Mahaiak epe hori luzatzea erabaki ahalko du, Foru Diputazioak hala eskatuta.
4. Foru Diputazioak, aurreko apartatuetan adierazten den eran kontsultarik egin ez bazaio, izapidetzearen edozein unetan adierazi ahalko du ez dagoela ados aurrekontuko sarrerak gutxitzea edo kredituak gehitzea dakarten zuzenketak izapidetzearekin.

Eledunen Batzarrak ebatziko ditu zuzenketek aurrekontuan duten eraginari buruz batzordeko mahaiaren eta Foru Diputazioaren artean egon litezkeen desadostasunak.

130. artikulua.

1. Zuzenketak aurkezteko epea amaituta, batzordeko mahaiak — aldez aurretik batzorde horren lehendakariak deituta— izapidera

onartuko ditu zuzenketak baldin eta 128. artikulua ezartzen duenarekin bat etorri aurkeztu badira, aurkeztu izan diren ordenaren arabera eta 134. artikulua ezarritakoaren arabera antolatuko ditu eta Legebiltzarreko lehendakariari bidaliko dizkio, hark, besterik gabe, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean berehala argitara daitezela agindu dezan.

2. Batzordeko mahaiak zuzenketak izapidera ez onartzea erabakiz gero, erabaki horren aurka errekurtsoa jarri ahalko da Eledunen Batzarrean, erabakia jakinarazi ondoko hiru eguneko epean, eta Eledunen Batzarrak behin betiko erabaki arrazoitua emanen du.

131. artikulua.

Zuzenketarik aurkeztu ez bada, batzordeko mahaiak Legebiltzarreko lehendakariari emanen dio horren berri, delako foru lege proiektua Legebiltzarreko Osoko Bilkuran zuzenean izapidetu ahal izan dadin.

II. Osoko Bilkurako osoko eztabaidak.

132. artikulua.

1. Erregelamenduak ezarritako epean osoko zuzenketak aurkeztu direnean, foru lege proiektuen osoko eztabaida egiten da Osoko Bilkuran. Batzordeko lehendakariak, kasu horretan, aurkeztu diren osoko zuzenketak igorriko dizkio Parlamentuko lehendakariari, eztabaidatu behar diren Osoko Bilkuraren gai zerrendan sar daitezen osoko zuzenketak.
2. Zuzenketa horien eztabaida 90. artikulua osoko eztabaidetarako ezartzen duenari jarraituz egiten da Osoko Bilkuran. Eztabaida hasteko, Gobernuak kide batek proiektua aurkeztuko du; hamabost minutu izanen ditu horretarako.
3. Talde parlamentario batek edo foru parlamentari batek osoko zuzenketa bat baino gehiago aurkezten badiu foru lege proiektu bati, Foru Diputazioari itzul dakion eskatuz, lehendakariak zilegi izanen du erabakitzea zuzenketak defentsarako eta eztabaidarako txanda bakar batean meta daitezen.

4. Eztabaida bukatu eta gero, lehendakariak bozketan jarriko ditu defendatu diren zuzenketak, proiektua Foru Diputazioari itzul dakion proposatzen dutenetatik hasita.
5. Osoko Bilkurak proiektua Gobernuari itzultzea erabakitzen bada, proiektua bazter utzia geldituko da, eta Parlamentuko lehendakariak horren berri emanen dio Foru Diputazioko lehendakariari. Bestela, kasuan kasuko batzordeari igorriko dio, izapideek aurrera egin dezaten.
6. Ordezko testua proposatzen duen osoko zuzenketa onartzen bada, batzordeko mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, aintzat hartu den foru lege proposamen gisa izapidetuko du ordezko testua.

III. Batzordeko eztabaida.

133. artikulua.

1. Osoko eztabaida —baldin eta egin bada— bukatu ondoren eta, edozein kasutan ere, zuzenketak aurkezteko epea bukatu ondoren, batzordeak ponentzia bat eratzea erabaki dezake, 55. artikulua ezarritakoaren arabera arautuko dena, gehienez ere hilabeteko epean txosten bat egin dezan, testua eta artikuluei aurkeztutako zuzenketak ikusirik.
2. Alabaina, batzordeko mahaiak, foru lege proiektuaren garrantzia edo konplexutasuna direla kausa, txostena egiteko epea luzatu ahalko du, 55. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuz.

134. artikulua.

1. Ponentziaren txostena —baldin eta txostenik badago— bukatu, batzordeko kide guztiei bidaliko zaie, proiektua batzordean eztabaidatzeko zitazioarekin batera. Eztabaida artikuluz artikulua egingen da, eta Gobernuak kide batek proiektuaren aurkezpena egin ahalko du hamabost minutuz, baldin eta osoko eztabaidan proiektuaren aurkezpenik egin ez bada.
2. Proiektuaren testua ken dadin eskatzen duten zuzenketak eztabaidatuko dira lehenbizi. Ondoren —baldin eta halakorik

badago— jatorrizko testutik gehien aldentzen diren aldatzeko zuzenketak eztabaidatuko dira, eta bukatzeko, jatorrizko testuari gero eta gehiago hurbiltzen zaizkionak eztabaidatuko dira.

3. Kentzeko eta aldatzeko zuzenketak eztabaidatu ondoren —baldin eta halakorik badago—, proiektuaren testuarekin modu berean jokatu da.
4. Ukitzen duten artikuluen testuari buruzko eztabaidak bukatu eta gero eztabaidatuko dira gehitzeko zuzenketak.
5. Zuzenketa aurkeztu duen talde parlamentarioak edo indibidualki aurkeztu duen foru parlamentariak hura defendatu eta gero, aldeko eta kontrako txanda bana irekiko da, hurrenez hurren.
6. Txanda bakoitzean, talde parlamentario bakoitzaren ordezkaria mintzatu ahalko da, hamar minutuz gehienez ere, 84.7 artikulua ezartzen duena deusetan eragotzi gabe.

135. artikulua.

Proiektuaren zioen azalpena, eta zioen azalpen horri aurkeztu zaizkion zuzenketak, artikulua guztien eztabaida eta bozketa amaitu ondoren eztabaidatu eta bozkatuko dira, baldin eta batzordeak erabakitzen badu zioen azalpena foru legearen aitzinsolas gisa sartzea.

136. artikulua.

1. Eztabaida egiten ari den bitartean in voce zuzenketak aurkeztu ahalko dira, zeinen testua orduantxe bertan eman beharko baita idatziz. Zuzenketa horiek eztabaidagaiari buruzkoak izan beharko dute. Batzordeko mahaiak izapidera onartu ahal izateko, gutxienez bi talde parlamentarioen edo batzordeko kideen bostenaren sinadura beharko da. Baldin eta in voce zuzenketa talde mistoko kide den foru parlamentari batek proposatua bada, gutxienez talde parlamentario baten sinadura ere izan beharko du.
2. Mahaiak aztertuko du aurkeztu diren zuzenketek aurreko apartatuan ezarritakoa betetzen duten, eta izapidera onartzen dituen ala ez erabakiko du.

3. In voce zuzenketa bat izapidera onartzen bada, zuzenketa sinatu dutenek gai berari buruz aurkeztu dituzten gainerako zuzenketa guztiak nahitaez erretiratu beharko dituzte.
4. Talde parlamentario bat ez badago ados Mahaiak hartutako erabakiarekin, eskatu ahaldu du berriz azter dezala. Ebazpen arrazoitu baten bitartez, Mahaiak behin betikoz erabakiko du.
5. Aurkezten diren in voce zuzenketak kasuan kasuko bilkuraren aktan gehituko dira eranskin gisa, eta haien kopia bat artxibatuko da espedientean.

137. artikulua.

1. Zuzenketen eta proiektuaren testuaren eztabaida bukatu ondoren, bozketak egingen dira.
2. Kentzeko eta aldatzeko zuzenketak eztabaidatu diren hurrenkera berean bozkatuko dira. Ondoren artikuluen testua bozkatuko da, eta azkenik gehitzeko zuzenketak bozkatuko dira.

138. artikulua.

1. Proiektuaren eztabaida bukatu ondoren, Batzordeko Mahaiak kasuko irizpena, batzordeak espresuki onetsia, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko dio, eta irizpenaren kopia bat emanen die talde parlamentario bakoitzari eta talde mistoko foru parlamentariari.
2. Irizpenak batzordeak hartu dituen erabakiak bilduko ditu, nahiz eta Mahaiak sor litezkeen errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzeko ahalmena izanen duen.
3. Legebiltzarreko lehendakariak aginduko du batzordearen irizpena argitara dadila. Kasua bada, 139. artikulua aipatzen dituen zuzenketa eta boto partikularrak ere argitaratuko dira.

139. artikulua.

1. Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 20.2 artikuluan aipatzen diren foru lege proiektu eta proposamenei

dagokienez, zuzenketa-egileek zilegi izanen dute batzordeak errefusatu dituen beren zuzenketei eustea, irizpena batzordean onetsi ondoko bi eguneko epean Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez, haiek Osoko Bilkuran defendatze aldera, baldin eta gutxienez ere lortu badute batzordeko kideen bosten batek emandako aldeko botoa edo talde parlamentario batek batzordean duen ordezkari-tza osoak emandako aldeko botoa.

2. Aurreko apartatuak aipatzen duen idazkiak banan-banan adierazi behar du zein diren beharrezko baldintzak betetzen dituzten eta eutsi nahi zaien zuzenketak.
3. Batzordeko eztabaidan proiektuaren edo proposamenaren testua aldatu egiten bada, talde parlamentarioek eta talde mistoko foru parlamentariak zilegi izanen dute, nork bere izenean, baztertua izan den testuaren aldeko boto partikularrak aurkeztea, 1. apartatuan aipatzen den denboran, haiek Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurrean defendatze aldera.

Boto partikular horiek eskatu ahalko dute, hala bada, ken daitezela gehiketa egiteko zuzenketak onartzearen ondorioz irizpenean sartu diren zatiak.

4. Aurreko apartatuetan jasotako prozeduratik salbuetsita egonen dira proiektu edo proposamen jakin batzuen irizpenak; hain zuzen ere, Mahaiak, Eledunen Batzarrak aho batez erabakia hartu ondoren, 140. artikuluari jarraikiz izapidetzea erabaki duen proiektu eta proposamenetako irizpenak.

IV. Osoko Bilkurako eztabaida.

140. artikulua.

Erregelamendu honetako 139. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik, foru lege proiektu edo proposamen bati buruzko irizpena batzordean egin ondoren, irizpen horren osotasunari buruzko eztabaida eginen da eta, jarraian, behar den bozketa eginen da.

Aurrekoa gorabehera, lehendakaritzak izapidera onartuko ditu Legebiltzarreko kideen gehiengoa, gutxienez, ordezkatzeko duten talde parlamentarioek eztabaidaren hasiera baino lehen aurkezten dituzten in voce zuzenketak. Zuzenketa horiek sinatzaileek defendatuko dituzte irizpenaren osotasunari buruzko jarrera hartzen dutenean, eta hasieran bozkatuko dira, bakoitza dagokion ordenan; onetsiak izanez gero, irizpenaren testuari txertatuko zaizkio, eta testuaren osotasunari buruzko bozketa bakarra egingen da.

141. artikulua.

1. Erregelamendu honetako 139. artikuluan jasotako kasuetan, zuzenketarik mantendu bada edo boto partikularrik egin bada, irizpenaren artikulua eztabaidatu eta bozkatzeari ekinen zaio. Ondoko arauari jarraituz jokatu da artikulua bakoitzari dagokionez:

Lehenengoa. Irizpenaren testua ken dadin eskatzen duten zuzenketak eta boto partikularrik eztabaidatuko dira lehenbizi. Ondoren —baldin eta halakorik badago— lehendakariaren iritziz jatorrizko testutik gehien aldentzen direnak eztabaidatuko dira, eta bukatzeko, jatorrizko testuari gero eta gehiago hurbiltzen zaizkionak eztabaidatuko dira.

Bigarrena. Zuzenketak eta boto partikularrik erregelamendu honetako 90. artikulua ezartzen duenaren arabera eztabaidatuko dira, baina mintzaldiak ez dira inolaz ere bost minutukoak baino luzeagoak izanen.

Hirugarrena. Zuzenketak eta boto partikularrik eztabaidatu ondoren, artikulua testuarekin modu berean jokatu da.

Laugarrena. Ukitzen duten artikulua testuari buruzko eztabaidak bukatu eta gero eztabaidatuko dira gehitzeko zuzenketak.

Bosgarrena. Artikulu bakoitzaren eztabaida bukatu eta gero, artikulu hori bozkatuko da. Kentzeko eta aldatzeko zuzenketak eta boto partikularrik bozkatuko dira eztabaidatu diren hurrenkera

berean. Ondoren, artikulua testua bozkatuko da eta, azkenik, gehitzeko zuzenketak bozkatuko dira.

Seigarrena. Artikuluaren ezaugarriak bukatu ondoren, aurreko arauak ezartzen dutenarekin bat etorriz, irizpenaren aitzinsolasa eta hari aurkeztutako zuzenketak eta boto partikularrak ezaugarriatu eta bozkatuko dira.

2. Zuzenketarik mantendu ez bada, ez eta boto partikularrik aurkeztu ere, ezaugarriak bat egingen da irizpenaren osotasunari buruz eta, jarraian, behar den bozketak egingen da.

142. artikulua.

Aurreko artikuluan aipaturiko ezaugarriak zehar, lehendakariak zilegi izanen du izapidetzeko onartzea in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza edo akats teknikoak, terminologikoak edo gramatikalak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo talde parlamentarioak aurka azaltzen ez bada onartu ahalko dira zuzenketak izapidera.

143. artikulua.

Zuzenketarik edo boto partikularrik aurkeztu ez zaien artikulua ezaugarriak gabe bozkatu ahalko dira.

144. artikulua.

Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, lehendakariak:

- a) Ezaugarriak eta bozketak artikulua, gaika edo eta artikulua-multzoka zein zuzenketa-multzoka antolatu ahalko ditu, testuaren zailtasunak edo proposamenen arteko harremanak nahiz homogeneotasunak halakorik eskatzen badute.
- b) Legebiltzarreko Mahaiarekin ados jarriz, proiektu baten ezaugarriaren gehieneko iraupena finka dezake; hartara, aurreikusitako hizlarien artean banatuko du denbora hori eta, denbora amaituz gero, eginkizun gelditzen diren bozketak egingen dira.

145. artikulua.

Proiektu baten eztabaida bukatu ondoren, boto partikular nahiz zuzenketa bat onetsi izanaren ondorioz edo artikuluen bozketaren ondorioz ateratzen den testua zentzugabea edo ulergaitza baldin bada bere punturen batean, Legebiltzarreko Mahaiak, bere ekimenez edo eta kasuan kasuko batzordearen mahaiak hala eskatuta, berriro igorri ahalko dio batzordeari Osoko Bilkurak onetsi duen testua, batzordeak, hamabost eguneko epean, idazketa harmonikoa egiteko helburu bakarrarekin, Osoko Bilkuraren erabakiak zainduz betiere. Irizpen horri buruzko azken erabakia Osoko Bilkurarena izanen da, zeinak, bozketa bakar batean, oso-osorik onetsi edo bazter utzi beharko baitu.

146. artikulua.

Kasuan kasuko foru legearen behin betiko testua onetsi ondoren, lehendakariak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila eta Foru Komunitateko Gobernuako lehendakariari bidal dakiola aginduko du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 22. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2. atala**Foru lege proposamenak****147. artikulua.**

Foru lege proposamenak zioen azalpen eta guzti aurkeztuko dira, baita proposamena egin duenak hari buruzko iritzia eman ahal izateko beharrezkotzat jotzen dituen aurrekariekin ere.

148. artikulua.

1. Foru lege proposamenak ondorengo hauek aurkeztu ahalko dituzte:

a) Foru parlamentari batek edo batzuek.

b) Talde parlamentario batek edo batzuek, eledunaren sinadura soilarekin.

2. Ekimena erabili ondoren, Parlamentuko Mahaiak erabakiko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, foru lege proposamena izapidera onartzen duen ala ez, eta argitara dadila eta Foru Diputazioari bidal dakiola aginduko du, horrek iritzia eman dezan, Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoko hamabost eguneko epean, proposamena aintzat hartzeari buruz.
3. Foru Diputazioak, aurreko apartatuan aipatzen den epe berean, orobat jakinarazi beharko du, erantzun arrazoituaren bidez jakinarazi ere, izapidetzearekin ados dagoen ala ez, baldin eta proposamenak ekitaldi horretako kredituak gehitzea edo aurrekontu-dirusarrerak gutxitzea badakar. Epea bukatuta, Foru Diputazioak ezer esaten ez badu, ados dagoela ulertuko da. Ados ez badago, Foru Diputazioaren jakinarazpena Eledunen Batzarrari igorriko zaio, eta hark hartuko du foru lege proposamenaren izapidetzearekin buruzko erabakia.
4. Epe hori bukatzen bada Foru Diputazioak izapidetzearekin ados dagoela berariaz ukatu gabe, eta Mahaiak izapidetzea erabaki baldin badu, foru lege proposamena Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko moduan izanen da, hark aintzat har dezan. Etabaida osoko etabaidetarako ezarritakoaren arabera eginen da.
5. Jarraian, Legebiltzarrak delako foru lege proposamena aintzat hartzen ote duen jakiteko bozketa egiteko aginduko du lehendakariak. Aintzat hartzen bada, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, batzorde eskudunari bidaltzea erabakiko du, eta zuzenketak aurkezteko epea irekiko da. Proposamenak foru lege proiektuentzat ezarritako izapideak segituko ditu, baina ez da osoko zuzenketarik onartuko.

149. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak udalen eta herritarren ekimenez aurkezten diren foru lege proposamenak aztertuko ditu, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19. artikulua eta hura garatzeko foru legeek ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko.

2. Foru lege proposamenak lege ezarritako baldintzak betetzen baditu, Mahaiak aurreko artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituz izapidetu dadin xedatuko du.

3. atala

Foru lege proiektu eta proposamenak erretiratzea

150. artikulua.

Foru Diputazioak izapidetzearen edozein unetan erretira dezake foru lege proiektu bat, salbu eta Legebiltzarrak hari buruz behin betiko erabakia eman badu.

151. artikulua.

Proposatzaileak foru lege proposamena erretiratzen badu, erretiratzeak besterik gabe sortuko ditu ondorioak, baldin eta erretiratzea aintzat hartzeari buruzko erabakia baino lehen egiten bada. Erabakia hartu ondoren, erretiratzea Osoko Bilkurak onartzen badu soilik izanen da eraginkorra.

III. KAPITULUA

Legegintzako prozeduraren berezitasunak

1. atala

Onetsiak izateko gehiengo osoa behar duten foru lege proiektu eta proposamenak

152. artikulua.

1. Onetsiak izateko gehiengo osoa beharko dute, proiektu osoari buruzko azken bozketan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren hurrengo artikuluetan aipatzen diren foru legeek: 9.2, 15.2, 18.bis.2, 18.ter, 19.1.c), 19.2, 25, 28.ter, 30.2, 45.6, 46.2 eta 48.2.

2. Halaber, proiektu osoari buruzko azken bozketa batean, onespenerako gehiengo osoa beharko dute Nafarroako Parlamentuko Mahaiak administrazio- eta lurralde-antolamenduaren alorrean zehazten dituen beste foru legeek, zeinak zehaztuko baititu Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartu eta gero, eta irizpide arrazoitua entzun ondoren Nafarroako Gobernuari, proposatzaileari edo kasuko ponentziari, txosten-izapidean.
3. Foru lege proiektu edo proposamen batean jasota dauden xedapenetako batzuk gehiengo osoko foru legeei dagozkienean, eta beste batzuek bestelako gaiak arautzen dituztenean, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki ahalko du proiektu edo proposamen hori bi foru lege proiektu edo proposamenetan zatitzea, zeinak bereizirik izapidetuko baitira; bata, hurrengo artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta bestea, prozedura arruntari jarraikiz.

Baldin eta aipaturiko erabakia baino lehenago ordenatuta baleude hasierako foru lege proiektu edo proposamenari aurkezturiko zuzenketak, batzorde eskuduneko Mahaiak berriro ordenatuko ditu, bakoitza dagokion proiektu edo proposamenari lotzeko.

153. artikulua.

1. Gehiengo osoa behar duten foru lege proiektu eta proposamenak legegintzako prozedura arruntari jarraituz izapidetuko dira, atal honetan ezarritako berezitasunekin. Salbuespen gisa, irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu ahalko dira 158. artikuluan aurreikusitako kasuetan, salbu eta talde parlamentarioren bat aurka badago.
2. Legebiltzarkideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da horiek onesteko, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

3. Legebiltzarreko lehendakariak alde z aurretik iragarriko du bozketa hasteko ordua.

2. atala

Aurrekontuei buruzko foru lege proiektua

154. artikulua.

1. Nafarroako aurrekontu orokorrak aztertu eta onesteko legegintzako prozedura arrunta erabiliko da, atal honetan ezartzen dena salbu.
2. Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru lege proiektuak Legebiltzarraren gainontzeko lanen aldean lehentasuna izanen du izapidetzerakoan.

155. artikulua.

1. Kontzepturen baten gastuak gehitu edo dirusarrerak gutxitzea dakarten zuzenketek Foru Diputazioa alde z aurretik ados egotea beharko dute izapidera onartuak izateko.
2. Ados egote hori, hala ere, ez da derrigorrezkoa izanen baldin eta aurkeztu den zuzenketak gastu gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea finantzatzeko baliabideak, proiektuan izendaturik behar dutenak, zehazten baditu.
3. Zuzenketek aurrekontuan duten eragina dela-eta batzordeko mahaiaren eta Foru Diputazioaren artean egon litezkeen desadostasunak Eledunen Batzarrak ebartziko ditu.

156. artikulua.

Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak alde z aurretik erabakita, beharrezko arau osagarriak eman ahalko ditu antolatzekeo proiektuaren azterketa, zuzenketa, eztabaida eta bozketa, bai eta epeak ere, aurrekontuen egiturari ondoen dagokion moduan.

3. atala

Kontu orokorre buruzko foru lege proiektua

157. artikulua.

1. Kontu orokorre buruzko foru lege proiektua jaso ondoren, Kontuen Ganberari igorriko dio Mahaiak bere lehendakariaren bitartez, horiek ikertu eta azter ditzan.
2. Kontuen Ganberak irizpena eman ondoren, bere lehendakariaren bitartez irizpen hori Legebiltzarreko Mahaiari helaraziko dio, zeinak Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu eta Ekonomia eta Ogasun Batzordeari bilera egiteko deialdia eginen baitio Kontuen Ganberako lehendakaria bertara ager dadin, erregelamendu honetako 204. artikuluan ezarritako zertzeladak beterik.
3. Kontuen Ganberaren irizpena Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hamabost egun igaro ondoren, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki ahal izanen du Nafarroako kontu orokorre buruzko foru lege proiektuaren izapidetzea izan dadila Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren aurreko irakurketa bakarraren nahiz legegintza-prozedura arruntaren bitartezkoa.
4. Kontuen Auzitegiak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. bis artikuluko 3. apartatuak aipatzen duen irizpena Parlamentuari bidaliz gero, Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, behar diren neurriak hartuko ditu, kasua bada.

4. atala

Foru lege proiektu edo proposamena irakurketa bakarrean izapidetzea

158. artikulua.

1. Foru lege proiektuaren edo proposamenaren izaerak komenigarri egiten badu edo idazkeraren soilak horretarako bide ematen

badu, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki ahalko du aipatu proiektu edo proposamena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

2. Erabaki hori hartuta, zuzenketak aurkezteko epea irekitzea aginduko du Mahaiak. Zuzenketa horiek ezin izanen dira osotasunari buruzkoak izan. Mahaiari aurkeztuko zaizkio, eta Mahaiak zuzenketa horiek kalifikatuko ditu. Epe hori, Mahaiak bestelakorik ezartzen ez badu, eztabaida eginen den Osoko Bilkuraren aurreko eguneko hamabietan bukatuko da.

Halaber, gutxienez ere Legebiltzarreko kideen gehiengoa ordezkatzeko duten talde parlamentarioek Osoko Bilkurako eztabaida hasi aurretik aurkezten dituzten in voce zuzenketak izapidetzera onartuko dira.

3. Proiektua irakurketa bakarrean izapidetzen den ala ez bozkatzu hasiko da Osoko Bilkura. Ondoren, Osoko Bilkurak halako izapidetzea onartuz gero, foru lege proiektu edo proposamenaren eztabaidari ekinen zaio, osokoetarako jarritako arauari atxikiz. Eztabaida horretan, lehenbizi, ekimena proposatu duenak hitz egiten du.
4. Irakurketa bakarreko izapidetzea ez onesteak berarekin ekarriko du kasuko foru lege proposamenaren bazterketa, kasua bada, edo foru lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetzea.
5. Eztabaida bukatu ondoren, non eta talde parlamentarioaren batek zuzenketak edo zuzenketa-multzoka bereizitako bozketa eskatzen ez duen, Lehendakariak bozketa bakarrera jarriko ditu talde parlamentario bakoitzak artikuluei egindako zuzenketa guztiak, aurkezpen-hurrenkeraren arabera.
6. Azkenik, testu osoa, onartutako zuzenketak gehituz, bozketa bakarrera jarriko da. Bozketaren ondorioa aldekoa bada, onarturik geratuko da testua. Bazter utziko da, bestela.

5. atala

Legegintzarako eskumena batzordeei eskuordetzea

159. artikulua.

1. Mahaiak, gutxienez ere parlamentuko kideen bi heren ordezkatzan dituzten eledunek Eledunen Batzarrean aurretiazko erabakia harturik, batzordeen esku utzi ahal izanen du foru lege proiektu eta proposamenak onestea, salbu eta aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua aipatzen dituen foru lege proiektu eta proposamenak, zeren eta, kasu horretan, batzordeak legegintzarako eskumen osoz jardunen baitu.
2. Eskuordetzeak ez ditu 132. artikulua aipatzen dituen osoko eztabaida eta bozketak bere baitan hartuko, ez eta 148. artikuluan aurreikusitako aintzat hartzea ere, Osoko Bilkuran eginen baitira, betiere.
3. Osoko Bilkurak edozein unetan bereganatu ahal izanen du eskuordetutako edozein foru lege proiektu edo proposamenen eztabaida eta bozketa. Ekimena hartu ahalko dute Legebiltzarreko Mahaiak, bi talde parlamentariok edo Legebiltzarra osatzen duten foru parlamentarien bosten batek.

160. artikulua.

Eskuordetzea erabaki ondoren, foru lege proiektu eta proposamenok izapidetzeko prozedura arrunta izanen da, Osoko Bilkurako eztabaidaren izapidea kenduta. Beraz, batzordeko eztabaida bukatu ondoren, batzordeko mahaiak onetsitako testua bidaliko dio Legebiltzarreko lehendakariari, erregelamendu honetako 146. artikulua aurreikusitako ondorioetarako.

IV. KAPITULUA

Foru legearen indarra duten gobernuaren xedapenak

161. artikulua.

1. Foru lege-dekretu bat baliozkotzeari edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eginen dira edo, kasua bada, Batzorde Iraunkorrean, hura aldarrikatu eta 30 eguneko epearen barruan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 21.bis artikuluan ezarritakoari jarraituz. Nolanahi ere, foru lege-dekretu bat Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman bezain laster sartu ahalko da gai zerrendan, eztabaidatua eta bozkatua izateko.
2. Gobernuko kide batek Legebiltzarrean azalduko ditu hura aldarrikatzeko izan dituen arrazoiak, eta ondorengo eztabaida osoko eztabaidetarako ezarritakoaren arabera eginen da.
3. Eztabaida amaituta, bozketa eginen da, eta hartan ulertuko da baiezko botoak baliozkotzearen aldekoak direla, eta ezezko botoak, berriz, indargabetzearen aldekoak.
4. Foru lege-dekretu bat baliozkotu ondoren, lehendakariak galdetuko du ea talde parlamentarioren batek nahi ote duen foru lege proiektu baten gisara izapidetu dadila. Baiezkoan, Legebiltzarrak eskaera horri buruz erabakiko du. Alde bozkatzen baldin badu, foru lege proiektu baten gisara izapidetuko da presako prozeduraz, eta ez dira onartuko proiektua itzultzea eskatzen duten osoko zuzenketak.
5. Batzorde Iraunkorrek zilegi izanen du, kasua bada, presako prozedura aplikatzen zaien foru lege proiektuen gisara izapidetzea Gobernuak legegintzaldien arteko denboraldietan ematen dituen foru lege-dekretuak.
6. Foru lege-dekretu bat baliozkotzeko edo indargabetzeko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

162. artikulua.

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. artikulua ezarritako moduan eta baldintzetan, Parlamentuak Foru Diputazioari eskuordetu ahalko dio legegintza-ahalaren egikaritzea.
2. Oinarrien foru lege baten bitartez eman beharko da eskuordetzea, baldin eta helburua testu artikuludunak egitea bada, eta foru lege arruntaren bidez, berriz, helburua testuak bategitea bada.
3. Legegintzarako eskuordetzea berariaz egin beharko da, gai jakinetarako eta eskuordetzea aurrera eramateko epea jarriz. Nafarroako Gobernuak eskuordetzea erabili ondoren iraungiko da, kasuan kasuko araua argitaratzearekin bat alegia. Ezin izanen da inplizituki edo epe gabe emandakotzat jo. Ezinezkoa izanen da Nafarroako Gobernuaz besteko agintariei berriz ere eskuordetzea.
4. Nafarroako Gobernuak legegintzarako eskuordetzea baliatuz emandako xedapenei legegintzako foru dekretu deritze.
5. Auzitegiek bere duten eskumena gorabehera, eskuordetzeko foru legeek kontrol modu osagarriak ezarri ahal izanen dituzte kasuan-kasuan.
6. Foru Diputazioak, aipatu lege organikoaren 21. artikuluan aurreikusitako eskuordetzea baliatu bezain laster, bidali beharreko komunikazioa bidaliko dio Parlamentuari. Komunikazio horretan eskuordetzearen gai den testu artikuluduna edoategina sartuko da eta Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
7. Eskuordetzeko foru legeek Parlamentuak eskuordetutako legegintzaren kontrola egiteko modu osagarririk ezartzekotan, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hori burutzeko arauak eman ahal izanen ditu.

VII. TITULUA

NAFARROAKO FORU ERAENTZA BERREZARRI ETA HOBETZEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA ALDATZEA

163. artikulua.

1. Foru Diputazioaren edo Nazioko Gobernuaren ekimenez aldatu ahalko da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa.
2. Kasuan kasuko negoziazioak izan ondoren, Nafarroako Gobernuak eta Nazioko Gobernuak, bat etorrita, aldaketa proposamena eginen dute, Nafarroako Parlamentuak onetsi beharko baitu. Osoko eztabaida eginen da horretarako Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eta, ondoren, bozkatu eginen da aldaketa proposamena, bere osotasunean, bozketa bakarrean.
3. Aldaketa proposamena onetsiz gero, Legebiltzarreko lehendakariak horren berri emanen dio Diputazioko lehendakariari, ondorengo izapidetzearen ondorioetarako. Aldaketa proposamena bazter utziz gero, Legebiltzarreko lehendakariak horren berri emanen dio Foru Diputazioko lehendakariari, aipatu lege organikoaren 71.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

VIII. TITULUA

FORU DIPUTAZIOARI BAIMENAK EMATEA

I. KAPITULUA

Foru Diputazioari zor publikoa jaulki, abalak eta bermeak eratu eta maileguak hartzeko baimena ematea

164. artikulua.

1. Parlamentuak aurretiaz emandako baimena beharko du Foru Diputazioak zor publikoa jaulki, abalak eratu eta maileguak hartzeko, foru legeek ezarritakoarekin bat.

2. Foru lege proiektu baten bidez eskatu beharko du Nafarroako Gobernuak aurreko apartatuan aipatzen den baimena. Foru lege proiektu horretan baimenaren nondik norakoak jasoko dira, foru lege proiektuaren xede bakarra baimena lortzea ez den kasuetan ere.

II. KAPITULUA

Nafarroako Gobernuari Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin hitzarmenak eta itunak egiteko baimena ematea

1. atala

Foru Diputazioari Estatuarekin hitzarmenak egiteko baimena ematea

165. artikulua.

1. Foru Diputazioak, foru lege bat aldatzea edo indargabetzea ekartzen duten edo betearazpenerako legegintzako neurriak eskatzen dituzten hitzarmenak Estatuarekin formalizatzeko, aurretik Parlamentuaren baimena lortu beharko du.
2. Baimena eskatzeko, hitzarmenaren testuarekin batera Foru Gobernuaren erabakia bidali beharko dio Foru Diputazioak Parlamentuari, baimena justifikatzeko oroitidazkiarekin batera.

166. artikulua.

1. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hitzarmena Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du eta Osoko Bilkuran edo batzordean izapidetzea erabakiko, salbu eta Gobernuak Osoko Bilkuran eztabaidatzea proposatzen badu.
2. Baimena emateari buruzko eztabaida Erregelamenduak osoko eztabaidetarako ezarritakoari jarraituz egingen da.
3. Eztabaida bukatu ondoren, bozketa egingen da, eskatu den baimena eman ala ez erabakitzeke.

4. Eskatutako baimena emateari buruz hartu den erabakiaren berri emanen dio Parlamentuko lehendakariak Nafarroako Gobernuko lehendakariari.

2. atala

Foru Diputazioari autonomia erkidegoekin lankidetzaz hitzarmenak eta itunak egiteko baimena ematea

167. artikulua.

1. Foru Diputazioak baimena eskatu beharko dio Parlamentuari, autonomia erkidegoekin bere eskumeneko gaien gaineko zerbitzuak kudeatu eta emateari buruzko hitzarmenetan onespena eman ahal izateko, baldin eta horrek foru legeren bat aldatu edo indargabetzea edota betearazpenerako legegintzako neurriak hartu behar izatea badakar.
2. Hitzarmena prest dagoenean aurkeztu beharko da baimen eskaria eta, betiere, Konstituzioaren 145.2 artikulua eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 70. artikulua ezarritakoari jarraituz Gorteei jakinarazi aurretik.
3. Foru Gobernuaren erabakia, hitzarmenaren testua eta eskaria azaltzeko eta justifikatzeko oroitidazkia erantsi beharko dizkio Foru Diputazioak baimen eskariari.

168. artikulua.

Estatuarekiko hitzarmenei buruz 1. atalean ezarritakoari jarraituz izapidetuko da Parlamentuan autonomia erkidegoekin hitzarmenak egiteko baimena.

169. artikulua.

Foru Diputazioak lankidetzaz itunak egiteko eskatzen dituen baimenen araubidea aurreko artikuluetan hitzarmenetarako ezarri dena izanen da.

3. atala Arau amankomunak

170. artikulua.

1. Nafarroako Parlamentuaren baimena jaso ondoren, hitzarmena egin ahalko du Foru Komunitateko Gobernuak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 70. artikulua 1. eta 2. apartatueta ezarritakoa gorabehera.
2. Autonomia erkidegoekin lankidetzat itunak egin ahal izateko, Gorte Nagusien baimena eskuratu beharko du Nafarroako Gobernuak, kapitulu honetan aipatzen denaz gain.

III. KAPITULUA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 39.2 artikulua aipatzen duen ekimena erabili ahal izateko Foru Diputazioak behar duen baimena

171. artikulua.

1. Foru Diputazioak Legebiltzarraren baimena beharko du Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 39.2 artikulua aipatzen duen ekimena erabili ahal izateko.
2. Legebiltzarraren baimenak esku emanen dio Foru Diputazioari, Nazioko Gobernuaren aurrean, Konstituzioaren 150. artikulua 1. eta 2. apartatueta ezarritakoarekin bat, ekimena erabili ahal izateko, Estatuak edo, hala egokituz gero, Gorte Nagusiek, Nafarroari transferitu, eskuordetu edo esleitu diezazkioten aipatu lege organikoaren 39.2 artikulua dakartzan ahalmen eta eskumenak.
3. Foru Gobernuaren erabakia, proposamenaren testua, azalpenezko oroitidazkia eta aurreko apartatuak aipatzen duen ekimena arrazoitzeko Foru Diputazioaren iritziz baliagarri izan daitekeen

beste edozein dokumentu erantsi beharko dizkio Foru Diputazioak baimen eskariari.

4. Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetuko da baimen eskaera, osoko eztabaidetarako ezarritakoari jarraituz, Legebiltzarreko Mahaiak hala erabakitzen duenean, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta aurreko apartatuak aipatzen dituen betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren.

IX. TITULUA

NAFARROAREN ETA ESTATUAREN ARTEKO HITZARMEN EKONOMIKOEN IZAPIDEAK

172. artikulua.

1. Hitzarmen ekonomikoen izaera hitzartua edo itundua dela-eta, Nafarroako Gobernuak eta Nazioko Gobernuak izenpetu ondoren, Nafarroako Parlamentuak eta Gorte Nagusiek onetsi beharko dituzte hitzarmen ekonomikoak.
2. Hitzarmen ekonomikoaren izapidetzean ondoko arauak beteko dira:

Lehenengoa. Foru Diputazioak Nazioko Gobernuarekiko akordioaren testua hitzarmenaren testuarekin batera bidali ondoren, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, bilkura informatiboa egitea erabaki dezake, Foru Diputazioak horren edukiari buruzko informazioa eman dezan.

Bilkura hori egiten baldin bada, erregelamendu honen 203. artikulua ezarritakoaren arabera egingen da.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran egingen da hitzarmen ekonomikoari buruzko osoko eztabaida eta, osoko bozketa egin ondoren, aldeko botoen gehiengo osoa beharko da onesteko.

Hirugarrena. Hitzarmen ekonomikoa onetsiz gero, Legebiltzarreko lehendakariak horren berri emanen dio Diputazioko

lehendakariari, ondorengo izapidetzearen ondorioetarako, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45.4 artikuluan ezarritakoarekin bat.

X. TITULUA

KONFIANTZA EMATEA ETA KENTZEA

I. KAPITULUA

Inbestidura

173. artikulua.

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuak hautatu eta Erregeak izendatzen du.

174. artikulua.

Parlamentua eratu eta hamar eguneko epean, Parlamentuko lehendakariak, Parlamentuan ordezkaturik dauden alderdi edo talde politikoek hautatutako eledunei kontsulta egin ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaritzarako hautagai bat proposatuko du.

175. artikulua.

Proposatutako hautagaiaren inbestidura bilkurarako deia hiru egun lehenagotik egin beharko da, gutxienez; bilkura hurrengo arauen arabera egingen da:

Lehenengoa. Parlamentuko lehendakariak Legebiltzarrari jakinaraziko dio Gobernuko lehendakaritzarako hautagai-proposamena. Horrela hasiko da bilkura.

Bigarrena. Ondoren, proposatuko hautagaiak osatu nahi duen gobernuaren programa politikoa azalduko du, denbora mugarik gabe, eta Legebiltzarraren konfiantza eskatuko du.

Hirugarrena. Lehendakariak erabakitako etenaldiaren ondoren, hala eskatzen duen talde parlamentario bakoitzaren ordezkari bat mintzatuko da hogeita hamar minutuz. Talde parlamentario mistoa osatzen duten kideei dagokien hitz egiteko denbora berdintasunez banatuko da haien artean, eta zilegi izanen dute elkarri lagatzea hitz egiteko denbora. Talde parlamentarioek mintzatzeko izanen duten hurrenkera izanen da haietako bakoitzaren taldekide kopuruaren arabera, handienetik hasi eta txikieneraino, eta talde mistoarekin bukatuz.

Laugarrena. Eskatzen duen guztietan erabili ahalko du hitza proposatutako hautagaiak. Mintzatu den bati bakarka erantzuten badio, ihardesteko eskubidea izanen du horrek. Halaber, hautagaiak batera erantzuten badie talde parlamentarioen ordezkariari eta talde parlamentario mistoa osatzen duten kideei, horiek eskubidea izanen dute ihardesteko. Lehendakariak erabakiko du ihardespentxanden iraupena.

Bosgarrena. Lehendakariak erabakitako orduan egingen da bozketa. Bozketa sekretua izanen da eta boto-paperen bidez egingen da, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 102. artikuluan ezarritakoaren arabera. Proposatutako hautagaiak Parlamentuko kideen gehiengo osoaren botoa bereganatzen badu bozketan, konfiantza eman zaiola ulertuko da. Halako gehiengorik lortzen ez bada, hogeita lau orduren buruan beste bozketa bat egingen da, eta hautagaiari konfiantza eman zaiola ulertuko da bigarren bozketa horretan gehiengo soila lortzen badu.

Seigarrena. Gehiengo soila lortua dela ulertuko da aldeko botoen kopurua aurkakoena baino handiagoa denean; abstentzioak, boto zuriak edo baliogabeak ez dira zenbatuko ondorio horretarako. Gehiengo hori ere lortzen ez bada, hautagaia arbuiautzat hartu eta hurrenez hurreneko proposamenak izapidetuko dira arestian aurreikusitako era berean.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin eta gero hiru hilabete iragan eta hautagairik aurkezten ez bada edo aurkeztu direnetarik inor hautatu ez bada, Parlamentua deseginen

da eta beste hauteskunde batzuk deituko dira. Hauteskunde dei horretatik sortzen den Parlamentu berriak lau urteko legealdi osoa iraunen du.

Zortzigarrena. Aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera, hautagaiari konfiantza ematen bazaio, Parlamentuko lehendakariak erregeari jakinaraziko dio hori, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari izendatua izan dadin.

II. KAPITULUA

Konfiantza-eskaera

176. artikulua.

Foru Diputazioko lehendakariak, Gobernuan eztabaidatu ondoren, Parlamentuaren aurrean aurkeztu ahalko du bere jarduketa-programari buruzko konfiantza-eskaera.

177. artikulua.

1. Idazki arrazoituan aurkeztuko zaio konfiantza-eskaera Parlamentuko Mahaiari, Foru Diputazioaren dagokion ziurtagiriarekin batera.
2. Legebiltzarreko Mahaiak, konfiantza-eskaerak aurreko apartatuan jasotako betebeharrak betetzen dituela egiaztatu ondoren, izapidera onartuko du eta Eledunen Batzarrari haren berri emanen dio, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu eta Osoko Bilkurarako deia eginen du.
3. Inbestidura eztabaidarako ezarri diren arau berei jarraituko zaie eztabaida honetan, eta Foru Diputazioko lehendakariari eta, hala bada, Gobernuko kideei egokituko zaizkie erregelamendu honetako 175. artikulua hautagaiarentzako aurreikusitako mintzaldiak.
4. Eztabaida bukatu ondoren, konfiantza-eskaerari buruzko bozketa eginen da, lehendakariak aurrez iragarritako orduan. Ezin izanen da konfiantza-eskaerari buruzko bozketarik egin eztabaida bukatu eta,

gutxienez, hogeita lau ordu iragan arte. Erregelamendu honetako 100.2 artikulua araberan eginen da bozketa.

5. Foru parlamentarien gehiengo soilak horren aldeko botoa ematen duenean ulertuko da konfiantza eman dela.
6. Parlamentuak Diputazioko lehendakariari konfiantza ukatuz gero, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 34.2 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.
7. Bozketaren emaitza edozein dela ere, Legebiltzarreko lehendakariak Gobernuko lehendakariari jakinaraziko dio.

III. KAPITULUA

Zentsura-mozioa

178. artikulua.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 35. artikuluan ezarritako moduan, Parlamentuak erantzukizun politikoa eskatu ahaliko dio Diputazioari, horretarako zentsura-mozioa gehiengo osoz onetsiz.

179. artikulua.

Zentsura-mozioek nahitaez Diputazioko lehendakaria izateko hautagai bat proposatu beharko dute. Honela aurkeztu eta izapidetuko dira:

1. Parlamentuko kideen bostenak, gutxienez, proposatu beharko du mozioa, Parlamentuko Mahaiari igorritako idazki arrazoituan, eta hautagai izatea onartu duen Foru Diputazioko lehendakaria izateko hautagai bat aurkeztu beharko du nahitaez.
2. Legebiltzarreko Mahaiak, zentsura-mozioak aurreko apartatuan aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, izapidetuko du eta Diputazioko lehendakariari eta Eledunen Batzarrari jakinaraziko dio hori; halaber, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu eta mozioa aurkeztu eta hurrengo

hamar eguneko epean egingen den Osoko Bilkurarako deia egingen du.

180. artikulua.

1. Zentsura-mozioaren eztabaida, mozioa izenpetu duten foru parlamentarietako batek haren defentsa eginez hasiko da, denbora mugarik gabe. Ondoren, eta denbora mugarik gabe ere, mozioan Foru Diputazioaren lehendakari izateko hautagai gisa aurkeztutakoa mintzatuko da, osatu nahi duen gobernuaren programa politikoa agertzeko.
2. Lehendakariak erabakitako etenaldiaren ondoren, berriz hasiko da eztabaida, 175. artikuluaen 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera.
3. Lehendakariak aurretik iragarritako orduan bozkatuko da zentsura-mozioa. Ezin izanen da, inolaz ere, mozioa bozkatu Legebiltzarreko Erregistro Orokorrean aurkeztu eta bost egun igaro baino lehenago.
4. Zentsura-mozio bat onesteko, nolnahi ere, Parlamentuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa behar da.

181. artikulua.

Nafarroako Parlamentuak zentsura-mozioa onesten badu, Nafarroako Gobernuak lehendakariari eta Erregeari jakinaraziko die Parlamentuko lehendakariak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 35.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

182. artikulua.

Zentsura-mozioa onesten ez bada, hura izenpetu dutenek ezin izanen dute bilkuraldi berean besterik aurkeztu. Ondorio horietarako, bilkuraldi arruntetik kanpo aurkeztutakoa hurrengo bilkuraldiari eratzikiko zaio.

XI. TITULUA

INTERPELAZIOAK ETA GALDERAK

I. KAPITULUA

Interpelazioak

183. artikulua.

Foru parlamentariak eta talde parlamentarioek interpelazioak aurkeztu ahalko dizkiete Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioari eta haren kideetako bakoitzari.

184. artikulua.

1. Interpelazioak Parlamentuko Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira, eta haien gaiak izanen dira politika orokorreko aferetan Gobernuak edo Gobernuko departamenturen batek daukan jarrera edo eginiko urrats edo proiektuak.
2. Mahaiak idazkia kalifikatu eta, aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera haren edukia interpelazio batenari ez badagokio, egileari jakinaraziko dio hori, hark ahozko edo idatzizko erantzunerako galdera bihur dezan.
3. Interpelazioak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

185. artikulua.

1. Interpelazioak ezin izanen dira Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartuak izan harik eta argitaratu ziren egunetik bost egun igaro arte. Aurrekoa gorabehera, zilegi izanen da epe hori bete behar izan gabe eskatzea, urgentziagatik, interpelazioak gai zerrendan sartuak izan daitezela; baina, betiere, gutxienez hiru egun igaro badira aurkeztu zirenetik.
2. Interpelazioak gai zerrendan sartuak izanen dira haiei lehentasuna emanaz aurkeztu diren hurrenkeraren arabera.

3. Bigarren bilkuraldia bukatzen denean erabakitzeke dauden interpelazioak idatziz erantzuteko galdera gisa izapidetuko dira, eta haiei hurrengo bilkuraldia hasi baino lehenago erantzun beharko zaie, non eta interpelazioa aurkeztu duen foru parlamentariak edo talde parlamentarioak ez duen adierazten interpelazioari hurrengo bilkuraldi horretarako eutsi nahi diola, amaitu den bilkuraldiaren amaieraren ondoko bost egunetan.

186. artikulua.

1. Interpelazioak Osoko Bilkuran aztertuko dira. Interpelazioaren egileari azalpena emateko txanda bat, Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioari erantzuteko beste bat, eta biei ihardespentxanda bana emanen zaie. Lehenengo mintzaldiak ezin izanen dira hamar minututik gorakoak izan, ez eta ihardespentxandak bost minutu baino luzeagoak ere.
2. Interpelatzailea eta interpelaturia mintzatu ondoren, talde parlamentarioen ordezkari banak, interpelazioa aurkeztu duen taldearenak izan ezik, bost minutuz hitz egin ahalko du, bere jarrera adierazteko.
3. Foru Diputazioak arrazoiturik eskatu ahalko du, edozein unetan eta behin bakarrik interpelazio bakoitzeko, interpelazioa hurrengo Osoko Bilkuraren gai zerrendarako atzeratzeko. Eskaria bidali ondoren, Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, horri buruzko erabakia hartuko du.

187. artikulua.

1. Interpelazio orok ekar dezake Legebiltzarrak bere jarrera adierazteko mozio bat.
2. Interpelazioa egin duen talde parlamentarioa edo interpelaturia izenpetu duen parlamentaria kide denekoa behartuta egonen da interpelazioa Osoko Bilkuran aztertu ondoko hiru egunetan aurkeztera mozioa. Mozioa, Mahaiak onartu ondoren, hurrengo Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartuko da; eztabaidatu behar den bilkuraren aurreko eguneko hamabiak arte aurkeztu ahalko zaizkio

zuzenketak. Mozioa interpelazioarekin koherentea baldin bada, Mahaiak onartu egingen du.

3. Horren eztabaida eta bozketa egingen dira erregelamendu honek mozioetarako ezarritakoari jarraituz.

II. KAPITULUA

Galderak

188. artikulua.

Foru parlamentariak galderak egin ahalko dizkiete Foru Diputazioari eta Diputazioko kideei.

189. artikulua.

1. Parlamentuko Mahaiari igorritako idazki baten bidez egingen dira galderak.
2. Honako galdera hauek ez dira izapidera onartuko: galdegilearen edo beste edozein pertsona edo erakunde jakin baten interes pertsonal hutsagatik egindakoak, izaera hertsiki juridikoko kontsulta besterik ez direnak edo bilkuraldi berean izapidetu diren beste galdera batzuk errepikatzen dituztenak.
3. Mahaiak idazkia kalifikatu eta galdera izapidera onartuko du baldin eta kapitulu honetan ezarritakoarekin bat badator.
4. Onetsitako galderak Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen aginduko du lehendakariak eta Foru Diputazioari igorriko dizkio.

190. artikulua.

Berariaz adierazi ezean, galdegileak galdera idatziz erantzun diezaiotela eskatu duela ulertuko da; eta ahozko erantzuna eskatzen badu, Osoko Bilkuraren aurrean erantzun diezaioten nahi duela adierazi ezean, erantzuna kasuan kasuko batzordearen aurrean eman behar dela ulertuko da.

191. artikulua.

Ahozko erantzuna Osoko Bilkuraren aurrean izatea nahi denean, galdera egiteko idazkiak zehatz eta labur adierazitako itaun bakarra baino ez du jasoko, hurrengoez galdeginez: gertaera, egoera edo informazio batez, Gobernuak gai baten inguruan eginbiderik hartu duen edo hartuko duen jakiteko, edo Gobernuak Parlamentuari dokumenturen bat bidaliko dion edo gairen bati buruzko informazioa emanen dion.

192. artikulua.

1. Osoko Bilkurarako ahozko galderak jasotzen dituzten idazkiak aurkeztu beharko dira haiek eztabaidatu nahi direneko Osoko Bilkuraren gai-zerrenda onesten duen Mahaiaren bilkuraren aurreko osteguneko hemeretziak baino lehenago.

Halaber, talde parlamentarioek gaurkotasun handiko galdera bana aurkeztu ahalko dute hura egin nahi duteneko Osoko Bilkura egitekoa den asteko asteleheneko bederatzi eta erdiak baino lehenago.

2. Erregelamendu honetako 45.1 artikuluari jarraikiz, talde parlamentario bakoitzak batzordean zenbat kide dituen esleiturik, hainbeste galdera arrunt aurkeztu ahalko ditu Osoko Bilkura bakoitzerako. Halaber, zenbat talde parlamentario, gaurkotasun handiko hainbeste galdera aurkeztu ahalko dira, talde parlamentario bakoitzeko kide batek eginak.
3. Osoko Bilkura baterako gai-zerrendan sartzeke dauden talde parlamentario baten galdera arruntak 2. apartatuaren arabera dagozkionak baino gehiago badira, haien lehentasuna erabakiko da haien aurkezpenaren hurrenkeraren arabera.
4. Eztabaidan, foru parlamentariak galdera laburki egin eta gero, kasuan kasuko gobernukideak emanen du erantzuna. Parlamentaria berriz mintzatu ahalko da ihardetsi edo berriz galdetzeko eta, Gobernua bigarrenez mintzatu ondoren, eztabaida bukatuko da. Galdera bakoitza izapidetzeko denbora ezin izanen da hamar minutu baino gehiagokoa izan, berdinki banatua galdera

egiten duen foru parlamentariaren eta erantzuna ematen duen gobernukidearen artean.

5. Osoko Bilkurarako galdera azaltzean, galdera egiten duen foru parlamentariaren ordeztu bere taldeko beste bat aritu ahalko da, horren berri lehendakariari eman ondoren.
6. Nafarroako Gobernuak edozein unetan eskatu ahalko du, arrazoiak adieraziz eta galdera bakoitzarekin behin baino ez, hurrengo Osoko Bilkurarako atzera dadila; hori horrela, Osoko Bilkura horretako gai-zerrendan sartuko da, 2. apartatuan aurreikusitako galdera-kopurua murriztu gabe.
7. Bigarren bilkuraldiaren amaieran erantzuteke dauden galderak idatziz erantzunen dira hurrengo bilkuraldia hasi baino lehenago, non eta galdera aurkeztu duen foru parlamentariak ez duen adierazten galderari hurrengo bilkuraldi horretarako eutsi nahi diola, amaitu den bilkuraldiaren amaieraren ondoko bost egunetan.

193. artikulua.

1. Batzordean ahoz erantzutea nahi diren galderak, gai zerrendan sartzeko moduan izanen dira haiek argitaratu eta bost egun igarotakoan. Aurrekoa gorabehera, ordea, ondokoa eskatu ahalko da presa dela-eta, hots, aipatu epea gorde gabe galderak sartu ahal izatea, baina betiere aurkeztu zirenetik gutxienez hiru egun igaro ondoren.
2. Aurreko artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.
3. Foru Diputazioak zio eta guztiko eskaria egin ahalko du, edozein unetan eta behin bakarrik galdera bakoitzeko, galdera hurrengo bilkuraren gai zerrendarako atzeratzeko. Eskaria bidali ondoren, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, horri buruzko erabakia hartuko du.
4. Bigarren bilkuraldia bukatzen denean erantzun gabe dauden galderak idatziz erantzuteko galdera gisa izapidetuko dira, eta

erantzuna hurrengo bilkuraldia hasi baino lehenago eman beharko zaie.

194. artikulua.

1. Idatzizko erantzuna galdera argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan eman beharko da. Epe hori ezin izanen da eten ezta hura igaro bitartean bilkuraldia amaitzen denean ere.
2. Aipatu epean Gobernuak erantzunik bidali ez badu, Legebiltzarreko lehendakariak, galdegilearen eskariz, kasuan kasuko batzordearen hurrengo bilkuraren gai zerrendan sartzeko agindua emanen du, non ahoz erantzuteko galderen tratamendua emanen zaion, eta erabaki horren berri emanen dio Gobernuari.

III. KAPITULUA

Arau amankomunak

195. artikulua.

1. Legebiltzarreko lehendakariak bere esku du eztabaidarako metatzea eta antolatzea gai zerrendaren barruan diren interpelazio edo galderak, gai berari buruzkoak edo elkarrekin zerikusia duten gaietara buruzkoak baldin badira.
2. Galderen edo interpelazioen testuan erregelamendu honetako 120.1 artikulua a) apartatua aurreikusitakoren bat agertzen bada, Mahaiak deklaratu ahal izanen du haiek ezin direla izapidera onartu.

XII. TITULUA

MOZIOAK

196. artikulua.

1. Foru parlamentarietako eta talde parlamentarioetako mozioak aurkeztu ahal izango dituzte, haien bitartez Legebiltzarrari erabaki proposamenak egiteko.

2. Talde parlamentarioek eskubidea izanen dute gutxienez ere beren mozioetako bat osoko bilkuretako gai zerrendan sar dadin. Halaber, adierazi ahalko dute beren mozioetatik zein sartu nahi duten bilkura horretako gai zerrendan, Osoko Bilkura egin baino hamar egun lehenago Mahaiari jakinarazten badiote.

197. artikulua.

1. Mozioak Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira. Mahaiak erabakiko du horiek izapidera onartzen dituen ala ez; eta, onartzen baditu, argitara daitezen agindu eta Osoko Bilkuraren edo kasuan kasuko batzordearen aurrean izapidetu daitezen erabakiko du, proposamena egin duen talde parlamentarioak edo foru parlamentariak azaldutako nahiaren eta mozioaren gaiaren garrantziaren arabera.
2. Ez dira izapidera onartuko bilkuraldi berean izapidetutako mozioak errepikatzen dituzten mozioak.
3. Mozioa argitaratu ondoren, talde parlamentarioek zein foru parlamentarietara, beren izenean, zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote mozioak jasotzen duen erabaki proposamenari. Zuzenketa horiek Legebiltzarreko Mahaiari edo mozioa izapidetzeko eskudun den batzordeko mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztuko dira, eztabaidatu behar diren bilkuraren aurreko eguneko hamabiak baino lehen.
4. Eztabaida bitartean, lehendakariak izapidera onartu ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo talde parlamentariorik aurka azaltzen ez bada onartu ahalko dira zuzenketa horiek.
5. Legebiltzarreko edo batzordeko lehendakariak gai berari buruzko mozioak edo elkarrekin zerikusia dutenak batu ahalko ditu, eztabaidarako.

198. artikulua.

1. Mozio baten eztabaida hasiko da hura aurkeztu duen talde parlamentarioak edo foru parlamentariak egindako defentsarekin. Hamabost minutu izanen ditu horretarako, gehienez.
2. Ondoren, zuzenketak aurkeztu dituen talde parlamentario bakoitzaren ordezkari bat edo zuzenketak aurkeztu dituen foru parlamentaria mintzatuko dira, hamar minutuz. Ondoren, mozioaren aldeko txanda bat eta aurkako beste bat egonen dira; txanda horietan mintzatu ahalko dira zuzenketarik aurkeztu ez duten talde parlamentarioak edo talde mistoko foru parlamentariak, hamar minutuz gehienez.
3. Aurreko apartatuan aipatutako mintzaldiak bukatuta, mozioa proposatu duen talde parlamentario edo foru parlamentariak ihardespen-txanda bat erabili ahalko du, hamar minutuz gehienez.
4. Mintzaldi horiek bukatu, mozioa, hura proposatu duenak onartutako zuzenketekin batera, bozkatu egingen da.

XIII. TITULUA

FORU DIPUTAZIOAREN KOMUNIKAZIO, PROGRAMA EDO PLANEN ETA BESTE INFORMAZIO BATZUEN AZTERKETA ETA EZTABAIDA

I. KAPITULUA

Gobernuaren komunikazioak

199. artikulua.

1. Foru Diputazioak komunikazioak bidali ahalko dizkio Parlamentuari, Legebiltzarrak eztabaida ditzan.
2. Komunikazioa bidali ondoren, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, argitara dadin agindu eta komunikazioaren ondoriozko eztabaida Osoko Bilkuran edo batzordean egin dadila xedatuko du,

salbu eta Diputazioak berariaz Osoko Bilkuran eztabaidatzea proposatzen badu.

3. Foru Diputazioaren komunikazioak interes politikoa duen edozein gairi buruzkoak izan daitezke. Komunikazio baten eztabaida Gobernu kide baten mintzaldiarekin hasiko da, eta horren ondoren talde parlamentario bakoitzaren ordezkari bat eta talde mistoko parlamentariak mintzatu ahalko dira, gehienez hamabost minutuz.
4. Foru Diputazioko kideek galderei banaka, batera zein gaika bilduta erantzun ahalko diete. Mintzatu diren guztiek ihardesteko txanda izanen dute, gehienez ere hamarna minutuz.

200. artikulua.

1. Eztabaida bukatu ondoren, epe bat irekiko da, zeinaren iraupena Legebiltzarreko edo batzordeko lehendakariak erabakiko baitu, eta epe horretan talde parlamentarioek eta talde mistoko parlamentariak erabaki proposamenak aurkeztu ahalko dizkiote Mahaiari. Mahaiak eztabaidaren helburuarekin bat datozen proposamenak onartuko ditu.
2. Mahaiak finkatuko du izapidera onartutako proposamenak eztabaidatzeko hurrenkera, kontuan harturik elkarrekin duten antza edo lotura eta, baita ere, komunikazioa erabat zein zatika onartzen edo errefusatzen duten. Proposamen bakoitzaren eztabaida 141.1. artikulua 2. arauan zuzenketa edo boto partikularrentzako ezarritakoari lotuko zaio.
3. Erabaki proposamenak eztabaidatu diren hurrenkera berean bozkatuko dira.

201. artikulua.

1. Legegintza-urtearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, Gobernu lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan hauteskundeak egin behar direnean izan ezik, Osoko Bilkura berezia egingen da Erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida bat egiteko. Eztabaidarako

deialdia egin aurretik, irailaren lehenbiziko hamabost egun baliodunen barrenean, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari igorri ahalko dio Gobernuaren politika orokorrari eta erkidegoaren egoerari buruzko komunikazio bat, Osoko Bilkura berezi horretan eztabaida dadin.

2. Oro har, erregelamendu honetako IV. kapituluko V. tituluaren ezarritako arauak aplikatuko dira eztabaidan. Betiere, ondoko apartatuetan ezarritakoari begiratuko zaio:
 - a) Eztabaida Nafarroako Gobernuko lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da, denbora mugarik gabe. Azalpen hori amaiturik, lehendakariak bilkura aldi baterako etenen du, talde parlamentarioek mintzaldia aztertu ahal izan dezaten.
 - b) Bilkuraldia berriz hasten denean, mintzaldi-txanda bat irekiko da, zeinean talde parlamentario guztiak mintzatu ahalko baitira, zein bere ordezkariaren bitartez. Talde parlamentarioen mintzaldien hurrenkera ezarriko da talde bakoitzak duen kide kopuruaren arabera; kopuru handiena duen taldearekin hasi eta txikiena duenarekin amaituko da. Gobernua babesten duten taldearen edo taldeen eledunak azkenak izanen dira mintzatzen.
 - c) Aurreko apartatuan aipaturiko mintzaldiek ez dute hogeita hamar minutu baino gehiago iraunen.
 - d) Eskatu duten talde parlamentarioen eledun guztiak mintzatu ondoren, Gobernuko lehendakaria berriz mintzatu ahalko da.
 - e) Lehendakaria mintzatu ondoren, ihardespentxanda bat, gehienez ere hamar minutukoa, ezarri ahalko da, talde parlamentario ezberdinek hala eskatuta, hain zuzen ere artikuluko honetako b) apartatuan ezarritako hurrenkera duena. Eztabaida bukatuko da Gobernuko lehendakariaren mintzaldiarekin.
 - f) Eztabaida bukatzen denean, epe bat irekiko da, zeinaren iraupena Legebiltzarreko lehendakariak erabakiko baitu, eta epe horretan talde parlamentarioek eta talde mistoko foru parlamentariak gehienez bost erabaki proposamen aurkeztu ahalko dizkiote Mahaiari. Mahaiak eztabaidaren helburuarekin

bat datozen proposamenak onartuko ditu. Haien eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 198. artikulua xedatutakoari jarraituz eginen dira.

II. KAPITULUA

Foru Diputazioak igorritako programa eta planen azterketa

202. artikulua.

1. Foru Diputazioak programa edo planen bat bidali eta Parlamentuak horri buruzko iritzia ematea eskatzen baldin badu, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hura argitara dadila aginduko du, eta Osoko Bilkuraren edo kasuan kasuko batzordearen aurrean bidera daitezen erabakiko du, salbu eta Diputazioak berariaz Osoko Bilkurako eztabaida proposatzen badu.
2. Gobernuako kide baten mintzaldiarekin hasiko da eztabaida, eta horren ondoren talde parlamentario bakoitzaren ordezkari bat eta talde mistoko parlamentariak mintzatu ahalko dira, gehienez hamabost minutuz.
3. Foru Diputazioko kideek galderei banaka, batera zein gaika bilduta erantzun ahalko diete. Mintzatu diren guztiek ihardesteko txanda izanen dute, gehienez ere hamarna minutuz.
4. Eztabaida bukatu ondoren, epe bat irekiko da, zeinaren iraupena Legebiltzarreko edo batzordeko lehendakariak erabakiko baitu, eta epe horretan talde parlamentarioek eta talde mistoko foru parlamentariak erabaki proposamenak aurkeztu ahalko dizkiote Mahaiari. Mahaiak eztabaidaren helburuarekin bat datozen proposamenak onartuko ditu.
5. Mahaiak izapidera onartutako proposamenak eztabaidatzeko hurrenkera finkatuko du, kontuan harturik elkarrekin duten antza edo lotura eta, baita ere, plana edo programa erabat zein zatika onartzen edo errefusatzen duten. Proposamen bakoitzaren

eztabaida 141.1. artikulua 2. arauan zuzenketa edo boto partikularrentzako ezarritakoari lotuko zaio.

6. Eztabaida bukatuta, bozketak honako hurrenkeratan egingen dira:

- a) Lehenengo, plana edo programa itzultzeko proposamena egiten duten erabaki proposamenak bozkatuko dira, halakorik bada.
- b) Itzultzeko proposamenak bazter utzirik, halakorik bada, erabaki proposamenak eztabaidatu diren hurrenkera berean bozkatuko dira.
- c) Azkenik plan edo programaren testu osoa, onetsitako erabaki proposamenak barne direla, osoko bozketa bakarrean bozkatuko da. Horren emaitza aldekoa bada, onetsi egingen da plan edo programa. Bazter utziko da, bestela.

III. KAPITULUA

Nafarroako Gobernuaren agerraldiak

203. artikulua.

1. Nafarroako Gobernuko kideak, haiek hala eskatuta edo Eledunen Batzarraren ekimenez, Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen batzordearen aurrean agertuko dira, haien eskumeneko jardueri buruzko informazio bilkura egiteko xedez.
2. Agerraldia gutxienez ere Parlamentuko kideen bostenak edo gutxienez ere ordezkariak hori daukaten talde parlamentarioek eskatzen dutenean, Eledunen Batzarrak informazio bilkurarako dei egitea erabakiko du.
3. Behar bezala arrazoitutako salbuespenetan izan ezik, agerraldia onartzen denetik agerraldia egiten denera ez dira hamabost egun baino gehiago igaroko.
4. Foru diputatuak, aholkulari, goi kargu zein funtzionarioek lagunduta bertara daitezke aipatu informazio bilkuretara.
5. Nafarroako Gobernuak eskatuta deitzen diren informazio bilkurak Foru Diputatuaren azalpenarekin hasiko dira; azalpen horren

gehieneko iraupena hogeita hamar minutukoa izanen da. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek informazioa aztertzeko beta izan dezaten. Bilkura berriro hasten denean, talde parlamentario bakoitzaren ordezkariak eta talde mistoko parlamentariak hamar minutuz mintzatu ahalko dira, beren jarrerak argitzeko, zerbait galdetzeko edo oharren bat egiteko. Foru diputatuak edo laguntzen dioten aholkulari edo funtzionarioek horiei erantzunen diete.

Parte-hartzaileen batek hala eskaturik, lehendakariak galderak edo oharrak egiteko beste txanda bat ireki dezake; bost minutu izanen dira horiek egiteko.

6. Eledunen Batzarrak eskatuta deitzen diren informazio bilkurak deialdi-proposamena egin duen talde parlamentarioaren ordezkariaren azalpenarekin hasiko dira. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek eta foru diputatuak azalpena aztertzeko beta izan dezaten. Bilkura berriz hasten denean, foru diputatua mintzatuko da, eskatutako gaiari buruzko azalpenak emateko, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek azalpena aztertzeko beta izan dezaten.

Ondoren talde parlamentario bakoitzaren ordezkaria eta talde mistoko parlamentariak, agerraldia eskatu duenarekin hasita, hamar minutuz mintzatu ahalko dira, jarrerak argitzeko, zerbait galdetzeko edo oharren bat egiteko. Foru diputatuak edo laguntzen dioten aholkulari eta funtzionarioek horiei erantzunen diete. Parte-hartzaileen batek hala eskaturik, lehendakariak galderak edo oharrak egiteko beste txanda bat ireki dezake; bost minutu izanen dira horiek egiteko.

7. Aurreko bi apartatuetan diputatuentzat ezarritako denbora-mugak ez zaizkio aplikatuko Nafarroako Gobernuko lehendakariari.

XIV. TITULUA

PARLAMENTUAREN HARREMANAK KONTUEN GANBERAREKIN, NAFARROAKO FORU KOMUNITATE- KO ARARTEKOAREKIN ETA NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUAREKIN

I. KAPITULUA

Kontuen Ganberari aholkua eskatzea eta horren lehendakariaren agerraldiak

204. artikulua.

1. Nafarroako Parlamentuak, Osoko Bilkuraren, batzordeen nahiz Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bitartez, zilegi izanen du bere jarduketak oinarrizko beharrezko diren aholkularitza eta txosten teknikoak Kontuen Ganberari eskatzea, eta egoki irizten dionetan, Kontuen Ganberako lehendakaria ager dadila eskatzea, ondorio beretarako.
2. Kontuen Ganberako lehendakariak bere ekimenez eskatu ahalko du agerraldia egitea aurreko apartatuan aipaturiko organoen aurrean, Kontuen Ganberaren eskumeneko gairen bat Parlamentuaren jakinaren gainean jartzeari egoki irizten dionean. Parlamentuko Mahaiari zuzendutako idazkiz eginen da eskaria eta Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, kasua bada agerraldi hori ahalbidetzeko prozedura ezarriko du.
3. Erregelamenduaren 157.2 artikuluan jasotako kasuari dagokion Kontuen Ganberako lehendakariaren agerraldia hasiko da emandako irizpenari buruzko azalpen batekin. Erregelamenduaren 203. artikuluan azaltzen denaren arabera eginen da aipatu agerraldia.
4. Kontuen Ganberako lehendakariak Parlamentuan egiten dituen agerraldietan zilegi izanen du egoki deritzen teknikariekin bertaratzea.

205. artikulua.

Kontuen Ganberak bere eginkizunen jardunean egiten dituen txostenak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, horrek kasuko txostena helaraz diezaion horretarako aztertze-eskumena duen organo parlamentarioari.

II. KAPITULUA**Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren txostenak****206. artikulua.**

1. Parlamentuko Mahaiak, Arartekoaren urteko txostena jaso ondoren, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agindu eta Foru Araubideko Batzordeari dei eginen dio Arartekoak haren aurrean agerraldia egin dezan. Agerraldi hori eginen da 203.5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.
2. Arartekoaren urteko txostena honako prozedura honi jarraikiz eztabaidatuko da Osoko Bilkuran:

Arartekoak txostenaren laburpen bat agertzea, gehienez ere hogeita minutuz.

Azalpen hori amaitu ondoren, talde parlamentarioen ordezkari bana mintzatu ahalko da, gehienez ere hamabost minutuz eta txikienetik handienerako hurrenkeran, nor bere jarrera adierazteko.

Eztabaida horri dagokionez, ezin izanen da erabaki-proposamenik aurkeztu.
3. Arartekoak aurkeztutako txosten monografiko edo bereziak Foru Araubideko Batzordean izapidetuko dira, 1. apartatuan xedatuari jarraikiz.

III. KAPITULUA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren txostenak

207. artikulua.

1. Parlamentuko Mahaiak, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren urteko txostena jaso ondoren, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agindu eta batzorde eskudunari dei eginen dio kontseiluko lehendakariak haren aurrean agerraldia egin dezan. Agerraldi hori eginen da 203.5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.
2. Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak bere ekimenez edo Eledunen Batzarrak, bi talde parlamentariok edo foru parlamentarien bosten batek eskaturik Parlamentuari bidalitako txosten bereziak izapidetuko dira aurreko apartatuan ezarritako moduan.

XV. TITULUA

SENATARIEN HAUTAKETA ETA KONTUEN GANBERAKO LEHENDAKARIAREN NAHIZ NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN IZENDAPENAK

I. KAPITULUA

Nafarroako Foru Komunitateko senatariak hautatzea

208. artikulua.

1. Parlamentuko Osoko Bilkurak, berariaz eginiko deialdian, Nafarroako Foru Komunitatea Senatuan ordezkatu behar duten senatariak hautatuko ditu, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, Konstituzioaren xedapenen arabera, Nafarroari Foru Komunitatea den aldetik dagokion senatari kopurua finkatuko du.
3. Honako hauek hautatu ahalko dira Nafarroako Foru Komunitateko senatari: Espainiako herritarrak, legeek senatari izateko eskatutako baldintza orokorrez gain, nafar izaera politikoa dutenak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.
4. Parlamentuko Mahaiak erabakiko du talde parlamentarioen ordezkariak edo talde mistoko parlamentariak hautagaiak proposatzeko epea. Epea bukatu ondoren, aurkeztu diren senatari-hautagaiak aldarrikatuko ditu eta senatariak hautatzeko Osoko Bilkurarako deia egingen du.
5. Senataria edo senatariak, paper bidezko bozketa sekretu bakarrean hautatuko dira. Foru parlamentari bakoitzak hautagai aldarrikatueta bakar baten izena idatzi ahalko du boto-paperean. Boto zuriek ere balioko dute. Gainontzekoak baliogabeak izanen dira.
6. Hautatuak izanen dira, hurrenez hurren, hautatu beharreko senatari kopurua bete arte, botorik gehien eskuratzen duten hautagai aldarrikatuak. Berdinketak ebatziko dira kiderik gehien duen talde parlamentarioak proposaturiko hautagaiaren alde, eta berdinketa gertatuz gero, adin handieneko hautagaiaren alde.
7. Nafarroako Parlamentuak hautatutako senatarien agintaldia, hautatu dituen Nafarroako Parlamentuaren ondorengoa eratzen den egun berean bukatuko da.

Haatik, Konstituzioak ezarritako edozein arrazoiengatik Senatuko legegintzaldia bukatzen denean ere bukatuko da senatarien agintaldia. Senaturako hauteskundeak egin ondoren eta Senaturatu eratu aurretik, Legebiltzarreko Mahaiak Nafarroako Parlamentuko legegintzaldiaren hasieran hautatuak izan diren pertsona berei emanen die agintea.

II. KAPITULUA

Kontuen Ganberako lehendakaria izendatzea

209. artikulua.

Parlamentuak hautatuko du Kontuen Ganberako lehendakaria, Kontuen Ganberaren eratze-legeak edo lege hori aldatzen edo garatzen dutenek ezarritakoari jarraituz.

210. artikulua.

Hona Kontuen Ganberako lehendakaria hautatzeko arauak:

Lehenengoa. Legebiltzarreko Osoko Bilkuran hautatuko da Kontuen Ganberako lehendakaria.

Bigarrena. Legebiltzarreko Mahaiak finkatuko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Kontuen Ganberako lehendakaritzarako hautagaiak aurkezteko epea.

Hirugarrena. Hautagai-aurkezpena eginen da Legebiltzarreko Mahaiari talde parlamentarioek edo talde mistoko parlamentariak bidalitako idazki baten bidez, zeinetan jasota agertuko baita lehendakari izateko proposatzen den hautagaiaren onarpena.

Laugarrena. Hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, Mahaiak hautagaiak aldarrikatu eta Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako deia eginen du.

Bosgarrena. Lehendakaria hautatzeko, erregelamendu honetako 102 artikulua kargu-hautaketarako ezarritako bozketa-sistema erabiliko da.

III. KAPITULUA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa izendatzea

211. artikulua.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa Parlamentuaren Osoko Bilkurak hautatuko du, Arartekoari buruzko Foru Legeak eta honako arauak ezarritakoari jarraituz:

Lehenengoa. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Ararteko izateko hautagaiak aurkezteko epea ezarriko du.

Bigarrena. Hautagai-aurkezpena eginen da talde parlamentarioek edo talde mistoko foru parlamentariak Mahaiari bidalitako idazki baten bitartez, eta hari gehituko zaizkio hautagaitza onartzeari buruzko adierazpena eta foru lege hartan ezarritako baldintzak betetzearen froga.

Hirugarrena. Hautagaiak aurkezteko epea bukatu ondoren, Mahaiak hautagaiak aldarrikatu eta Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako deia eginen du.

Laugarrena. Arartekoa hautatuko da erregelamendu honetako 102. artikuluan ezarritako sistemari jarraikiz.

XVI. TITULUA

DIPUTATUEN KONGRESURAKO LEGE PROPOSAMENAK, KONSTITUZIO-KONTRAKOTASUNEN ERREKURTSOAK, ESKUMEN GATAZKAK ETA BABES-ERREKURTSOAK

I. KAPITULUA

Diputatuen Kongresurako lege proposamenak

212. artikulua.

1. Konstituzioaren 87.2 artikulua aipatzen dituen lege proposamen eta proiektuak Nafarroako Parlamentuan lantzeko, erregelamendu honen VI. tituluko II. kapituluak ezarritakoari jarraituko zaio.
2. Nafarroako Parlamentuak onetsitako lege proposamenak Konstituzioaren 87.2 artikulua ezarritakoaren arabera Diputatuen Kongresuaren aurrean defendatu behar dituzten foru parlamentarien hautaketa eginen da Legebiltzarreko Mahaiak

horretarako emanen dituen araei jarraituz, Eledunen Batzarraren erabaki loteslearen ondoren.

II. KAPITULUA

Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsok eta babes- errekurtsok

213. artikulua.

1. Mahaiaren edo Eledunen Batzarraren proposamen arrazoitua egin ondoren, zeina 90. artikuluan ezarritakoaren arabera eztabaidatuko den, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak erabaki dezake Konstituzioaren 161.1.a) artikulua eta Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 32.2 artikulua aipatzen duten konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsok aurkeztea.
2. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarraren erabakiaren ondoren, erabaki dezake Parlamentua gainontzeko konstituzio-auzietan agertu eta aurkeztea, aipatu lege organikoan ezarritakoarekin bat, salbu eta hurrengo artikuluan aipatzen direnetan.
3. Bilkuraldien arteko garaietan, lehendakariak erabakiko du aurreko apartatua aipaturiko agertze hori, eta erabakiaren berri emanen dio Mahaiari horrek egiten duen lehenbiziko bileran, hark ebatz dezan, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, agerraldiari eustea edo hari uko egitea.

214. artikulua.

1. Legebiltzarreko Mahaiak, horretarako erabakia hartu ondoren, bere burua Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkeztu ahalko du babes-errekurtsuetan, baldin eta Legebiltzarreko Mahaitik sorturikoak diren erabaki edo egintza lege-indar gabekoen aurka urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 42. artikulua arabera jarritakoak badira.

2. Mahaiaren egintzak irmoak izanen dira horien aurka Legebiltzarreko Erregelamenduaren arabera parlamentu-bidean inongo errekurtsorik aurkezterik ez dagoenean edo errekurtsuak agortu direnean.

XVII. TITULUA

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN EDO GORTE

NAGUSIEN AGINTALDIAREN AMAIERAN

IZAPIDETZEN ARI DIREN AFERAK

215. artikulua.

1. Parlamentuaren agintaldia bukatu ondoren, iraungirik geldituko dira Legebiltzarrak azterkizun eta erabakitzeke dituen afera guztiak, salbu eta legezko arauen arabera Legebiltzarreko Batzorde Iraunkorren zereginetan sar daitezkeenak.
2. Parlamentuaren agintaldia amaitu ondoren, hartarako hauteskundeetarako deialdia egin eta gero, iraungirik geldituko dira Diputatuen Kongresuko Mahaiari aurkeztuak bai baina aintzat hartuak izateke dauden lege proposamenak.
3. Baldin eta Gorte Nagusietan iraungi egiten bada Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuko Mahaiari aurkezturiko lege proposamen baten izapidetzea, Parlamentuko Osoko Bilkurak zilegi izanen du, Eledunen Batzarrak proposaturik, erabakitzea aurkezpena errepika dadin eta berrestea proposamenaren defentsarako hautaturiko foru parlamentariak.

Lehen xedapen gehigarria.

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontu-zuzkidurak aldian-aldian ordainduko dira Legebiltzarreko Mahaiaren eskariz, eta haien igorpena irmoa izanen da.

Bigarren xedapen gehigarria

1. Nafarroako Parlamentuak gaitasun juridiko osoa izanen du, Konstituzioari eta ordenamendu juridikoaren gainerakoari loturik.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, Parlamentuko lehendakariak dauka Legebiltzarraren ordezkaritza.

Hirugarren xedapen gehigarria

1. Parlamentuaren zerbitzuko langileen eskubideak, betebeharrak, egoerak, eginkizunak eta eskumenak Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuan ezarritakoak izanen dira. Estatutu hori foru lege baten indarra duen xedapen baten bitartez onetsiko da.
2. Erregelamenduko Batzordeari dagokio aipatu langileen estatutua onartzea, erabateko legegintza-eskumenez.

Laugarren xedapen gehigarria.

Erregelamendu honetako artikuluek aipatzen dituzten foru parlamentari kopuruak zenbatzeari dagokionez, 0,5 edo hori baino gehiagoko zatiak goitik biribilduko dira, eta gainontzekoak behetik.

Bosgarren xedapen gehigarria.

Erregelamendu honen gaztelaniazko testuak kargu instituzionalak aipatzean adierazpen-ekonomiaren mesedetan genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan (Presidente, Vicepresidente, Secretario, Parlamentario, Consejero eta abar), ulertu behar da postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, haiek bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, efektu juridikoen ikuspegitik erabateko berdintasuneko baldintzetan. Kargua emakume batek betetzen duenean, karguaren izenean genero gramatikal femeninoa erabiliko da, kasu bakoitzari dagokion formarekin (Presidenta, Vicepresidenta, Secretaria, Parlamentaria, Consejera eta abar).

Seigarren xedapen gehigarria.

1. Erregelamendu hau aldatzeko ekimena egikaritzeko, proposamen bat aurkeztuko da, VI. tituluko II. kapituluaren 2. atalean ezarritakoaren arabera formulatu eta izapidetuko dena, baina Nafarroako Gobernuak parte hartu gabe.

2. Aipatu proposamenei buruzko irizpena emateko eskumena Erregelamenduko Batzordeak izanen du.
3. Hori onesteko, Parlamentuko kideen gehiengo osoak emandako aldeko botoa beharko da, Osoko Bilkurak onetsitako testu osoari buruzko azken bozketa batean.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrik gabe geldituko dira Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategin honetan xedatutakoaren kontra dauden xedapen guztiak; eta, berariaz, honako hauek:

- a) Aurreko Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina, Mahaiak 2007ko urriaren 8an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- b) Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren aldaketa, Osoko Bilkurak 2011ko martxoaren 24an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

Lehendakaritzaren ebazpenak

	<u>Or.</u>
§ 1 Lehendakaritzaren ebazpena, 2007ko ekainaren 22koa, talde Mistoaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dituenaren	197
§ 2 Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzaren Ebazpena, 2008ko martxoaren 10ekoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak onesten dituenaren	199
§ 3 Lehendakariaren ebazpena, foru legeen proiektu edo proposamenetan batzordeek egiten dituzten irizpen negatiboetarako buruzkoa	203
§ 4 Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena, 2009ko otsailaren 23koa, Nafarroako Parlamentuan aurkezten diren eskari-idazkien izapide-tzearako buruzkoa	205
§ 5 Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzaren erabakia, 2009ko azaroaren 9koa, Europar Batasunaren arau-proiektuetan subsidiaritatearen printzipioa kontrolatzeko prozedura arautzen duena.....	210

§ 1 Lehendakaritzaren ebazpena, 2007ko ekainaren 22koa, talde Mistoaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dituen.

2007ko maiatzaren 27an izaniko hauteskundeen emaitzen ondorioz, talde Mistoak lau kide besterik ez du; horietako bi Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua alderdikoak dira eta beste biak, berriz, Convergencia de Demócratas de Navarra alderdikoak. Bi talde politikook nafarren legebiltzarrean dira, lehenengoa azken lau legegintzaldietan eta bigarrena azken hiruretan.

Egoera berri horren ondorioz, eta Parlamentuko ordenamendua errealitate politiko eta sozialera egokitze aldera –hori du, izan ere, eginkizuna–, beharrezkoa da talde Mistoaren antolamendua garatzea, talde horrek adierazpide eta identifikaziorako bide nahikoa izan dezan, eta, horrela, hauteskundeetara aurkeztu diren legezko talde politikoen ekimenak argi ager daitezten iritzi publikoaren aurrean. Hori horrela, eta Erregelamenduan ez dagoenez horri buruzko arau nahikorik, gomendagarria dirudi talde mistoaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituzten arauak osatzea, gutxiengoen eskubideek berme handiagoa izan dezaten eta parlamentu-lanen eraginkortasuna handiagoa izan dadin.

Horrenbestez, lehendakari honek, alde z aurretik erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ondoko erabakia hartu du.

Lehen artikulua.

1. Talde politiko bat bere horretan hauteskundeetara aurkeztu eta atera dituen foru parlamentariak talde mistoan badaude, eta bi baino gutxiago ez badira, foru parlamentarien elkarte gisa eratu ahalko dira.

2. Foru parlamentariak ezin izanen dira inola ere talde parlamentario bat baino gehiagotako kide izan.
3. Talde mistoko foru parlamentariak, 1. apartatuan ezarritako baldintzak bete eta elkarte gisa eratu nahi badute, Parlamentuko Mahaiari idazki bat aurkeztu beharko diote ebazpen honek indarra hartu eta bost eguneko epean. Idazki horretan, parlamentu-elkarte osatu nahi duten guztiek sinatuta egonen baita, elkartearen izena agertuko da, eta, era berean, kide guztien izenak, elkartearen ordezkariaren izena eta hura ordezkariaren izena ere agertuko dira. Elkartearen izena ezin izanen da jadanik eratutako talde parlamentarioen izenekin nahasgarria izan. Alderdi edo hauteskunde-koalizio bereko foru parlamentariak ezin izanen dute inola ere elkarte bereizirik eratu. Halaber, hauteskunde garaian hautesleentzako aurrean aurkeztu ez diren talde politikoetako foru parlamentariak ere ezin izanen dute parlamentu-elkarte bereizirik eratu.
4. Talde mistoko eleduna ezin izanen da parlamentu-elkarte bateko kide izan.

Bigarren artikulua.

Eledunen batzarretara, talde mistoko eledunaz gain, talde horren baitan eratutako elkarteetako ordezkariak ere joan ahalko dira, hitz egiteko eskubidearekin eta boto ponderatuarekin, aurreko apartatuan ezarritakoarekin bat.

Hirugarren artikulua.

Foru parlamentarien elkarteek talde parlamentarioei Legebiltzarreko Erregelamenduan eta horren garapen arauetan aitorturiko eskubideak izanen dituzte.

Azken xedepena.

Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko ekainaren 22an
Lehendakaria: Elena Torres Miranda

§ 2 Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzaren Ebazpena, 2008ko martxoaren 10ekoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak onesten dituena.

Erregelamenduan ez dago talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek eskatu eta Mahaiak onesten dituen bisitei buruzko araudi espresik, eta 54.3 artikuluko lan bilerak bezala izapidetzen dira; hartara, bisitak lan bileren aldaera bat lirateke; izan ere, informazioa jasotzeko helburua dute eta ez dago horiei buruzko idatzizko formalismorik, ez baita aktarik egiten, eta alde horretatik begiratuta berdinak dira, baina, lan bilerak ez bezala, bisitak Legebiltzarretik kanpo egiten dira.

Orain arteko bisitetan ez da eragozpen handirik sortu, ez horiek izapidetzean ez bisitak egitean ere, bisita egin dutenen nahiz bisita jaso dutenen laguntza izan dugulako, baina lan bileren nahiz bisiten kasuan agerian gelditu dira hobetu beharreko zenbait alderdi, arau gutxi batzuk emanda hobe daitezkeenak, bisiten araubidea zehazte aldera eta bisitak nahiz lan bilerak era antolatuago batean egin daitezen laguntze aldera.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrak aldez aurretik erabakia hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan

ezarritakoarekin bat, lan bilerak eta bisitak izapidetu eta egiteari buruzko ondoko arauak onetsi dira.

1. Lan bilerak

1. Talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak Mahaiari eskatu ahalko diote lan bilerak egin daitezzen, interes publikoko edozein gairi buruz informazioa jasotzeko haien ustez beharrezkoak diren pertsona, kargu, elkarte nahiz entitateekin. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskatutako lan bilerak egin daitezzen erabaki ahalko du. Bilera horietara hedabideak joan ahalko dira, baldin eta eskatzaileak edo agerraldia egin behar duenak eskatuta Mahaiak hori erabakitzen badu.
2. Eskarian jasota ageriko dira agerraldiaren xedea nahiz deitu beharreko pertsona edo entitateak, eta, deitutakoa entitate bat baldin bada, ondokoak zehaztuko dira: haren legezko ordezkaria, helbidea, telefonoa eta agerraldia etorriko direnekin harremanetan jarri ahal izateko beste edozein datu. Batzordera bost ordezkari etorri ahalko dira gehienez ere. Pertsona eta entitate pribatuen kasuan, eskatzaileek haiei galdetu beharko diete ea agerraldia egitea onartzen duten.
3. Lan bilera egiteko erabakia jakinaraziko zaio deitu beharreko pertsonari, eta orobat adieraziko zaio Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritza geroago harekin harremanetan jarriko dela, agerraldiaren eguna eta ordua zehazte aldera.
4. Batzordeko eztabaidetako arau komunei eta agerraldietarako ezarritakoei jarraikiz egiten dira lan bilerak, eta haietan Parlamentuko ordena eta gizalegea errespetatuko dira.
5. Lan bilerak taxuz egite aldera, ondokoak jakinaraziko zaizkie agerraldia egin behar dutenei:

- a) Identifikatu egin beharko direla Parlamentuko sarreran, eta bilerara etorriko diren pertsoneri eragiten dien aldaketarik baldin badago, aldaketaren berri eman beharko diotela, bezperan gutxienez ere, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzari.
 - b) Bilera kasuko batzordeko buruak zuzenduko duela. Hark, eska-tzailearen mintzaldiaren ondoren, hitza emanen die agerraldia egin behar dutenei, agerraldiaren xede den informazioa eman dezaten hogeitun minutuko gehieneko aldiari, eta ondoren batzordeko kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko bost minutuko gehieneko aldiari. Agerraldia egiten ari direnek hamar minutuko gehieneko aldiari emandako erantzunarekin bukatuko da bilera, baina hori ez da eragozpen izanen Batzordeko buruak, egoki iritzi gero, hitz egiteko beste txanda bat abiaraz dezan.⁽¹⁾
 - c) Agerraldia egiten dutenak ez direla bost baino gehiago izanen.⁽²⁾
 - d) Agerraldian euskaraz aritzeko edo baliabide informatikoren bat erabiltzeko asmoa baldin badute garaiz jakinarazi beharko diotela Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzari.
6. Kasuan kasuko batzordearen deialdiari, gehienez ere, lau lan bilera sartuko dira.⁽³⁾

(1) 2016ko otsailaren 15eko 6/2016 Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpenaren bidez aldatua (2016ko otsailaren 17ko 19. NPAO).

(2) Aldatua 2009ko martxoaren 2ko Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpenaren (2009ko martxoaren 6ko 16. NPAO) eta 2016ko otsailaren 15eko 6/2016 Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren ebazpenaren bidez (2016ko otsailaren 17ko 19. NPAO).

(3) 2009ko martxoaren 2ko Nafarroako Parlamentuko ebazpenaren bidez erantsitako 6. apartatu berria (2009ko martxoaren 6ko 16. NPAO).

2. Bisitak

1. Talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak Mahaiari eskatu ahalko diote bisitak egin daitezzen, interes publikoko edozein gairi buruz informazioa jasotzeko haien ustez beharrezkoak diren leku, zentro nahiz instalazio publiko edo pribatuetara.
2. Eskarian ondokoak ageriko dira jasota: bisitaren xedea; bisitatu beharreko leku, zentro edo entitate; horien ardura duten pertsona edo karguak -baldin eta posible bada-, eta bisitatu beharreko lekua nahiz bisitaren gorabeherak zehazteko mintzakide diren pertsonak identifikatzeko beste edozein datu. Leku eta zentro pribatuen kasuan, eskatzaileek haien arduradunei galdetu beharko diete ea bisita onartzen duten.
3. Baldin eta bisitatu beharreko zentro edo lekua administrazio publiko baten menpekoa bada edo zentro itundu edo diruz lagundua bada, aldez aurretik jakinaraziko zaio bisita egiteko asmoa, eta haren lankidetzat bilatuko da bisita taxuz egin dadin, eta hartara bisitaren deialdia igorriko zaio behin bisitaren eguna eta ordua zehaztuta.
4. Baldin eta bisitan zehar informazioa jasotzeko bilerarik egiten bada leku, zentro edo entitatearen ordezkariekin, batzordeko buruak kasuko arduradunarekin hitzartuko du nola egiten den bilera, lan bilera baten gisakoa izan ahalko baita. Baldin eta bisitatutako lekuaren arduradunengandik ez ezik bisitaren xede denarekin lotutako beste pertsona batzuegandik ere jaso nahi bada informazioa, hala ageriko da jasota bisita egiteko eskarian, eta bisitaren xede den lekuan egiten baldin bada horiekiko bilera, beharrezkoa izanen da bisitatutako lekuaren ardura duen pertsona edo agintariak horretarako baimena ematea.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean
Lehendakaria: Elena Torres Miranda

§ 3 Lehendakariaren ebazpena, foru legeen proiektu edo proposamenetan batzordeek egiten dituzten irizpen negatiboei buruzkoa.⁽⁴⁾

Legegintzako egintzak gauzatzeko ahalmen parlamentarioak forma-prozedura konplexu bat jarraitu beharra dauka; prozedura hori fase ordenatu jakin batzuek osatzen dute, eta horietan parte hartzen dute legebiltzarretan horretarako ahalmena duten organoek. Fase horietako bat da, legegintzako prozedura arruntean, lege proiektua edo proposamena batzordean irakurtzea, bai eta, izanez gero, aurkeztutako zuzenketak ere; zuzenketak eztabaidatuta eta bozkatuta, irizpena emanen da. Horrela dago jasota, Espainiako parlamentu-zuzenbidearekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 132. artikuluan eta hurrengoetan.

Azpitarratu beharra dago, bestalde, ezen, Erregelamenduari eginiko azken aldaketaren ondorioz, indartu egin dela batzordeek legegintza-prozeduran duten zeregina foru lege arruntei dagokienez, hau da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 138. artikuluan jasota ez daudenei dagokienez. Kasu orokor horietan, ezin zaie testuari aurkeztutako zuzenketei edo boto partikularrei eutsi, eta batzordeak

(4) 2013ko abenduaren 30eko Lehendakaritzaren ebazpenaren bidez aldatutako titulua (2014ko urtarrilaren 9ko 3. NPAO).

erabakitako testua osorik eta batera bozkatuko da Legebiltzarreko Osoko Bilkuran. Hala ere, gerta daiteke batzordeak ematen duen irizpena edo ebazpena izatea foru lege proiektua edo proposamenaren errefusatzea; hala gertatuko da, noski, artikulurik eta xedapenik batere ez denean onesten, eta, baztertutako horien ordeztan, beste artikulurik eta xedapenik ez denean onesten. Kasu horietan, beraz, arau-testurik ez dagoenez, irizpena negatibotzat jo beharko da, eta baztertutzat, ondorioz, legegintzako ekimena. Horrenbestez, legegintza-prozedura amaituta geldituko da, eta ez da proposamenik igorri beharko Osoko Bilkurara; besterik gabe, Mahaiari horren berri eman beharko zaio, jakinaren gainean egon dadin eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin. Hori da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko arauetatik inplizituki ondorioztatzen den konponbidea, eta, legegintza-prozesuaren segurtasun juridikoa indartze aldera, komenigarria da, Erregelamenduko 40.2 artikularekin bat, arau-tresna egokiaren bidez esplizitu bihurtzea.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartu ondoren, EBATZI DUT:

Lehena⁽⁵⁾

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 140. artikuluan aipatutako foru lege arrunten proposamen edo proiektuen kasuan, baztertutzat joko da kasuko legegintza-ekimena, eta hala adieraziko da espresuki, baldin eta batzorde eskuduna arau-testu jakin bat onestearen aurka azaltzen bada.

Halakoetan, batzordeko mahaiak foru lege proposamena edo proiektua ez dela onetsi jakinaraziko dio Parlamentuko Mahaiari, eta

(5) Lehenbiziko apartatua 2013ko abenduaren 30eko Lehendakartzaren ebazpenaren bidez aldatua izan da (2014ko urtarrilaren 3ko 9. NPAO).

Mahaiak, horren berri izan ondoren, kasuko erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Aurreko lerrokadetan azaldutako izapidetze bera izanen dute gehiengo osoa eskatzen duten foru lege proposamenek edo proiektuek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 139. artikuluan aipatutakoek, batzordeak arau-testua baztertzen duenean eta, gainera, horretarako emandako epean inongo zuzenketari edo boto partikularri eutsi ez zaionean.

Bigarrena.

Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta, arestiko apartatuan azaldutakoari jarraikiz, batzordean eztabaidatu ondoren onetsi gabe gelditu diren foru lege arrunten proposamen eta proiektu guztiei aplikatuko zaie.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an
Lehendakaria: Elena Torres Miranda

§ 4 Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ebazpena, 2009ko otsailaren 23koa, Nafarroako Parlamentuan aurkeztu diren eskari-idazkien izapidetzeari buruzkoa.

Eskari-eskubideari eta Eskarietako Batzordeari buruzko araudia VII. Legegintzaldiko berritasuna izan da, eta Osoko Bilkurak 2007ko martxoaren 15ean onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren aldaketaren bidez ezarri da. Gaur egun, Mahaiak 2007ko urriaren 8an onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 59. artikuluan araututa dago. Herritarrek Nafarroako Parlamentuan aurkeztu dituzten eskariek,

banakakoek eta taldekakoek, osatu beharreko hutsuneren bat utzi dute agerian. Zehazki, bateragarri egin behar dira Erregelamenduaren 37.1.6 artikulua Mahaiari, oro har, esleitzen dion eginkizuna, zeina baita Eledunen Batzarrari entzun ondotik izaera parlamentarioa duten idazki eta agiri guztiak kalifikatzekoa eta izapidetzekoak diren al ez adieraztea, eta Erregelamenduaren 59.2 artikulua Eskarietako Batzordeari esleitzen dion eginkizuna, alegia, eskari bakoitza aztertu eta izapidetzekoa den ala ez erabakitzekoa.

Hori dela eta, lehendakari honek, Erregelamenduaren 40.2 artikulua esleitzen dizkion eskurantzak baliatuz, Eledunen Batzarrak 2009ko otsailaren 23an hartutako erabaki loteslearen ondoren, xedatu du:

1. artikulua. Eskariak.

Eskaritzat hartuko dira, Erregelamenduaren 59. artikuluan eta lehendakariaren Ebazpen honetan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona fisikoek edo juridikoek Nafarroako Parlamentuan aurkez ditzaketen idazkiak, zeinen bidez eskatzen zaizkion objektuaren, eginkizunaren edo lurralde-esparruaren arabera Parlamentuaren eskumenekoak diren gaiei buruzko ekintzak edo erabakiak.

2. artikulua. Prozedura.

1. Legebiltzarreko Erregistroan eskari-idazki bat jasotzen denean, eskaria sartuko da Parlamentuko Mahaiak egin beharreko lehenengo bilkuraren gai zerrendan.
2. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, idazkia kalifikatu eta eskaria jaso izanaren adierazpena emanen du. Halaber, legelari nagusiari igorriko dio, hark txostena eska diezaien Parlamentuko Zerbitzu Juridikoei.

3. Txosten juridikoa legelari nagusiari igortzen zaionean, espedientea Mahaiari bidaliko zaio, eskaria behin-behinekoz onartzea edo ez onartzea erabaki dezan.

3. artikulua. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eskaria behin-behinekoz onartzea.

1. Eskari-idazkiak behin-behinekoz onartzea Parlamentuko Mahaiari dagokio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren. Horretarako, eskariak idatziz aurkeztu beharko dira, edozein bitartekoren bidez, baita elektronikoa ere, betiere idazkiaren egiazkotasuna ziurtatu ahal bada. Idazkian agertuko dira nahitaez eskaria aurkezten duenaren nortasuna, jakinarazpenak egiteko aukeratu duen lekua edo bitartekoa, eskariaren xede zehatza eta eskariaren jasotzaile zehatza.

2. Eskaria talde batek aurkezten badu, aurreko baldintzak betetzeaz gain, eskatzaile guztiek sinatuko dute, eta sinaduraren ondoan agertuko dira eskatzaile bakoitzaren izen-abizenak.

3. Parlamentuko Mahaiak, behin-behineko onarpena deklaratu ondoren, Eskarietako Batzordera igorriko du, eta horrek aztertuko du Erregelamenduaren 59. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

4. artikulua. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eskaria ez onartzea.

1. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ez ditu onartuko:

a) Eskatzaile berak lehenago aurkeztutako beste eskari baten xede bera duten eskariak. Halako kasuetan, eskaria ez onartzea eta artxibatzea erabakiko da, besterik gabe.

b) Beste eskatzaile batek lehenago aurkeztutako beste eskari baten xede oso antzekoa duten eskariak, aurrekoan izapidera onartu ez bazen edota erakunde, organo edo agintari eskudunari igorri

bazitzaion, Parlamentuaren Erregelamenduaren 59.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Halakoetan, eskariaren sinatzaileei igorriko zaie ez onartzearen bana-banako erabakia, zeinak lehenago hartutako erabakiaren ildo berean ebatziko baitu.

c) Edozein erakunde, organo edo agintarirenganako errespetu falta adierazten duten hitzak edo adierazpenak dituzten idazkiak. Eskaria ez onartzea eta artxibatzea erabakiko da, besterik gabe.

d) Eginiko eskaria arrazoirik gabea, arbitrarioa, gehiegizkoa edo zentzugabea dela jotzen denean, eskari zehatzik jasotzen ez duenean edo fede txarra atzematen denean. Eskaria ez onartzea eta artxibatzea erabakiko da, besterik gabe.

e) Idazkiak izapidetzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, 3.1 eta 3.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, erabaki ahalko da, besterik gabe, eskaria ez onartzea eta artxibatzea.

2. Arestian aipatutako kasuetan Legebiltzarreko Mahaiak erabakiaren berri emanen dio eskatzaileari.

5. artikulua. Batzordeak eskariak aztertzea.

1. Eskaria, kasua bada, Eskarietako Batzordera igorri ondoren, horrek aztertu eta bidezkoa den erabakiko du, eta hartutako erabakiaren berri emanen die eskatzaileei eskaria aurkeztu eta hiru hilabeteko epean.
2. Batzordeak eskumenik ez duela uste badu, eskaria ezetsiko du eta Parlamentuaren lehendakariaren bidez igorriko dio bere ustez eskuduna denari:
 - a) Talde parlamentarioei, Parlamentuan ekimenen bat bultzatu ahal izan dezaten, egoki baderitzote.

- b) Nafarroako Gobernuari edo gaiaren arabera eskudun diren departamentuei, eta harekin batera, bidezkoa bada, eskariaren edukiari buruzko azalpen-eskea.
 - c) Gaiaren arabera eskudun gisa hartzen duen administrazio publikoetako beste edozein organori, agintariri edo erakunderi.
 - d) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari, bere foru lege arautzaileak ezarritako ondorioetarako.
3. Halaber, bidezkoa izanen da eskaria ez onartzea eta artxibatzea ordenamendu juridikoan baldin badaude beste administrazio-prozedura edo prozedura parlamentario edo judizial zehatz batzuk eskariaren xedea lortzeko.
4. Halaber, ez dira onartuko eskariak, horien xedearen gainean jada hasitako administrazio-prozedura edo prozedura parlamentario edo judizial bat bada, prozedura horiei buruzko ebazpen irmoa ematen ez duten bitartean.
5. Eskari bat izapidetzerako onartu ondoren, Eskarietako Batzordeak erabaki ahalko du eskatzaileek agerraldia egitea, komenigarritzat jotzen badu. Eskarietako Batzordeak egoki diren erabakiak hartuko ditu izapidetzeko onarturiko eskariei dagokienez, eta horiei buruzko gomendioak egin ahalko dizkie botere publikoei eta erakundeei.

6. artikulua. Eskariak iraungitzea.

Legebiltzarraren agintaldia amaitu eta legebiltzarrerako hauteskondeak deitutakoan, aztertu eta ebatzi gabe dauden eskari guztiak iraungi eginen dira. Parlamentuko lehendakariak eskariak iraungi izanaren berri emanen die eskatzaileei, eta idatzi berean adieraziko die legebiltzar berria noiz osatuko den, handik aurrera eskatzaileek beren eskubidea berriro balia dezaten, bidezkoa jotzen badute.

Xedapen iragankorra

Ebazpen hau aplikagarri izanen zaie gaur egun ebazteke dauden eskaerei.

Azken xedapena

Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2019ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

§ 5 Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzaren erabakia, 2009ko azaroaren 9koa, Europar Batasunaren arau-proiektuetan subsidiaritatearen printzipioa kontrolatzeko prozedura arautzen duena.

Lisboako Itunaren ondoriozko Europar Batasunaren Itunaren testu bateratuaren 5. artikuluko 3. eta 4. apartatuek honela diote:

“3. Subsidiaritatearen printzipioaren arabera, bere eskumenen osokoak ez diren alorretan, Europar Batasunak soilik esku hartuko du baldin, eta halako neurritz non, estatu kideek ezin duten nahikotasunez lortu gauzatu nahi den ekintzaren helburua, ez estatu mailan, ez eskualde eta toki mailan, eta, aldiz, helburu hori, egin nahi den ekintzaren neurriagatik edo ondorioengatik, hobeto lor daitekeenean Europar Batasunaren mailan.

Europar Batasuneko erakundeek subsidiaritatearen printzipioa aplikatuko dute, Subsidiaritatearen eta Proportzionaltasunaren Printzipioen Aplikazioari buruzko Protokoloari jarraikiz. Legebiltzar

nazionalak zainduko dute subsidiaritatearen printzipioa errespetatzen dela, aipatu protokoloan ezarritako prozedurari jarraikiz.

4. Proporzionaltasunaren printzipioaren arabera, Europar Batasunaren ekintzaren edukia eta forma ez dira urrunago joango itunetako helburuak lortzeko beharrezkoa dena baino.

Europar Batasuneko erakundeek proporzionaltasunaren printzipioa aplikatuko dute, Subsidiaritatearen eta Proporzionaltasunaren Printzipioen Aplikazioari buruzko Protokoloari jarraikiz.”

Aurreko apartatuetan aipatutako protokoloaren 6. artikulua lehen letrorik ezartzen da:

“Legebiltzar nazional orok edo legebiltzar horietako ganbera orok, legegintzako egintza proiektu bat Batasuneko hizkuntza ofizialetan jaso eta zortzi asteko epean, irizpide arrazoitu bat igorri ahal du die Europar Batasuneko lehendakariari, Kontseiluko lehendakariari eta Batzordeko lehendakariari, bertan azalduz zergatik bere ustez proiektua ez zaion subsidiaritatearen printzipioari egokitzen. Legebiltzar nazional bakoitzari edota legebiltzar nazional horietako ganbera bakoitzari dagokio, legegintzako eskumenak dituzten erregio-legebiltzarrei kontsulta egitea, beharrezkoa denean.”

Europar Batasunaren Itunaren 5. artikuluko xedapenak aplikatze aldera, Gorte Nagusietako Europar Batasunerako Batzorde Mistoak onetsi zituen, 2009ko martxoaren 24ko Erabakiaren bidez, “Europar Batasuneko legegintzako ekimenek subsidiaritatearen printzipioa betetzen ote den egiaztatzeko kontrolaren gaineko entsegu pilotuak egiteko irizpideak”. Haren 1. puntuak honela dio:

“1. Batzorde Mistoak idazkariak, legegintzako ekimena ganbaretan jaso bezain laster, posta elektronikoaren bidez igorriko die batzordekideei, bai eta autonomia erkidegoetako legebiltzarrei ere,

eta kasu bakoitzean adieraziko da zein den oharrak edo arrazoitutako irizpen proposamenak egiteko epea.”

Autonomia erkidegoetako legebiltzarrei igorritako jakinarazpenetan emandako epea lau astekoa izan da. Hain zuzen, epe hori berretsi da Batzorde Mistoak bere lege arautzailea –8/1994 Legea– 2007ko abenduaren 13ko Lisboako Itunera egokitzeko onetsi duen irizpenean. Irizpen horren 6.2 artikulua honela dio:

“2. Kasua bada, autonomia erkidego bateko legebiltzarrak onesten duen irizpen arrazoitua aintzat hartu ahal izateko, beharrezkoa izanen da irizpen hori ganberetako batean jasotzea Gorte Nagusiek Europar Batasuneko legegintzako ekimena igorri eta lau asteko epean.”

Azaldutakoaren arabera, eta Nafarroako Parlamentuak egin ahal izan dezan Gorte Nagusiek igortzen dizkioten Europar Batasuneko legegintzako ekimenetan subsidiaritatearen printzipioa betetzen ote den egiaztatzeko kontrola, beharrezkoa da prozedura bat arautzea. Prozedura hori ondoko arauetan jasotakoa da, etorkizunean egin ahalko diren eguneratzeen kalterik gabe.

Horrenbestez, lehendakari honek, aldez aurretik Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ondoko ERABAKIA hartu du:

Lehenengo artikulua.

Europar Batasuneko legegintzako ekimenetan subsidiaritatearen printzipioa betetzen ote den egiaztatzeko kontrola egiteko prozedura antolatuko duten arauak onetsi dira. Hona hemen arauak:

1. Europako Gaietako Ponentzia, zeina osatuko baita Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordearen barruan, izanen da organo eskuduna Gorte Nagusiek igortzen

dituzten Europar Batasuneko legegintzako egintza proiektuek subsidiaritatearen printzipioa urratzen ote duten esateko .

2. 1. Europar Batasuneko legegintzako proposamen bat jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak aipatu ponentziako kideei igorriko die, posta elektronikoaren bidez. Halaber, Nafarroako Gobernuari ere igorriko zaio, bide bera erabilita, Gobernuak, bi asteko epean, proposamenari buruzko txostena eman dezan, eta, zehazki, legegintzako ekimena subsidiaritatearen printzipioarekin bat etortzeari buruz duen iritzia eman dezan. Txosten hori, jaso ondoren, ponentziako kideei igorriko zaie.
2. Halaber, Parlamentuko zerbitzu juridikoei igorriko zaie, txosten bat egin dezaten legegintzako egintza proiektuak Nafarroak arlo horretan dituen legegintzako eskumenetan duen eraginari buruz, subsidiaritatearen printzipioa betetzeari dagokionez. Txosten hori bi asteko epean eginen da, eta legelari nagusiak ponentziako kideei igorriko die.
3. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du aurreko apartatuetan aipaturiko epeak luzatzea, beharrezkotzat jotzen duenean.
3. Kasuan kasuko txostenak jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak ponentziaren bilkura deituko du, gutxienez ere 48 ordu lehenagotik, eta deialdian adieraziko da ponentziaren lanak amaitzeko epemuga.
4. Ezarritako epearen barruan, ponentziak eskatu ahalko du legegintzako proiektuari dagokion alorrean adituak diren funtzionarioen eta pertsonen agerraldia. Ponentziak zehaztuko du bere lanen egutegia, halako moduz non egin dezakeen duen irizpena amaituta egonen baita deialdian ezarritako egunerako.

5. Ponentziak uste badu aztertu duen proiektuak subsidiaritatearen printzipioa urratzen duela, arrazoituta irizpen bat egin eta Parlamentuko lehendakariari igorriko dio, horrek Gorte Nagusietara igor dezan. Aldiz, uste badu legegintzako proiektua aipatu printzipioarekin bat datorrela, iritzi horren berri emanen dio lehendakariari, horrek Gorte Nagusiei jakinaraz diezaien, ponentziak hala eskatzen badu espresuki.
6. Irizpen arrazoitua Gorteetara igortzeko epea lau astekoa izanen da gehienez, legegintzako egintza proiektua Nafarroako Parlamentuan jasotzen denetik hasita.
7. Ponentziaren lanak ohiko bilkuraldietatik kanpo egin behar direnean, legebiltzarreko lehendakariaren esku geratuko da lan horiek egiteko beharrezkoak diren egunak gaitzeko ahalmena.

Lehenengo xedapen gehigarria.

1. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteek heldu den azaroaren 10eko 12:00ak baino lehen jakinaraziko diote Parlamentuko lehendakariari nor izanen den Europako Gaietako Ponentzian izanen duten ordezkaria, bai eta haren ordezkia ere. Lehendakariak ponentziaren eratze-bilkura deituko du. Aipatu bilkura heldu den azaroaren 11n izanen da, eta iragan urriaren 29an, 11:00etan, sartutako Ondorengotzei buruzko Erregelamendu proposamenaren ebaluazioa heldu den azaroaren 19a baino lehen amaitu beharko da.
2. Europar Batasunaren erregelamendu proposamen hori Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, 2. arauan aurreikusitako txostena eman dezan, ahal izanez gero.

Azken xedapena.

1. Erabaki hau igorriko zaie Nafarroako Gobernuari eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei.
2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2009ko azaroaren 9an hartuko du indarra.

Iruñean, 2009ko azaroaren 9an
Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GAI AURKIBIDEA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua
eta Lehendakariaren ebazpenak

ABALAK

Foru Diputazioari abalak eratzeko baimena ematea, **164**

ABANTAILAK

Foru parlamentarienak, **18.etik 20.era**

— Immunitatea, **19**

— Lehendakariak Legebiltzarraren eta haren kideen eskubideak zaintzeko neurriak hartuko ditu, **20**

— Ukiezintasuna, **18**

ABSENTISMOA

Foru parlamentariena, **117.1.a)**

ABSTENTZIOA

Bozketetan, **94.3, 99.1** eta **101**

ADIERAZPEN POLITIKOAK

Organo eskuduna, **44.6.^a**

ADINEKO MAHAIA

Osaera, **3**

AGERRALDIAK

Arartekoarena, **206**

Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren lehendakariarena, **207.1**

Kontuen Ganberako lehendakariarena, **204**

Nafarroako Gobernuarena, **203**

AGINTALDIA BUKATZEA

Parlamentari izaera galtzeko arrazoia, **28.4**

AGINTARIAK

Batzordeetan agertzea, **56.1**

Erantzukizuna, batzordeetan ez agertzeagatik, **56.2**

AGIRIAK

Epea, **109.2**

Erregistroa, **109.3**

Kalifikazioa, **37.1.seigarrena**

Mahaiaren gai zerrendan sartzea, **109.4**

Nola aurkeztu, **109.1**

AGIRIAK AURKEZTEA

Erregistro Orokorrean, **109**

AHOLKULARITZA

Batzordeetako mahaiena eta ponentziena, **57**

Kontuen Ganberarena, **204.1**

Parlamentuko Mahaiarena, **38.2**

AINTZAT HARTZEA

Foru Diputazioaren iritzia, **148.2, 3** eta **4**

Foru lege proposamenak, **148.5**

AIPAMENAK

Foru parlamentariei buruzko aipamenak, **85.3**

Talde parlamentarioei buruzko aipamenak, **85.1**

AKTAK

Onartzea, **106.2**

Edukia, **106.1**

Mahaiaren bilkurak, **38.2**

Batzordeen bilkurak:

— In voce zuzenketak gehitzea, **136.5**

— Idazketa, **57**

Bilkura sekretuak, **113.2**

Erreklamazioa, **106.2**

Baldintza formalak, **106.2**

Idazkariak Osoko Bilkuretako, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko aktak ikuskatzea eta ontzat ematea, **42**

Talde parlamentarioen eraketa, **30**

ALDAKETA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduarena, **seigarren xedapen gehigarria**

ALDEKO TXANDA

Iraupena, **90.3**

Lehendakariaren ahalmenak, **90.6**

Mintzatzea, **90.2**

Zuzenketen eztabaidan, **134.5**

ALDERDI POLITIKOAK

Talde parlamentarioa eratzea, **29.3**

ARARTEKOA

Arartekoa hautatzea eta izendatzea, **211**

Arartekoaren agerraldiak, **206**

Arartekoaren txostenak, **206**

ARGITALPENAK

Nafarroako Parlamentuarenak, **112**

ATXIKI GABEKO PARLAMENTARIAK

31 eta **32.2**

ATXIKITZEA

Foru parlamentariak, **20**

ATXILOTZEA

Foru parlamentariak, **20**

AURKARATZEA

Foru parlamentariaren baten aldarrikapen edo hautapenaren aurka, **6.2** eta **3**

AURREKONTU-ZUZKIDURAK

Nafarroako Parlamentuarenak, **lehen xedapen gehigarria**

AUTONOMIA ERKIDEGOAK

Lankidetza hitzarmenak eta itunak egiteko baimena, **167.etik 169.era**

AUZIPETZE-AUTO IRMOA

Foru parlamentaria eskubide eta eginbeharrez gabeturik gelditzea, **27.3**

BAIMENAK

Foru Diputazioari:

- Arau komunak Estatuarekin hitzarmenak egiteko eta autonomia erkidegoekin lankidetza hitzarmenak eta itunak egiteko, **170**
- Autonomia erkidegoekin lankidetza hitzarmenak eta itunak egiteko, **167.etik 169.era**.
- Estatuarekin hitzarmenak egiteko, **165** eta **166**

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan sartzen ez diren eskumen eta ahalmenak eskuordetu, transferitu edo emateko ekimena erabili ahal izateko, **171**
- Zor publikoa jaulki, abalak eratu eta maileguak hartzeko, **164**

BALDINTZAK

Beren eskubide eta abantaila osoak lortzeko, **26.2**

Bilkuretako akten baldintza formalak, **106.2**

Deialdienak, **73.4**

Erabakienak, **93.1** eta **94.1**

Interpelazioenak, **184.1**

Talde parlamentario bat eratzeko, **29**

Zentsura-mozioenak, **179.1**

BALIOZKOTZEA

Foru lege dekretuak, **161**

BATERAEZINTASUNAK

Batzordeetako mahaietako kideena, **48.1**

Batzordeetako mahaietako kideenak, **7**

Foru parlamentarien kasuan horrelakorik ote dagoen aztertze-
agiriak, **1.1**

Parlamentarienak: Mahaiak hala aldarrikatzea, eta horren ondorioak, **25**

BATZORDE ARRUNTAK

Eratzea, **58.3**

Erregelamenduan aurreikusten ez diren beste batzuk sortzea, **60**

Zein izanen diren zehaztea, **58.1**

BATZORDE BEREZIAK

Gai zerrenda, **80.1**

Sortzea, **62** eta **63**

Zer behar den lortzeko, **61**

BATZORDE IRAUNKORRA

Bilkurarako deia, **67.3**

Boto haztatua, **67.1**

Burutza, **67.1**

Eginkizunak, **68** eta **69**

Foru lege dekretuak izapidetzea presako prozeduraren arabera foru lege proiektuen gisara, **161.5**

Gai zerrenda, **67.3** eta **80.1**

Ordezkoak, **67.1**

Osaera, **67.1**

BATZORDEAK

Ahalmenak: informazioa nahiz agerraldiak eskatzea, **56**

Arruntak, **58.**etik **60.**era

Batzordearen eratze-bilkura, **46.**etik **48.**era

— Batzordeetako mahaietako kideak hautatzea, **48**

— Deialdia, **46.2**

— Lehendakaritza, **47**

Bereziak, **61.**etik **63.**era

Bilkuretara joaten direnak, **54**

Deialdia, **53**

Eskarietako Batzordea, **59**

Eskubidea, Nafarroako Gobernuari eta administrazio publikoei informazioa eta dokumentazioa eskatzekoa, **56**

Eskumenak, **52**

Foru parlamentarien eserlekuak, **45.3**

Gai zerrenda, **53.2** eta **80**

Ikerketa batzordeak, **62**

Jendaurrekoak ez direnak, **77.1**

Lan bilkurak, **54.3**

Legegintzarako eskumen osoa, **159** eta **160**

Legelarien aholkularitza, **57**

Mahaiak batzorde eskuduna zein den ezartzea, **37.1.zazpigarrena**

Mahaiak egutegia finkatzea, **37.1.zortzigarrena**

Osaera eta kide kopurua, **45.1**

Talde parlamentario bakoitzaren ordezkariak izendatzea, **46**

BATZORDEAK ELKARTUZ OSATURIKO BATZORDEAK

Sortzea, **63**

BATZORDEAK NAHASTUZ OSATURIKO BATZORDEAK

Sortzea, **63**

BATZORDEETAKO LEHENDAKARIAKAldarrikatzea, **48.2**Hautatzea, **47**Kargua uztea edo kargutik kentzea, **49****BATZORDEETAKO MAHAIK**Batzordeetan gai, eztabaida edo bilkura jakin baterako egiten diren ordezkapenak jakinarazi behar zaizkie, **45.2**Eginkizunak, **50**Hautaketa, **47** eta **48**Mahaiko kideen kargu-uztea edo kargutik kentzea, **49**Osaera, **45**Zuzenketak ordenatzea, **130****BERDINKETAK**Berdinketak desegiteko modua, **104****BERMEAK**Foru Diputazioari abalak eratzeko baimena ematea, **164****BERRIRO IGORTZEA**Foru lege proiektu bat batzordeari, **145****BILERAK**Bilkura-zatia, **75.1**Etena, **75.5**Foru parlamentariena, deialdirik gabea, **74.1****BILKURA ARETOA**Foru parlamentarien hartuko duten eserlekua, **66.1**Gobernuko kideentzako toki berezia, **66.2**Sarrera, **66.3****BILKURA EGUNKARIA**Argitalpenaren ofizialtasuna, **112.2**Edukia, **113****BILKURAK**Arruntak, **72.1**Batzordeenak: jendaurrekoak ez direnak, **77.2**Bereziak, **72.2**

Deialdia bertan behera uztea, **74.2**

Deialdia nola eginen den, **73**

Etetea, **75.4** eta **5**

Ikerketa batzordeenak, **78**

Irekitzea, **75.3** eta **4**

Sekretuak, **77.1**.lehenengoa eta bigarrena, **77.3**, eta **78**

Jarraitzea, **75.4**

Jendaurrekoak, **77**

Jendea joatea, **79**

Kontzeptua, **75.1**

Osoko Bilkurarena: jendaurrekoak, **77.1**

BILKURALDIAK

Arruntak, **72.1**

BILKURARAKO DEIAK

Batzorde Iraunkorraren bilkurenak, **67.3** eta **73.1**

Batzordeak eratzeko bilkura, **46.2**

Batzordeen bilkurenak, **53** eta **73.1**

Batzordeetako mahaien bilkurak, **73.2** eta **130**

Bertan behera uztea, **74.2**

Bilkura bereziak, **72.2**

Deialdien baldintzak, **73.4**

Eledunen batzarra, **43.1** eta **73.2**

Epea, **73.5**

Mahaia, **38.1** eta **73.2**

Osoko Bilkurak, **65** eta **73.1**

Parlamentua eratzeko bilkura, **2**

Presako deia, **73.6**

BISITAK

Egiteko modua **§ 2**

BOTO HAZTATUA

Batzordean gerta daitezkeen boto-berdinketak desegiteko, **104.2**

Eledunen Batzarrean, **43.5**

BOTO PARTIKULARRAK

Batzordean baztertua izan den testuaren aldekoak, **139.3**
 Ikerketa batzordeen konklusioei aurkeztuak: argitalpena, **62.8**

BOTOA AZALTZEA

Ezinezkoa da bozketa sekretuan, **105.3**
 Ezinezkoa da nork berea azaltzea, **105.4**
 Ordena, **105.2**
 Talde parlamentarioek, **105.1**

BOTOA ESKUORDETZEA

Foru parlamentariena, **94.2**

BOZKETA

Berdinketa, **104**
 Errepikatzea, **104.4**
 Hitzaldia moztu, **95**
 Motak, **97**
 Ordu jakin batean, **96**
 Zenbaketa eta aldarrikapena, **103**

BOZKETA, BAIESPENEZ EGITEN DENA

Kontzeptua, **98**

BOZKETA, SEKRETUA

Prozedura, **102**
 Txartel bidez: batzordeetako mahaietako kideak hautatzeko, **48.1**
 Txartel bidez: Mahaiko kideak hautatzeko, **9.2** eta **10.1**
 Txartel bidez: Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria
 hautatzeko,
175.bosgarrena
 Txartel bidez: Parlamentuko lehendakaria hautatzeko, **8.4**
 Zein kasutan eginen den, **100**

BOZKETA, ARRUNTA

Egiteko moduak, **99**

BOZKETA, PARLAMENTARIEI BANAN-BANAN DEITUTA

JENDAURREAN EGITEN DENA

Prozedura, **101**

Zein kasutan eginen den, **100**

DEFENTSARAKO TXANDA

Iraupena, **90.3**

Lehendakariaren ahalmenak, **90.6**

Mintzatzea, **90.1**

Zuzenketen eztabaidan, Osoko Bilkuran, **141.1**

DIPUTATUEN KONGRESUKO LEHENDAKARIA

Erregeari Parlamentua eratu dela jakinaraztea, **12**

DIPUTATUEN KONGRESURAKO LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Parlamentuan lantzea, **212.1**

Proposamenak Diputatuen Kongresuaren aurrean defendatu behar dituzten foru parlamentarien hautaketa, **212.2**

DIRULAGUNTZAK

Foru parlamentari bati eskubideak kentzeak ondorioak ditu talde parlamentarioentzako dirulaguntzetan, **118.2**

Talde parlamentarioentzat, **35**

DIRUSARRERAK GUTXITZEA

Aurrekontuen foru lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak, **155**

Foru lege proiektuei aurkezturiko zuzenketak, **129**

Foru lege proposamenak izapidetzea, **148.2** eta **3**

EGINBEHARRAK

Foru parlamentarienak, **21.etik 25.era**

Bateraezintasunei buruzko araudia betetzekoa, **25**

— Bilkuretara joatekoa, **21**

— Ondare-ondasunen eta jardueren aitortzea egitekoa, **24**

— Parlamentuko ordena, gizalegea eta diziplina errespetatzekoa, **22**

— Sekretua gordetzekoa, **22**

EGINTZAK

Mahaiarenak:

— Horren aurkako babes errekursoak, **214.1**

— Irmotasuna, **214.2**

EGUN BALIODUNAK

Agirien aurkezpena, **109**

Epeen zenbaketa, **107.1**

ELEDUNA

Eledunen Batzarrean zenbat boto dituen, **43.5**

Talde mistoaren eledunaren hautaketa, **43.2**

Talde parlamentarioek aurkeztutako zuzenketak izenpetzen dituzte, **128.2**

Talde parlamentarioek foru lege proposamenak eledunaren sinadurarekin bakarrik aurkeztu ahal izatea, **148.1.b)**

Talde parlamentarioenak Eledunen Batzarra osatzen dute, **43.1**

Taldearen eledunak izenpetu beharra foru parlamentariak nork bere izenean aurkezten dituzten zuzenketak, **128.2**

ELEDUNEN BATZARRA

Adierazpen politikoak egitea, **44.seigarrena**

Agintariak, funtzionarioak eta pertsonak bertara daitezen agintzea, **44.zazpigarrena**

Bilkurarako deia, **43.1**

Bilkuren deialdien berri Nafarroako Gobernuari ematea, **43.3**

Bilkuretara joaten direnak, **43.4**

Boto haztatua, **43.5**

Boto loteslea Mahaiarentzat:

- Batzorde bakoitzean talde parlamentario bakoitzak zenbat kide dituen finkatzeko, **45.1**
- Batzorde berezien funtzionamenduari, antolamenduari eta eratzeari buruzko arauak emateko, **63**
- Erregelamenduan sartzen ez diren arau bereziak emateko, **37.1.bederatzigarrena**
- Ikerketa batzordeen funtzionamenduari, antolamenduari eta eratzeari buruzko arauak emateko, **62.3**

Erregelamenduaren osagarri modura ebazpenak ematen dituenean, lehendakariak Eledunen Batzarraren erabaki loteslea lortu beharra, **40.2**

Gai zerrenda, **80.1**

Gainerako eginkizunak, **44.bederatzigarrena**

Gobernuko kideen informazio-bilkurak premiatzen ditu, **203.1** eta **6**

